

ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2016

Haur eta Nerabeentzako
Bulegoaren txostena





URTEKO TXOSTENAK

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2016

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena



Lan hau [Creative Commons Attribution 3.0 Unported \(CC BY 3.0\)](#) lizentziapean dago



Lan honen **bibliografia-erregistroa** [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

Formatuak eta edizioak:

Paperean, [RTF](#) eta [XML](#) formatuetan ere bai

Gaztelaniazko edizioa: [Informe anual al Parlamento Vasco 2016. Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia](#)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2016. Laburpena](#)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

– [web](#) gunean

– [posta elektronikoz](#) eskatuz

– aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Diseinua, maketazioa, inprimaketa eta multimedia aplikazioak: Otzarreta Komunikazioa

ISSN-e 2255-4947

The image features a minimalist abstract design. On the left, a large, teardrop-shaped area is composed of two overlapping layers: a darker olive green in the foreground and a lighter, semi-transparent green behind it. To the right, a portion of a red shape is visible, also appearing to have a layered or gradient effect. At the bottom center, the top edge of another green shape is partially shown. The text 'Aurkibidea' is positioned in the upper right quadrant, overlapping the green and red areas.

Aurkibidea

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 11

I. ATALA

Arau- eta antolaketa-testuingurua 13

1. 2016ko jarduera-esparrua 15

2. Arau- eta eskumen-esparrua 15

II. ATALA

Eskubideak urratzea? Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak 19

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditentak: gerturatze kuantitatiboa 21

2. Arriskuan dauden eskubideak: 22

2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea 22

2.2. Hezkuntzarako eskubidea 26

2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea 30

2.4. Familia babeslea izateko eskubidea 42

2.5. Osasunerako eskubidea 46

2.6. Adingabe arau-hausleen eskubideak 49

2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea 50

2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea: atzerritarren seme-alabak; LGTBI haurrak eta nerabeak; haur eta nerabe ezgaituak; neska-mutil ijitoak. 51

III. ATALA

Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan hartua izateko eskubidea:

Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua 59

IV. ATALA

Haurren eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko jarduerak 63

1. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartzea ospatzea 65

2. Gizarte-eragileekiko lankidetzak 66

3. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak 66

4. Ekitaldietan parte-hartzea 67

V. ATALA

Haur eta nerabeen eskubideen egoera baloratzea 69

VI. ATALA

Eranskina 79

Arloko araudia 81

AURKEZPENA

Aurkeztera goazen agirian bilduta daude Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2016. urtean egindako jardueraren elementurik esanguratsuenak. Gogorarazi nahi dugu, aurten ere, erantsitako txostenaren formatua daukala, hau da, osotasun integratu baten (Arartekoak Legebiltzarrarentzako egin duen 2016. urteko txostena) zatia izanda ere, modu independentean irakur daitekeen agiria egin dugu. Horrela, erakundearen antolaketarekin eta funtzionaltasunarekin lotutako errealitatea islatzen du, talde bereziki ahul horri dagokionez: Ararteko erakundearen jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduerak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek adingabearen interes gorenari ematen dio lehentasuna, eragindako eremua edo bizitzaren alderdia edozein dela ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa bost kapitulutan egituratuta dago, eta seigarren kapituluan eranskinak eta arloko araudia agertzen dira. Lehenengoan bulegoaren jardueraren araudi-testuingurua

azaltzen da, bai eta txostenak hizpide duen urterako ezarritako plangintzaren barruan dauden lan-ildoak ere.

II. kapituluan, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta, ikusitako arazo nagusiak aipatzen dira, arriskuan ikusitako eskubideen inguruan bilduta. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziozko ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren; foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikaskuntzak erreparatzeko dira.

III. kapituluan zehazki azaltzen da zer-nolako jarduera burutu duen haur eta nerabeentzako gure partaidetza-organoak: Haurren eta Nerabeen Kontseiluak.

IV. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jarduera bildu ditu.

Azkenik, V. kapituluak ixten du agiria. Bertan, haurren eta nerabeen eskubideen egoeraren balorazioa egiten da, laburpen gisa.



I

ATAIA

Arau- eta antolaketa- testuingurua

I. Atala

ARAU- ETA ANTOLAKETA-TESTUINGURUA

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2016. urtean zehar garatu duen jarduera erakundearen ardatz estrategiko nagusiei jarraiki bideratu da, eta bulegorako aztergai dugun urterako taxutu diren jarduera ildoak kontuan hartuta. Plangintzaren aukera horiek gizarte- eta arau-testuinguru jakin batean gertatzen dira. Plangintza erantzunak ematen saiatzen da baina testuinguruak egiteko modu zehatza mugatu eta baldintzatu egiten du.

2016ko jarduera planak (esan dugunez, 2010-2014 aldirako estrategiaren esparruan azaldutakoa) han azaldutako lan-ildoak zehaztu ditu, esku artean dugun denboraldirako. Plan hori gure bidaia orria da eta horri esker adierazitako bidean zehar aurrera egin dezakegu ahaleginak batuz eta gure helburuak ahalik eta modu eraginkorrean lortzeko beharrezkoak diren sinergiak sortuz. Ondorengo kapituluetan aipatuko diren jarduerak plan horren emaitza dira.

1. 2016ko jarduera-esparrua

2016rako lan-ardatz eta lan-ildoek luzatu egin dituzte, gauza batzuk eguneratuta, Arartekoak 2010-2014 aldirako jarduera-esparruan bildu zituenak. Esparru hura zehazki azaldu zen [2010. urteko txostenean](#).

Erakundearen gainontzeko eremuetan bezala, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak adingabeek aurkezten dituzten edo eurengan eragina duten kexak eta eskaerak jaso eta aztertzen ditu. Kexak eta eskaerak modu zuzenean edo legezko ordezkarien bitartez aurkeztu ditzakete. Lan hori modu batean norbaitek (pertsona batek, kolektibo batek) edo zerbaitek (komunikabideen bitartez edo beste bideren bitartez ezagutu den eskubideen urraketa posible bat) aurkezten digunaren aurrean “erreakzionatzean” datza eta lan-ildo proaktiboagoen bidez osatzen da. Azken horien artean jarduera hauek daude: sarean, modu kolektiboan eta lankidetzara erabiliz egindako lana sustatzera eta haurren eskubidearen kultura zabaltzera zuzendutako jarduerak, bereziki, adingabeen parte hartzea eta euren ahotsa entzunarazteko aukera bul-tzatzen dituztenak.

Ararteko erakundeak gain hartu duen “matrize-eredua” dela-eta, eremu materialetan espezializatutako sektore-arloak zeharkako begiradek osatzen dituzte, kasu honetan, haurren eta nerabeen eskubideenak. Horren xedea elkar aberastea eta lan koherente eta sinergikoa lortzea da. Haur eta Nerabeentzako Bulegoa berezko langileen hornidura txikiarekin egituratu da, haurrei eta nerabeei maiztasun handiarekin eragiten dieten gaien arloko aholkularien laguntzarekin batera.

2. Arau- eta eskumen-esparrua

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

1990. urtean [Espainiak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena \(HEH\)](#) berretsi zuen, 1989ko azaroaren 20an [Nazio Batuen Erakundearen \(NBE\)](#) batzarrak hartu zuena. HEH modu unibertsalean onartu den haurren eskubideen katalogoa da; aldi berean, estatuek errespetatzeko, bermatzeko eta bete-arazteko dauzkaten betebeharrak ezartzen dituena.

Konbentzioak, lehenengo bi artikuluetan haurren arloan erakundearen ekintza guztiak bideratu behar dituzten funtsezko bi printzipioak ezarri zituen: bereizkeriarik ezaren printzipioa eta adingabearen interes gorena. 6. artikulutik aurrera, lau eskubide multzo handi zerrendatu dira: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera izateko eskubidea, haurren eta helduen artean baliabideak banatzekoa; **Sustapena**, alegia, erabat garatzeko eta osasun eta hezkuntza maila gorenak izateko eskubidea; **Babesa**, hots, gurasoen eta profesionalen zainketak jasotzeko eskubidea eta ekintza eta praktika neurri-gabeak jasan behar ez izatea; eta **Parte-hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nork bere kabuz adierazpenak egiteko eta banaka zein taldean hitza izateko eskubidea.

Horrez gain, beste bi premisa hauek kontuan hartu behar dira: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzeari dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundearen eta gizartearen ardura partekatua.

Aukerakoak baziren ere (hautazkoak) Espainiak ere sinatu eta berretsi ditu Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko bi protokoloak. Protokolo horietan babes kontuak aipatzen dira batez ere: HEHren Hautazko Protokoloa, gatazka armatuetan haurren parte hartzeari buruzkoa; [HEHren Hautazko Protokoloa, haurren salmenta, haurren prostituzioa eta pornografian haurrak erabiltzearen gainekoa](#); eta HEHren III. Hautazko Protokoloa, komunikazio prozedura baten ingurukoa. Azken protokolo horrek mekanismo bat ezarri du haurrek edota euren ordezkariak salaketa jarri ahal izan diezaioten beren eskubideak babesten [espezializatutako](#) nazioarteko batzorde bati, eskubide horiek urratuak izan direla uste badute. Beraz, modu zabalago eta indartsuagoan onartu dute haurrak eta nerabeak eskubideen subjektu direla.

2016an Haurren Eskubideen Batzordearen azken bi ohar orokorrak onartu ziren; jakina denez, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko parte diren estatu sinatzaileen eta aukerako protokoloen betetze mailaren jarraipena egiteaz gain, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren interpretazio egokirako orientazioak ere eskaintzen ditu konbentzioko aplikatu beharreko hainbat esparrutan, eta helburu horri dagozkio aipatutako bi ohar orokorrak:

- **19. Ohar Orokorra**, haurren eskubideak gauzatzeko aurrekontu publikoak egiteari buruzkoa. Aurrekontu publikoari dagokionez, parte diren estatuak 4. artikulua aplikatzeko laguntza da helburua, betebeharrak ezarri eta konbentzioko aldarrikatutako eskubide guztiak gauzatzeko moduari buruzko gomendioak helaraziz, aurrekontu publikoari lotutako erabakiak hartzean eraginkortasuna, efizientzia, berdintasuna, gardentasuna eta iraunkortasuna gidatzen hartuta.
- **20. Ohar Orokorra** haurren eskubideak nerabezaroan ezartzeari buruzkoa. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko 18. artikuluko beherako pertsona guztien eskubideak aintzatesten dituen arren, batzordearen abiapuntua da ezarpenean eboluzio gaitasunak eta garapena aintzat hartu behar direla. Nerabeen eskubideak gauzatzeko bermatzeko hartutako ikuspuntuak oso desberdinak dira haur gazteen kasuan hartutako ikuspuntuarekin konparatuz gero. Hala, haurrek nerabezaroan eskubideak gauzatu ahal izatea bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko orientazioak eskaintzen zaizkie estatu partaideei. Nerabeen gorputza eta duintasuna errespetatu eta aitortzea barne hartuko duen eta giza eskubideetan oinarritutako den ikuspuntuaren garrantzia nabarmendu behar da; ahalduntzea, herritartasuna eta beraien bizitzetan parte hartze aktiboa izatea, osasuna, ongizatea eta garapena sustatzea, eta giza eskubideak sustatu, babestu eta gauzatzeari konpromisoa izatea, bereizkeriarik gabe.

2016ko maiatzean, Espainiako Gobernuak, [Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren](#) bitartez,

[Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren V. eta VI. Aplikazio Txostena eta Aukerako Protokoloak](#) aurkeztu zituen (lehendabiziko biak, hirugarrena 2014ko apirilean sartu baitzen indarrean); bertan erreforma nagusiak jaso ziren, 2010ean Haurren Eskubideen Batzordeak emandako gomendioei erantzunez, eta, oro har, Espainian haurren eta nerabeen eskubideen egoera aurkeztu zen. Autonomia Erkidegoetatik iritsitako informazioa Haurtzaro eta Familien Erkidegoen arteko Batzordetik eta [Haurtzaroaren Behatokitik](#) jaso da, ordezkari guztiak zibilaren eta erakunde publikoen ekarpenekin. Parte hartze prozesua elkarrekin mugimendura ere zabaldu da, [Gizarte Ekintzako Gobernu Kanpoko Erakundearen Estatu mailako Kontseiluaren](#) bitartez.

Bestalde, gizarte zibilak, [Haurtzaroko Elkarrekin Plataformaren](#) gidaritzapean, txosten osagarria egiteko prozesua garatu du urte osoan zehar, eta oraindik txostena ez da bukatu; Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko 45. artikuluan xedatutakoari erreparatu zaio, kide diren estatu txostenek gain haurtzaroko elkarrekin estatu mailako koalizioek Haurren Eskubideen Batzordera bideratutako txosten osagarriak egiteko aukera jasotzen baitu. Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak prozesu horretan parte hartu du, plataformak defendatzaileekin urtero antolatzen dituen topaketan bitartez.

Haurren eskubideei begirako nazioarteko erreferentziako ituntzat aipatu dugu, halaber, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH); bada, ezin dezakegu ahaztu, halere, haurrak ez direla HEHn bakarrik ageri, Espainiak berretsitako eta sinatutako nazioarteko beste zazpi itunetan ere engeiatutako eta eragindako haur eta nerabeak baitaude:

- [Eskubide Zibil eta Politikoak](#) haurrenak ere badira.
- [Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalak](#) haurrenak ere badira.
- [Arrazagatiko bereizkeriak](#) haurrak ere kolpatzen ditu.
- [Tortura](#) motaren bat jasaten duten haurrak daude.
- [Emakumea](#) izateagatik bereizkeria jasaten duten neskatilak daude.
- [Urritasunen](#) bat duten haurrak daude.
- [Behartutako desagertzeak](#) pairatzen dituzten haurrak daude.

Ondorioz, beharrezkoa da nazioarteko zazpi itun horien edukia ezagutzeko, bai eta horien segimenduak egiten dituzten batzordeen jardura ezagutzeko ere. Beharrezkoa da itun horiek diotenaren berri edukitzea, horietan eragin ahal izateko. Nolanahi ere, horixe da aipatu batzordeek jada hartu duten ikuspegia, eta [hainbat lan elkarrekin egiten hasi dira](#).

Nazioartean, gogoan izan behar da badaudela Espainiak hainbat hitzarmen berretsi dituela –hainbat nazioarteko erakundeak sustatu dituzte itun horiek, hala nola [Nazioarteko Lan Erakundeak](#), [Hagako Nazioarteko Zuzenbide Pribatua-](#)

ren gainera [Konferentziak](#), besteak beste-, adingabeei dagozkien sektore-gaietan: haurren lana, adingabeak ostea, sexu-esplotazioa, nazioarteko adopzioa eta abar.

Europar Batasunaren esparruan ere berariaz haurren eskubideak aipatzen dituzten arauak daude. Arau horien artean nabarmenduko dugu [Europako Parlamentuaren 1992ko uz-tailaren 8ko A-3.0172/92 Ebazpena](#), [Haurren Eskubidearen Europako Gutuna onartzen duena](#). Ebazpen horrek hauek proposatzen ditu: haurren eskubideen defentsariaren figura, estatu-mailan nahiz Europa mailan. Defentsari horrek eskaerak eta kegak jaso beharko ditu, haurrei babesa ematen dieten legeak aplikatzen direla zaindu, eta botere publikoan jarduna haurren eskubideen alde bideratu. Halaber, haurren eskubideen erkidegoko gutun bat egin beharko litzateke, proposatzen den gutxieneko edukia duena.

Halaber, aipatzekoa da [Europar Batasunaren Oinarritako Eskubideen Gutuna \(Lisboako Itunaren zatia\)](#). Gutun horrek, adingabeei dagokionez, haurrak entzunak izateko eskubidea, haurren interes gorena kontuan hartzea eta gurasoekin hurreman izateko eskubidea aldarrikatzen ditu. Garapenean, bi gertaera gogoangarri: lehenbizikoa, «[Haurren Eskubideen gainera Europar Batasuneko Estrategiarantz](#)» izeneko jakinarazpena, Europako Batzordearena (2006), zeinak hainbat egitura ezarri baititu EBko erakundeek haurren eskubideei lotutako arazoei aurre egiteko duten ahalmena indartzeko, eta egintzetan oinarritutako politiken zimentuak finkatu baititu, interesdunekiko elkarrekintza arintzeko asmoz; eta, bigarrena, [Haurren Eskubideen Aldeko EBko Agenda](#) (2011), zeinak batez ere eremu jakin batzuetan jartzen duen arreta, EBko eremu horietan benetako balio gehigarria ekar deza-keelako, adibidez, haurrentzako justizia eskuragarri egiteko arloan, egoera zaurgarrietan dauden umeak babestuz eta Europar Batasunaren barruan zein kanpoan haurrengan eragina daukan indarkeriaren kontra borrokatuz.

Haurrak eta nerabeak babestearen arloan, Espainiako legeria sakon eguneratu zen 2015ean. Horren berri zehatz samarra eman genuen bulegoaren iazko txostenean. [Urtarrilaren](#)

[15eko 1/1996 Lege Organikoan](#) (Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa), [abenduaren 28ko 54/2007 Legean](#) (Nazioarteko Adopzioari buruzkoa), [abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan](#) (Genero-indarkeriaren aurka babes osoa emateko neurriei buruzkoa) eta [Kode Zibilean](#) funtsezko aldaketak egin ziren, garrantzitsuak, haur eta nerabeen eskubideak bermatzeari dagokionez.

Espainiako Estatuaren lurralde- eta administrazio-egiturarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak, ahal legegilea duenak, adingabeen eskubideen babesaren eta sustapenaren arloan **autonomiako legeria** garatu zuen [3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko onartu zuenean. Lege horren bigarren Tituluan, "Haurren eta nerabeen eskubideak eta eskubide horien erabilera" izenekoan, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean sortu ziren eskubideak zerrendatzen dira. Legearen gainerako ataletan babesik gabeko egoeran dauden haurren babesa arautzen da. Beraz, araudi sektorialari buruz hitz egitean berriz ere aipatuko dugu legea.

2016an haurren araudiko alderdi jakin batzuk eguneratzeko zenbait lan egin dira, 2015ean onartu ziren legeetan egindako aldaketa sakonen argitan (aurreko paragrafoetan aipatu ditugu horiek). Lan horiek, zehazki, babesik gabe dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuek esku hartzeari buruzkoak direnez gero, dagokion atalean azalduko ditugu.

Bukatzeko, adierazi behar da adingabeen eskubideak eta haurren babesean eta zainketan hartutako konpromisoak zehaztea oso lan luzea dela, hainbat arlori eragiten baitie, besteak beste: osasunari, hezkuntzari, gizarte-babesari, arrisku-egoerei eta babes gabeko egoerei, birgizartertzeari eta haurren osotasunaren babesari. Hori dela eta, lege, dekretu eta gainerako garapen ugarian aipatzen da, arau-markeko zabal bat eratuz. Marko horretatik elementu nagusi hauek nabarmendu ditugu dokumentu honen II. eranskinean. Arloko araudi horretan 2016an egindako balizko berrikuntzak txosten honetako II. kapituluaz azalduko dira, arlo bakoitzeko azalpenarekin.

II

ATAALA

Eskubideak urratzea?

Kexak, kontsultak
eta ekimen propioko
jarduerak

II. Atala

ESKUBIDEAK URRATZEA? KEXAK, KONTSULTAK ETA EKIMEN PROPIOKO JARDUERAK

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardueraren zati handi bat, ez guztia ordea, kexa- eta kontsulta-espeditenteak bideratzean datza, hau da, espeditente horiek ikertu, aztertu eta baloratzean. Kexa- eta kontsulta-espeditenteen analisiari hurbiltzeak batik bat helburu diagnostikoa du bulegoaren berariazko agiri honetan. Bere oinarritzko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezka-garriak hautematea da, eta espeditente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentso gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditenteak: gerturatze kuantitatiboa

2016an, 521 kexa-espeditentetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %20,45etan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteak (489): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditenteak (32), haur eta nerabeen talde batzuk ahultasun egoeran daudela edo beraien premiei behar bezala erantzuten ez zaiela susmatzen denean, egoera horiek aztertze eta horien bilakaera ikusteko.


Alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditentetan, erakunde honek bi kasuok zenbatzen ditu:

- a. Nerabeek eta gazteek zuzenean egindako kexak.
- b. Neska-mutilen edota nerabeen ordezkariak egindako kexak. Oso ehuneko handian, pertsona hori adingabearen aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak eta hezitzaileak ere bai.

Edonola ere, kexa **nork egiten duen** ikusita, hasteko, hau xe esango dugu: 2016an ez du kexa bakar bat ere egin haur edo nerabe batek zuzen-zuzenean. Horrela, kexen %100 helduek egin dituzte eta neska-mutilengan eragina duten egoerak azaldu dizkigute. Kexa horietatik 10 gizarte-erakundeek egin dituzte (norbanakoen egoerak azaldu dituzte) eta beste 14 kexa elkarteek egin dituzte, baina pertsonal batek baten ordezkari gisa; horregatik, adingabe gehiagori eragiten diete.

Gaikako esparruen araberako espeditenteen sailkapena (horren azterketa xehatua txosten honetako 2.2. ataleko muin nagusia osatzen du), ondorengo grafikoan islatutakoa da:

1. grafikoa
Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa, gai-esparruaren arabera



Haurren pobrezia	196	(%40,1)
Hezkuntza	144	(%29,5)
Familiak	32	(%6,5)
Gizarte zerbitzuak: babesik gabeko haurrak	31	(%6,3)
Osasuna	23	(%4,7)
Irisgarritasuna	18	(%3,7)
Aisia eta eskola kirola	12	(%2,5)
Beste batzuk	11	(%2,3)
Justizia	10	(%2,0)
Ingurumena	8	(%1,6)
Segurtasuna	4	(%0,8)

GUZTIRA

489

Iturria: guk geuk egina

2016an honako esparruak aztertu dira ofiziozko ikerketetan, hau da, norbanakoaren kasua gainditzen duten arazoak edo, erakunde honen ustez, haurren eskubideren bat arriskuan egon daitekeen egoerak aztertzeko hasitakoetan: babesik gabeko haurrentzako gizarte-zerbitzuen arloak (14), osasuna eta arreta soziosanitarioa (8) eta prekariotasun ekonomikoa eta gizarte ahultasuna (6). 32ra iritsi arteko zenbaketa honela banatzen da: ofiziozko espediente bana hezkuntza, familiak, justizia eta ingurumen arloetan.

2. Arriskuan dauden eskubideak

2016. urtean, adingabeen arloan Ararteko erakundeak egindako jardueraren ikuspegi kuantitatiboa osatzeko, antzemandako arazoak eta kezak azaltzen dira, eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzak edo ondorioak, zenbatutako kexen ehunekoak iradokitako hurrenkeran eta guztiak azalduko egoeretan arriskuan dauden eskubideen inguruan bilduta.

2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea

27. artikulua ¹ (Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenekoak)

1. Haur guztiek dute beren garapen fisikoa, mentala, izpirituala, morala eta soziala bultzatuko duen bizi-maila izateko eskubidea, eta estatu kideek hori onartzen dute.
2. Gurasoek edo haurra zaintzen dutenek haurrari bere garapenerako beharrezkoak diren baldintzak eman behar dizkiete, beti ere bere ahalbide eta diru-baliabideen arabera.
3. Estatu kideek, estatuko baldintzen eta dituzten baliabideen arabera, guraso edo haurren erantzukizuna dutenei laguntza emango diete eskubide hau bermatu dadin, eta beharrezkoa bada laguntza materiala eta laguntza-programak bideratuko dituzte, batez ere elikadura, jantzi eta etxebizitzaren arloan.

Zaila da prekariotasun ekonomikoa edo pobrezia egoeretan bizi diren haur eta nerabeen kopurua zehaztea, eta zaila da, halaber, oinarrizko beharrezkoak estaltzeko zailtasun egoeretan daudela azaltzen duten familien espedienteetako haur eta nerabeen kopurua zehaztea. Beste urte batez, diru sarreak bermatzeko errentaren jasotzaile guztietatik seme-alaba adingabeak dituzten bizikidetzak unitateen ehunekoaren estimazioa aplikatzen bazaie erakunde honek izapidetutako presazio ekonomikoa horren espedientei, ondorioztatzen dugu 196 familia zailtasun ekonomikoa larriko egoeran bizi direla, eta gehienetan adingabe bat baino gehiago dago.

2.1.1. Arauzko testuingurua eta testuinguru soziala

2016. urtean ez da arlo honetako araudi berrikuntzarik aurkeztu, eta gizarte testuinguruari dagokionez, zenbait datu jakitera eman dira, esaterako:

¹ II.2 kapituluaren atal bakoitzaren goiburuan aipatutako artikulua Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenekoak dira (Nazio Batuak, 1989).

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularren kopuruak behera egin du. 2015. urtean 66.000tik gora izan ziren, eta 2016an behera egin du, pixkanaka; abenduan jasotzaileen kopurua 63.797 zen. Datu hauek eta lanik gabeko pertsonen tasak behera egin duela ikusita, badirudi krisi ekonomikoaren une kritikoenak atzean geratu direla; nolana ere, berreskurapenaren erritmoa motela eta ezegonkorra da.
- **FOESSA fundazioaren Pobrezia belaunaldiz belaunaldi transmititzea: faktoreak, prozesuak eta esku hartzeko proposamenak** azterlanak ohartarazi zuen haurren pobrezia buruzko informazioa modu isolatuan aztertzea arriskutsua dela; gaur egun bizi dugun garaiarekin bat dator, dena sinplifikatzen duen garaia baita, berehalako eragina eta irudia gailenduz, gertarako testuinguruan eta konplexutasunez aztertzea zinez zaila izaten da. Hortaz, berehalakotasunaren atalasea gainditzea eta errealitatea testuinguruan ikustea proposatzen da, denboraren ikuspuntuarekin; hala, horrek pobrezia gurasoek seme-alabei transmititzen dietela aztertu eta horri buruz hitz egitera garamatza, belaunaldiz belaunaldi, oinordetzan har daitekeen zerbait izango balitz bezala; hain zuzen ere, oinordetzan hartzen den zerbait da. Pobrezia belaunaldiz belaunaldi transmititzeak, autoreen aburuz, aukeren berdintasunaren mitoan aurrean jartzen gaitu; horrez gain, gizartearen estratifikazio eredu modura, klaseen egitura us tez desagertu izana ere parez pare jartzen digu.
- **UNICEFek** apirillean aurkeztu zuen **Berdintasuna haurrentzat: Espainiako kasua** txostena. Desberdintasunen errealitatearen argazki eguneratua. Azken zortzi urteetan krisi ekonomikoak eta finantzarioak astindu dituen komunitate guztietatik haurrena eta gazteena da deigarriena. Ulergarri esanda, krisialdiak haurren eragin latzagoa izan du, eta ondorioak denbora luzeagoz ordainduko dituzte, batzuen kasuan bizitza osoan. UNICEFen **Report Carden 13. alearen** edizioan jasotako informazioan oinarrituz, azterlanak Espainiak eta inguruko beste herrialde batzuek dauzkaten erronkak aurkeztu nahi ditu, desberdintasunaren eta haurren pobrezia artean ezartzen den lotura delikatu horretan.

2.1.2. Arartekoaren jardunbidea herritarren eskarien aurrean

2.1.2.a) Iazko txostenean nahiko sakon landu genuen **Arartekoaren 2/2015 Gomendio orokorra, apirilaren 8koa, politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharrari eta, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemari buruzkoa**. Erakunde honetan diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoei buruzko kexak aurkezten dituzten bizikidetzako unitateetan haurren presentzia handia da, eta horixe izan zen abiapuntua gutxieneko diru-sarrerak ukatu edo bertan behera uzteak haurren interes nagusi eta eskubideetan duen eragina iri buruzko hausnarketa egiteko.

Gomendio orokorra plazaratu eta gero, **Lanbidek** erakunde honi erantzun zion printzipio hori modu sektorialean aplikatzen dela, hau da, haurren esparruan baino ez dela aplikatzen (gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak, dibortzio egoerak, banaketa, adopzio prozedura, tutoretza eta harrera araubidea eta pareko egoerak). Arartekoak, Haurren Eskubideen Batzordearen **14. Ohar Orokorrarekin** eta haur eta nerabeak babesteko sistema aldatu zuen **uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoarekin** bat etorritik, administrazio publiko guztiek nahitaez bete behar duten araua dela esaten jarraitzen du.

Ondorengo informazio eskaeren erantzunetako batzuetan, erakunde honek gomendio orokorrean azaldutako argudioa jasotzen zuten erantzunetan, Lanbidek esan zuen **jarduketa horren ondorioz –betebehar bat (ez betekizuna) ez betetzea eta, ondorioz, prestazioa etetea / bertan behera uztea– “adingabe horiek babesik gabe geratzen badira, gizarte zerbitzu eskudunek (kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiko **Umeen Zerbitzua**) haurren ardura har dezakete**”. Irizpide hori, erakunde honen iritziz, adingabeen eskubideen inguruan eta haurrak eta nerabeak babesteko politika eta neurriak hartzeko jardun-irizpideen inguruan nazioarteko mailan, European eta autonomia erkidegoan onartu diren jarraibide guztien kontra dago. Horrez gain, haurren legediak ezarri zuenez, **“gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen pobrezia egoera ezingo da aintzat hartu babesgabetasun egoera baloratzeko” (urtarrilaren 15eko 1/1996 Legearen 18.2 artikulua, indarrean dagoen bertsioan)**.

Irizpide hori babesgabetasun egoeran dauden adingabeen kasuetako gizarte zerbitzu eskudunekin erkatze aldera, eta Lanbidek adingabeak administrazio publikoaren babespeira bideratzen dituen egoeretan gizarte zerbitzu eskudunek nola jokatuko luketen jakiteko, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari informazioa eskatu zitzaion, espediente hartan aipatutakoa. Foru zerbitzua kautelaz mintzatu zen, eta egoera bakoitza modu berezian landu eta jorratu behar dela gogorarazi zuen. Hala ere, irizpide orokor gisa azaldu denez, gorago aipatutako lege aginduaren ondorioz, **“administrazio hau ezingo litzateke adingabeen kargu egin, salbu eta familiak adingabeak zaintzeko eskaera egiten badu, seme-alabak zaintzea eragozten duen aldi bateko egoera larria daukatelako, edo baliabide ekonomikorik ezak babesgabetasuneko beste adierazle objektibo batzuekin agertzearen ondorioz adingabeak babesgabetasun egoeran egongo balira; horrek zaintza bereganatzea eragingo luke. Baina inolaz ere ez arrazoi horregatik bakarrik, indarrean dagoen araudian argi geratu den moduan”**.

2.1.2.b) Beste kexa honetan azaldutako egoerak haurrei bereziki erasan die, sistema publikoen artean lankidetzan eta koordinazioan lan egiteak dakarrenarekin. Lanbidek pertsona baten diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioak bertan behera uztea erabaki zuen, lan eskaintza bateko hautapen prozesu batean parte hartzeari uko egin ziolako. Bizikidetzako unitate emakume batek, bikotekideak eta bien alabak osatzen zuten. Kexagileak **Gipuzkoako Foru Aldundiak** sustatutako familia mailako esku-hartze programa batean hartzen zuen parte, **Trebatu** programan. Kexaren izapidean zehar, fami-

lia esku-hartzeak abian jarraitzen zuen. Arartekoaren ustez, aintzat hartu behar zen familia horrek familia mailako interbentzio sozioedukatiboko programa batean parte hartu zuela. Lanbidetik eta familia esku-hartzeko programatik lantzen ari ziren helburuak deskoordinatuta zeudela argi zegoen. Arartekoaren ustez, lan eskaintza bateko hautapen prozesuan parte hartzeari uko egiteko kausa justifikatua zegoela aztertu egin behar zen, aintzat hartuta sinatutako Inklusio Aktiboko Hitzarmenak ez zituela aipatzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko familia eta gizarte mailako esku-hartze programaren ondorioz adostutako ekintza eta konpromisoak. Lanbidek gizarteratze eta laneratze prozesuak sustatzeko esku hartu duten beste eragile batzuen diagnostia eta gizarte esku-hartzeak aintzat hartzea zentzuzkoa da, 2016ko [maiatzaren 24ko Arartekoaren Ebazpena](#).

2.1.2.c) Hirugarren kexa batean familiek –gehienetan guraso bakarrekoak– seme-alabak zaintzeko dituzten beharriaren gainean Lanbidek egiten duen balorazioa aipatu da. Kasu honetan, kexagileak azaldu zuenez, dibortziaz zegoen eta bi seme adingabeen zaintza eskusiboa zeukan; semeetako batek ezgaitasun maila jakin bat zeukan. Enplegu bat eskaini zioten, segurtasun zaintzaile gisa, aste-oro txanda desberdinetan. Seme adingabeen beharriaren aintzat hartuta (bereziki ezgaitasuna daukan semearena), lan baldintzek eragiten zizkioten zailtasunak azaldu zituen. Familia bizitza uztartzea ezinezkoa zitzaionez, enplegu eskaintza baztertu zuen; horrenbestez, Lanbidek prestazioa etetea erabaki zuen. Arartekoaren ustez, adingabearen interes gorena aintzat hartuz, egoera pertsonalak eta lanaren ordutegiak justifikatu egiten zuten enplegua baztertu izana; horrenbestez, enplegua baztertzeko kausa justifikatu bat egoteari buruzko aurreikuspena betetzen zen, 18/2008 Legearen 28.1.i) artikulua aplikatuz, 4/2011 Legearen aldaketak emandako bertsioan, [Arartekoaren 2016ko abenduaren 2ko Ebazpena](#).

2.1.2.d) *“Eskualdeen eragina haurren pobrezian Euskal Autonomia Erkidegoan. EPDS 2012”* txostenean, 2014an [Eusko Jaurlaritzak](#) emandakoa, ondorioztatu zen pobrezia errearen eta pribazio arazo larrien arteko loturaren ondorio latzenak [elkadura arazo larri zegozkiela](#) (EAEko haur populazioaren % 5,9). Datua kezagarria da, eta, bestalde, ordura arte genituen pertzepzioen guztiz aurkakoa da; hala, 2015ean errealtate horretatik gertu zeuden eragileekin biltzeari ekin genion, datua egiaztatzeko eta, horrenbestez, esparru horretako neurriak eskatzeko.

Aipatutako txostenean adierazi zenez, “gabezia modu larriena, esaterako elkadura arazo larriak pairatzea, meta-keta pobrezia ere lotu ohi dira. Hala, adierazle horretan Bilbo beste eskualde batzuk baino askoz gorago ageri da, elkadura arazo larriak dituzten haur txiroen populazioa % 12,6 baita; Gasteizen % 9,7 eta % 7 ingurukoa Ezkerraldean eta Eskuinaldean; hala, Arartekoa **Bilboko Udalarrekin** harremanetan jarri zen horri buruzko informazioa lortze aldera. [Gizarte Ekintza Arloko](#) arduradunekin bilera egiterakoan jakinarazi ziguten udal [Osasun Arloko](#) udalerrian eskolatutako haur guztien osasunaren jarraipena egiten duela (ikastetxe publikoetan zein itundutakoetan), zentroetara

joaten den sendagileen talde baten bitartez. Kasu puntualak salbu, ez da elkadura arazo larririk antzeman. Elkadura desegokia, ordea, bai antzeman da (janari azkar eta aurretik prestatutako janari gehiegi jatea, opil asko, freskagarriak eta gozokiak, etab.), eta horrek haurren obesitate indizeak areagotu ditu, [Euskal Herriko Lehen Mailako Pediatria Elkarteko](#) profesionalak 2015ean egondako bileran esandakoaren ildotik. Horrenbestez, eta bere iritziz, esfortzua hezkuntza programetan egin behar da.

Nolanahi ere, etxebizitzari lotutako beharriaren (mantentzea eta energia), osasun beharriaren, edota oinarrizko beharriaren estaltzeko zailtasunak dauden egoerarako laguntza ekonomikoak daude. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), eta zenbait egoera direla medio GLLak ere jaso ezin dutenentzako udal [laguntza bereziak](#). Laguntza horien zenbatekoa, guztira, ia 7 milioi eurokoa izan zen 2015ean.

Udal Prestazio Ekonomiko Bereziak hainbat lerrotan artikulatzen dira; 2016an aurrekontuko kapituluekin bat datoz:

1. Etxebizitzaren lerroa: alokairuetarako laguntza, kaleratzeak saihesteko, derramak, etab.
2. Pobrezia energetikoaren lerroa: ehuneko handi batean, eskatzaileak nagusiak dira (asko, emakume alargunak), diru-sarrera justuekin (gehienez diru-sarrerak bermatzeko errenta), neguan etxea bero izatea lortzen ez dutenak (gehienetan etxe zaharrak dira, ez oso ondo isolatuak).
3. Oinarrizko beharriaren lerroa, bertan sartzen dira elkadura, arropa, etab.: haurren pobrezia lehentasuna ematen zaio, baina behar duten familiei bideratutako laguntzak gizarte elkarrekin antolatzen dituzte, hitzarmenen bitartez:

- Bizkaiko Gurutze Gorria: elkadura eta higiene kit-ak.
- Cáritas: “erosketa txeketa” programa, iraganean; seme-alabak dituzten emakumeentzako programa, eta oinarrizko beharriaren dituzten familientzako programa.
- Elikagaien Bankua: udal diru-laguntza jasotzen dute, eta oinarrizko gizarte zerbitzuek pertsonak banaketa zentroetara bideratzen dituzte. Udal laguntza, printzipioz, pertsonak jasotzen dituzten paketeak hobetzeko ematen dira, produktu galkorrekin edota proteina gehiagoko produktuekin osatuz.

Seme-alabak dituzten familien beste beharriaren batzuk GLLekin betetzen dira, ez baitira bat ere ez zorrotzak errol-datze denborarekin: betaurrekoak, audifonoak, etab. Odontologia tratamenduak jasotzea planteatzen ari dira, Afrikako komunitatearen zati handi batek ahoa oso egoera txarrean izaten baitu iritsitakoan.

Egoera ekonomiko prekarioan dauden familiekin harremanetan daudenekin elkartzeko “katea” jarraituz, Arartekoa Gurutze Gorria eta Cáritas Bizkaiarekin harremanetan jarri da.

Adingabe eta familiekin egiten diren programetan aritzen diren **Cáritas Bizkaia** erakundeko arduradunek adierazi dutenez, artatutako familia eta pertsona kopuruak zein esku-hartzearen esparru honetako gastuek gainditu egiten dute udalarekin daukaten hitzarmenean jasotakoa, ekimen publikoak ez baitu beharizanen % 100 estaltzen. Bi programetako beste ideia partekatu bat, hain zuzen ere, udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean eta oso harreman onean lan egiten dutela da; gizarte zerbitzuetatik programa behar duenari eskaintzen zaio (izan ere, udal erantzun bat da), eta udal finantzaketarik ez daukaten beste programa batzuetan artatu daitezkeela uste dutenean, Cáritasera joateko bide-ratu eta orientatzen dituzte.

Oinarrizko beharriak betetzeko familien laguntza programaren arduradunaren arabera, 2007ko udatik elikagaien eskaerak gora egin zuen. Une horretara arte, ohikoenak alokairurako edota berokuntza gastuetarako eskaerak ziren, elikagaiak ematea aspaldi desagertu baitzen zerbitzuetatik. Eskaera horri erantzuteko supermerkatuetan ordaintzeko bonoak ematea erabaki zuten, eta janari bonoetan milioi bat euroko zifra iritsi ziren. Beste erakunde batzuek elikagaien gaiari ekin ziotenean (Elikagaien Bankua, Gurutze Gorria...), oinarrizko “beste” beharriak batzuen arreta lehenetsi zuten berriz ere. Hala ere, supermerkatuetako bonoak erabiltzen jarraitu zuten, bolumen txikian; laster aldatzea aurreikusi dute, txartel-zorroak erabiliz, erabiltzaileen estigmatizazioa murriztuz. Diru-sarrera txikiak dituzten pertsonak erabiltzen dituzte batez ere, osagarri gisa, baina elikadurarako erabiltzen dutela bermatzea beharrezkotzat jo da.

Programa orokorraren pertsona onuradunen profila (programa, esan dugun bezala, beste beharriak batzuk estaltzeko baliatu da berriz ere, ez nahitaez elikadurari lotutakoak) diru-sarrerak bermatzeko errentatik beherako edo oso beherako diru-sarrerak dituzten pertsonena da. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko betekizunak betetzen ez dituzten pertsonak dira (gehienetan eroldari dagozkionak), baina baita prestazioa eten edo azkendu zaien pertsonak ere. Prestazioa eten eta bertan behera utzi den egoeretan, kasuak batez ere banaka aztertzen dira, bizikidetzaren unitatean adingabeak dauden, lehen aldia baldin bada, eteteko arrazoia, etab. aztertuz.

Programa horren barruan, GLLen aurrerapenak ere egiten dira: oinarrizko gizarte zerbitzuaren informazioarekin, aipatutako kontzepturako dirua aurreratzen da (betaurrekoak, audifonoak, etab.), eta ondoren udalak zuzenean ordaintzen du.

Zaurkortasun egoeran dauden guraso bakarreko familientzako programak lau lan ildo ditu: 1) laguntza ekonomikoa, 2) prestakuntza –harreman espazioetatik eta tresna espazioetatik artikulatuta–, 3) hazkuntza laguntza eta 4) etxebizitzarako laguntza. Udalarekin hitzartutako programan esku-hartzeak sei hilabeteko iraupena izatea aurreikusten

da, baina luzeago jo ohi du. 2015ean 25 familiak hartu zuten parte, 35 adingaberekin.

Gurutze Gorriarekin egindako bileraren helburua krisiak kolpatu dituen eta adingabeak dituzten familiei laguntzeko programa ezagutzea zen. Udalaren iritziarekin bat etorritik, eta programetan ikusten dena aintzat hartuta, haien ustez elikadura arazoak ohitura ez osasuntsuetatik eratorritik dira, eta ez horrenbeste elikadura faltatik. Hortaz, esku-hartzea hezkuntza zentzuan egin behar dela uste dute (osasunerako hezkuntza). Hala ere, 2012an bulego zentraletatik “laguntza zuzenak” emateko jarraibidea ezarri zen, aspaldi utzitakoa. Eskaera non egon daitekeen aztertu ondoren, bi-koizketarik ez egoteko, eta erosketara poltsaren zenbatekoa murrizte aldera, laguntza zuzen horiek haur txiki eta jaioberrien higie produktua eta elikagaietara bideratzea erabaki zen, oso produktu garestiak direlako. Aintzat hartu behar da Elikagaien Bankuak familientzako elikagaiak eskaintzen jarraitzen duela, eta Cáritasek, berriz, arropa.

Programa haur jaioberrientzako janari eta higie produktua jasotzen dituen kit bat banatzean datza. Gizarte zerbitzuetatik eta gizarte erakundeetatik bideratzen dituzte; nolahi ere, egoera aztertu egiten da eta laguntza ematea egokia den baloratzen da. Bizkaiko hainbat lekutan garatzen dituzte, ez bakarrik Bilbon, eta Bilboko Udalaren ekarpenez gain beste ekarpen osagarri batzuk ere jasotzen dituzte (EDP, Víctor Tapia fundazioa, BBVA, Foru Aldundia...).

2015ean Bizkaian 1.733 familia artatu zituzten; ia erdia Bilbon zeuden. Profila diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzeko erolda epea lortu ez duten familiaena da, edo diru-sarrerak bermatzeko errenta eten edo bertan behera utzi zaien familiaena; hala ere, iristen ez diren familiak dira.

2.1.3. Haurren pobrezia aurre egiteko neurrien segimendua

2015. urteari buruzko Bulegoaren txostenean haurtzaroen eta familietan inbertsio estrategia bultzatzeko Eusko Jaur-laritzaren iragarkia jaso zen, erakundeen arteko estrategia bat, egonkorra eta irismen handikoa, **Familia eta Haurtzaroren aldeko Herri Hitzarmen** baten bitartez, besteak beste, haurren pobrezia eta berdintasunik eza transmititzea prebenitzeko. Ekimena oso positiboki hartu zen; erakunde honek, hala ere, lanean hasteko premia azaldu zuen, eta ekimenaren garapenaren gainera interesari eutsiko ziola azaldu zuen.

Arartekoak 2016ko amaieran eskatutako informazioari **Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendari-tzak** emandako erantzunean ez da jaso haur eta nerabeen berdintasunik ezan eta egoera ekonomiko prekarioetan eragina daukan aurrerapen esanguratsuak egin direnik. Berriz ere nabarmendu da Eusko Jaur-laritzak haurtzaroen eta familien inbertitzearen aldeko itun sozial handi baten bitartez oinarriak ezarriko dituen akordio zabal bat gidatzeko interesa agertu duela. Aldaketara oinarriak, “epe labur eta ertainean ikusiko ez den” aldaketarako. Hala bada, epe la-

burrean haur kopuru aipagarri batek eskubide oinarrikoenak urratzen dizkien berdintasunik gabeko egoera batean hazten jarraitzen badu, estrategia horrek, itun horrek, ekin-tza osagarriak beharko ditu, erantzuna denbora gehiagoz luzatuko ez duten neurriak.

2.2. Hezkuntzarako eskubidea

28. artikulua

1. *Estatu kideek haurrak hezkuntzarako duen eskubidea onartzen dute (...).*

29. artikulua

1. *Estatu kideek haurraren hezkuntza honetarako bideratu behar delakoan daude:*
 - a) *Haurraren nortasuna, gaitasunak eta ahalmen fisiko eta mentala ahal den guztia garatzeko;*
 - b) *Giza-eskubideei eta oinarriko askatasunei eta Nazio Batuetako Agirian azaltzen diren printzipioei buruzko errespetua irakasteko haurrari;*
 - c) *Bere gurasoenganako, bere kultura-nortasunarengana-ko, bere hizkuntza eta baloreenganako, bizi den estatuko baloreenganako, jatorrizkoa duen estatuko baloreenganako eta bere zibilizazioa ez diren zibilizazioarengana-ko errespetua irakasteko haurrari;*
 - d) *Haurra, gizarte aske batean, elkar ulertzeko izpiritua-rekin, bakearekin, tolerantziarekin, sexuen berdintasunarekin, eta herri, talde etniko, nazional, erlijioso eta indigena jatorria duten guztiarekin adiskidetasunez eta zentzuz bizitzen prestatzeko;*
 - e) *Haurrari ingurugiro naturalarekiko errespetua irakasteko.*

2.2.1. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Azken urteetan, hezkuntza arloan Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko [abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak](#) (LOMCE) lortu duen erabateko gaitzespena gailendu da; dirudienez, gaitzespen hori bukarazi nahi da.

Estatu mailan, Diputatuen Kongresuko Hezkuntza Batzordean 2016ko abenduaren 1ean hartutako erabakiak azpibatzerde bat sortzea xedatu du, Hezkuntzarako Estatu mailako Itun Sozial eta Politiko handia prestatzeko. Horren adibide edo froga gisa, berriki [abenduaren 9ko 5/2016 Lege Errege Dekretua](#) argitaratu da, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren ezarpen egutegia luzatzeko premiazko neurri buruzkoa; neurri horien artean jaso da, besteak beste, orain arte horren polemikoak izan diren ebaluazioak ezartzeko epea luzatzea.

Bestalde, EAE mailan, izendatu berri den gobernu hezkuntza bereziki aintzat hartzen duen gobernu akordio baten emaitza da. Akordio horretan, aukera berdintasuna sustatzeko eta elkarbizitza demokratiko, solidario eta arduratsua eraikitzeko hezkuntza ezinbesteko elementutzat jo da.

Akordio horretan jasotako konpromisoen artean hezkuntza eragile guztien artean hezkuntza arloko itun bat lortzea ere ageri da; Hezkuntzako Euskal Lege berria eratzea izango da prozesu horren amaieran. Erakunde honen iritziz, itun horretan “[Heziberri 2020](#)” Planaren inguruan azken urteetan garatu diren proiektuen jarraitutasuna aztertu beharko litzateke, eta horien testuinguruan entzun diren iritzi kritikoak ere aintzat hartu beharko lirateke.

Hain zuzen ere, proiektuetako bat aurten eman da ezagutzera, [EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Plana](#). Aurkezpenean jaso denez, EAEko hezkuntza sistemak eta beste hezkuntza sistema batzuetan frogatutako esperientziak posible egiten dute hezkuntza bikaintasunerantz jotzeko lan ildo eraginkorrenei buruzko datu eta ondorioak izatea, berriz berdintasuna galdu gabe.

Hala ere, duela gutxi [PISA 2015 txostenaren](#) ebaluazioen emaitzak jakin dira. Emaitzek agerian utzi dute euskal ikasleek atzera egin dutela azterketako hiru ataletan (zientziak, irakurmena eta matematikak). Oso kezagarria izan behar da, hezkuntza arloko hainbat ahots nabarmenek ohartarazi duten moduan; Arartekoak bat egin nahi du aipatutako ahots horiekin. Erakunde gisa, sailburuak Euskadiko Eskola Kontseiluari eta Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeari eskatu dien azterketako datuak lehenbailehen jakitea espero da, proban lortutako puntuazioaren behar-rakada azaltzeko arrazoiak aztertu eta egoera bideratzeko proposamenak egin ahal izateko.

Beste analisi-puntu bat Save the Childrenek bere azterlan honetan erabilitakoa da: “[Necesita mejorar. Por un sistema educativo que no deje a nadie atrás](#)”. Erakunde horrek nabarmendu du neska edo mutil bat eskola-porrotatuz izateko arriskuan jartzen duten arrazoiak bat baino gehiago direla, eta konplexuak, baina oraindik ere arrazoi sozioekonomikoak eta bazterketarekin lotutakoak direla nagusi: ikaslerik txiroenak atzean geratzeko probabilitatea gainontzekoena baino hiru aldiz handiagoa da. Horregatik, bere txostenean bederatzi printzipio identifikatu ditu, gomendioekin batera, maila desberdinetan ekintza politikoak gauzatzeko. Ekintza horiek burutu beharko lirateke, baldin eta sistema ekitatibo bat lortu nahi bada, non jatorrizko desberdintasunek ez duten eraginik izango neska-mutilen emaitzetan.

Atal honetako azken gaitzat, Arartekoak nahitaez hauxe aipatu behar du: berriki, 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana aurkeztu da, eta ikasleak onartzeari lotuta erakunde honek xedatu dituen hainbat proposamen jaso dira bertan. Plan horrek aldizka berrikusi eta jarraipena egiteko konpromisoa jaso du; gure iritziz, arreta berezia eskaini behar zaio horri, nahikoa ez dela aldarrikatu duten iritzi kritikoak bideratzeko baliagarria izan daitekeen neurrian.

2.2.2. Kexatzeko arrazoiak

2016an kexa egiteko arrazoiak ez dira aurreko urteetako oso bestelakoak. Errazago irakurtzeko, multzo hauetan bil-

du dira: ikasleak onartzea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, lanbide heziketa, eskola jantokia, bekak eta bizikidetzak.

2.2.2.a) *Ikasleak onartzea*

Aurreko urteetako txostenetan adierazienez, Arartekoak konponbidea aurkitu nahi zion urtero errepikatzen den egoera bati: erroldako datuen gehiegizko edo iruzurrezko erabilera, familiaren bizilekua gertu egoteari buruzko irizpidea ezartzean datu horiei ematen zaien puntuazioa kontuan hartuta. Hortaz, ofiziosko espediente bat hasi zuen 2015ean arrazoi horregatik, eta, nolana ere, ohiko lankidetzak-harremana izan zuen Hezkuntza Sailarekin, hezkuntza-sistamarako hobekuntzak bilatzen. 2016an, lehenbizikoz, aldaketak egin dira ikasleak onartzeko prozesuan, erroldako datuei gehiegizko garrantzia ez emateko, bereziki Gasteiz hiriarren kasuan ondorio nabarmenak eragin baititu. Hezkuntza administrazioak berak emandako informazioaren arabera, guztira bi urteko 270 ikasleren kasuak eta hiru urteko 80 ikasleren kasuak berrikusi dira; azkenean, guztira 70 kasutan iruzurra izan dela baieztatu da. Arartekoak kasu honetan hezkuntza arloko arduradunek izan duten inplikazio berezia nabarmendu besterik ezin du egin; bidenabar, bide beretik jarraitzeko animatu nahi ditu.

Gai horri dagokio, hain zuzen, txosten orokorreko II.2 kapituluaren nabarmendu dugun kexetako bat. Beraz, hemen jaso dugu.

2016-2017 ikasturtean ikasleak onartzeko prozesuan hezkuntza arduradunek lehen aldiz ohartarazpen bat baliatu dute; ohartarazpen horren arabera, alde aurretik salaketa bat eta ondoren erakunde eskumendunak emandako ziurtagiri ofiziala izanik, errolda ziurtagiria faltsua dela frogatzen bada (dela dokumentua faltsua delako, dela bertan jasotako datuak aldatu egin direlako), orduan hezkuntza administrazioak, eskatzaileari entzunaldia eskaini ondoren, barmoko atal horretako puntuak murriztu ditzake. Erakunde honetan aurkeztu diren hainbat kexaren arrazoia, hain justu ere, horixe izan da.

Arartekoak ulertu duenez, errolda datuak gehiegi erabiltzeari dagokionez azken urteetan askotan plazaratutako gomendioak onartu badira ere, horrek ez du eragotzi aurreikuspen horiek aplikatuz hartutako neurriak berrikusteari ekitea, eta halaxe egin dugu, eta hainbat erabaki desberdinekin ebazpenak eman ditugu.

Kasuetako batean, adibidez, kexa aurkeztu zuen familiak eskaerak aurkezteko epea ireki zenean (ikasleak onartzeko prozesua abiatuz) errolda agiri bat baino ez zuen aurkeztu, eta bertan interesduna alabetako batekin etxebizitza batean erroldatuta zegoela ageri zen; ondoren jakinarazi zuten, gertuko senide batekin sinatutako logela bat alokatzeko kontratu bati esker zeuden etxebizitza hartan. Etxebizitza hura oso gertu zegoen lehen aukera gisa eskatutako ikastetxetik, eta horri esker gehieneko puntuazioa eman zitzaizen familiaren etxebizitzaren gertutasunaren barmoari buruzko atalean. Orduan, familia unitateko gaine-

rako kideen bizilekuari buruzko balizko erreferentziarik ez zuten egin, eta soilik ondoren jakin zen, [Gasteizko Udalaren](#) kolaborazioari esker, familiaren bizilekua egiaztatze aldera salatutako kasuetan ziurtagiriak aztertu eta egiaztatzeko Onarpena Bermatzeko Lurralde Batzordeak hartutako erabakiaren ondoren.

Udaletik emandako informazioak frogatu zuen familiaren lehenengo etxebizitza saldu ondoren, aita eta familiaren beste bi alabak beste etxebizitza batean erroldatuta egon zirela, eta ikasleak onartzeko prozesuan parte hartu zuen alaba ere, onarpen prozesuan amaitu eta gero, bigarren etxebizitza horretan inskribatu zela.

Horrenbestez, erakunde honek ulertu zuenez, informazio berri horrek aurkeztutako ziurtagiriari printzipioz zor zaien ohiko egoitza eta bizilekuaren presuntzioa modu arrazoituan zalantzan jartzeko bide ematen zuen; bidenabar, hezkuntza arduradunek hartutako erabakia 2016-2017 ikasturteko ikasleak onartzeko prozesua kudeatze aldera onartutako jarraibideetan jasotako ikuskatze eta fiskalizazio ahalmenak baliatzearen ondorio izan zela uste dugu.

Aztertutako beste kasu batzuetan, ostera, ez da horrelakorik gertatu. Adibide gisa ikus daiteke [Arartekoaren 2016ko urriaren 3ko Ebazpena](#), horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio 2016-2017 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan egindako eskaerari emandako tratamendua berrikus dezala, zehazki: etxebizitza eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoiteagatik hasiera batean esleitu zitzaizkion puntuak kentzeko erabakia; azkenean, Hezkuntza Saileko arduradunek onartu egin dute.

Hezkuntza administrazioa onarpen prozesu horietan aplikatzen diren irizpideak berraztertu beharraz ere jabetu da, gurasoetako bat zentroko ikasle ohia izatearen gaineko irizpidea zalantzan jartzen zuten kexa puntualen espedienteak izapidetxearen ondorioz. Horixe gertatzen da Lasarte-Oriako guraso elkarte batek egindako kexan (jarraian azalduko dugu).

2014ko apirilean, [Burunzpe](#) Guraso Elkarte arduradunek elkarte honetara jo zuten, eta Lasarte-Orian kokatutako haur eta lehen hezkuntzako bi ikastetxe publikoen artean ikasle etorkinen banaketari dagokionez desoreka zegoela kexa bat aurkeztu zuten.

Udalari horretan haur eta lehen mailako hezkuntza eskaintza Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko bi ikastetxe publikoetan dago: P. Garaikoetxea-Landaberri HLHI eta Sasoeta-Zumaburu HLHI zentroetan, alegia. [Burunzpe](#) elkarte kideen seme-alabak azken zentro horretako ikasleak dira, eta ikasle etorkinen indize edo proportzio handiagoa dago ikastetxe horretan; aipatutako guraso elkartearen kideen aburuz, egoera horrek zenbait ondorio kaltegarri dakartza bai hezkuntzari dagokionez, bai gizarteari dagokionez.

Kexa aurkezterakoan, elkarte ordezkariek erakunde honi adierazi zioten bere ikuspuntuaren arabera desoreka eragiten ari zen faktoreetako bat ikasleak onartzeko

Garaikoetxea-Landaberi HLHI zentroa erabiltzen ari zen baremazio irizpideetako bat zen, hain zuzen ere, seme-alabak ikastetxe horretan eskolatu nahi zituzten familieta-ko gurasoak zentro horretako ikasle ohi izatea. [Burunzpe](#) elkartearen arabera, P. Garaikoetxea-Landaberi HLHI ikastetxeak irizpide hori aplikatzeak ondorio baztertzai-lead eragiten ditu. Nolanahi ere, ordezkariak planteatzen dutenez, beste era bateko neurriak ere hartu behar dira, tartean eskola mapa orekatzea, ikastetxeei beharrezko baliabideak ematea, ratioak gainditzeko aukera modu orekatuan erabiltzeko ahalegina egitea edota ikastetxeak bateratzeko prozesua aztertzea.

Arartekoak kexa hau izapidetzen bukatu du [2016ko otsailaren 25eko Ebazpena](#) emanez, bertan esku hartzeak iraun zuen hilabeteetan zehar egindako kudeaketa guztiak azaldu dira, eta testu horren irakurketara jotzen dugu. Hala ere, ebazpen horretan jasotako ondorioetako batzuk jarraian azaltzea komenigarritzat jo dugu.

Erakunde honen iritziz, gurasoak ikasle ohiak izatea irizpide gisa erabil daiteke ikasleak onartzeko prozesuetan, ez dago horretarako eragozpenik, betiere zentroen ordezkari-za organo gorenek hala adosten badute eta hezkuntza administrazioa eskolako giro ona bermatze aldera faktore garrantzitsuen *“familiak zentroko parte direla sentitzea”* dioen Erkidegoko Ikastetxeen Kontseiluko Parte hartze Batzordearen argudioarekin bat baldin badator.

Hala ere, gure ikuspuntuaren arabera, ikasle etorkinak Lasarte-Oriako haur eta lehen hezkuntzako bi ikastetxe publikoen artean modu orekatuan banatzea lortzea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren helburu ukaezinetako bat izan beharko litzateke.

Onartu behar da Sailak dagoeneko zenbait plangintza neurri hartu dituela; neurriok eraginkorrak izatea espero dugu, eta une honetan existitzen den desoreka epe ertainean konpontzeko lagungarriak izatea. Hain zuzen ere, Sailak bigarren hezkuntzako ikastetxeak gradualki fusionatzea erabaki du; horrek, zalantza izpirik gabe, haur eta lehen hezkuntza mailako eskolatzeko eskaera aldatzea ekarriko du.

Baina, nolanahi ere, eta Sailak ikasleak ikastetxe horien artean modu desorekatuan banatuta daudela onartzen duen bitartean, ezin dio uko egin [martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan](#) berariaz adierazitako balizko ekimenak egoki erabiltzeari. Hain zuzen ere, berariazko laguntza behar duten ikasleentzako plazak gorde (14. artikulua) eta ikasgela bakoitzeko ikasleen gehieneko kopurua gehienez % 10 areagotzeari (20. artikulua) buruz ari gara.

Azken horri dagokionez, garrantzitsua da, halaber, Sailak aukera hori gaizki ez erabiltzea, eta benetan dagokion helburuetarako erabiltzea, hau da, berandu iritsitako ikasleak hartzeko. Horren haritik, askok ohartarazi dute igoera hori baliatzeko aukera modu desegokian baimentzen ari dela ohiko matrikula dela eta (*“ratio gaineko”* matrikulazioa); horrenbestez, geroago, ez da bideragarria izango berandu iritsitako ikasle gehiago hartzea.

Horri guztiari, jakina denez, gainerako jarduera eta helburu estrategikoak ongi betetzea ere gehitu behar zaio; orain arte [Ikasle etorkinentzako hezkuntza arretarako programa, eskola eredu inklusibo eta kulturartekoaren barruan \(2012-2015\)](#) dokumentuan jasotakoei jarraipena emango zaie

Bukatu baino lehen, kontuan izan behar da askotan, ikasleak onartzeko irizpideak zalantzan jartzen direnean edo irizpide horietakoren bat gehiegi erabiltzen ari dela salatzen denean, horren atzean benetan dauden auziak askoz sakonagoak direla. Hala gertatu da, adibidez, ikasle etorkinen banaketaren auzian; aurten gai horrek kezka nabarmena eragin du Gasteizen, eta hiriko zenbait ikastetxetan sortzen ari ziren ghettoen egoera bideratzeko irizpideak finkatze aldera erakundeen arteko mahai bat sortu da. Gauza bera gertatzen da hezkuntza programazio edo plangintzako zenbait erabaki zalantzan jartzen direnean. Besteak beste, Miribilla (Bilbo) bezalako hezkuntza eremuei edo Eibar bezalako udalerritari dagozkionak aipatu behar dira.

2.2.2.b) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak

Era berean, Hezkuntza Saileko arduradunen lankidetzari esker, oro har azkar erantzun ahal izan zaie hezkuntza-premia bereziak dituzten neska-mutil eta nerabeen familiek egindako kexei. Oro har, adibide gisa [Euskadiko Dislexia Elkartearen](#) (DISLEBI) izenean aurkeztutakoa aipa daiteke; Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzak ondo hartu zuen. Kexa horretan, kexagileak kezkatuta agertu ziren hezkuntza administrazioak ez zuelako erantzunik eman dislexia daukaten ikasleen hezkuntza beharrezko erantzun hobea emateko balizko ekarpen gisa planteatutako hainbat ekimenen aurrean, [Euskadiko Logopeden Elkargoaren](#) parte hartzearekin prestatutako *“Eficacia de las intervenciones para el tratamiento de la dislexia: una revisión”* txostena egin ondoren, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei arreta emateko mahai teknikoan.

Jarrera berezi horri esker, Gasteizko Gorbeialde HBI zentrorra doazen ikasleen eskolatzeko baldintzen inguruan jasotako kexak laster bideratu ahal izatea espero dugu; EAEko hezkuntza bereziko zentro publiko bakarra da Gorbeialde HBI, eta erakunde honek ez du baztertu ofiziozko jarduketara hastea, ikasle horien osasun beharrezko ematen zaien erantzuna aztertzeko, horren ondorioz Legebiltzarrean legez besteko proposamena onartu baita.

Azkenik, atal honetan aipatu behar ditugu Diseinuko Goi mailako Arte Irakaskuntzara sarbidea izateko probetan egin diren aldaketak, ezgaitasuna duten ikasleei dagokienez. Aurreko konpromiso bat betez, aurtengo (2016. urtea) proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko emandako jarraibideetan eskainitako plazen %5 erreserbatu da %33 edo gehiagoko ezgaitasun maila aitortuta daukaten ikasleentzat.

2.2.2.c) Lanbide heziketa

Ez da emaitza bera lortu, ordea, ezgaitasunen bat duten ikasleek erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloeta-

ra sarbidea izate aldera erakunde honek egindako iradokizunari dagokionez: zabal dezatela aurreko eskolatzeko fasean erabateko hezkuntza normalizazioa lortzeko laguntza eta baliabideak behar izan dituzten ikasleei ezarritako erreserba. Erakunde honen iritziz, hezkuntza arduradunak ez dira bat etorri proposatu zitzaizen iradokizunarekin. Horregatik, gure asmoa gai hau errepikatzea da.

Lanbide heziketako ikasketekin jarraituz, aurkeztutako kekek agerian utzi dute horrelako ikasketak egiteko nahia gero eta handiagoa dela, eta ez zaio beti erantzuna ematen, lehentasun eta preferentzia agindu batzuk aplikatzen direlako; ikasturte honetan Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) sartutako zenbait aldaketek eragina izan dute, erdi mailako lanbide heziketako zikloetara sarbidea izateko baldintzei dagokienez. Hala ere, Arartekoaren aburuz, horrek ez du esan nahi eskaera handiena daukaten irakaskuntza zikloen eskaintza areagotzeko aukera baztertu behar denik.

Oraindik ez da behar bezala konpondu zer erantzun eman go zaien neska-mutil jakin batzuen prestakuntza-beharrei, 2015-2016 ikasturtean Oinarrizko Lanbide Heziketa ezarri ondoren eta 2014-2015 ikasturteko hasierako lanbide prestakuntzako programak eta prestakuntza iragankor bateratua emateko programak kendu ondoren.

Beste hainbatetan esan dugun bezala, Euskadin Oinarrizko Lanbide Heziketa arautzen duen [dekretuak](#) aukera ematen du, berariazko deialdi baten bidez, Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak eskaintzeko, 17 urtetik gorako pertsonentzat, bigarren mailako ikasketa egiaztaturik ez badute. Ildo beretik doa bigarren xedapen gehigarria, izan ere, hezkuntza-premia bereziak dituzten taldeentzat egokitutako lanbide prestakuntzako eskaintzak ezarri eta antolatzeko aukera ematen du. 2015eko bukaera aldera, adierazi ziguten 17 urtetik gorakoentzat ikastaro/modulu batzuk abiarazteko asmoa zegoela, I. mailako lanbide ziurtagiria lortzeko, [Lanbideak](#) finantzatuta eta Osabidezko Hezkuntzako partzuergoek emanda. Hala ere, erakunde honek dakienez, ez dira inolaz ere gauzatu dekretu horretan ezarritako aukerak.

Orobat, enplegurako prestakuntzako azpisisteman ere ez zaie behar bezala erantzuten ari gazte talde horren lanbide-prestakuntzako beharrei. Gazte horiek denak "egoera txarrean daude gizartean".

2.2.2.d) Eskola-jantokiak

Zerbitzu osagarri dagokienez, eskola jantokiarena bezala, Sailak, berriz ere, zentzuzko jarrera agertu du gaixotasun bat zeukan adingabe baten kasuan; gaixotasunaren ondorioz elikadura mota zehatz bat jarraitu behar zuen aipatutako ikasleak, eta elikadura mota horrek jantokia erabiltzea baldintzatzen zuen. Azkenik, arazoa konpondu ahal izan zen ikaslearen beharrezanetara egokitutako menu berezia prestatzeko zenbait teknika eman zirenean, baita sukaldeko langileei elikadura segurtasunaren gaineko prestakuntza eman eta gero.

2.2.2.e) Bekak eta bestelako ikasteko diru-laguntzak

Beka eta bestelako laguntzen atalean, kexarako arrazoiak aurreko urteetan agertutakoekin berdinak dira: eskaerak ebazterakoan administrazioaren jarduna atzeratzea, onartutako zenbatekoak ordaintzean atzeratzea, etab. Nabarmendu beharrekoa da, hala ere, prozeduretan Arartekoaren jarduna gero eta lehenago eskatzeko joera dagoela; horren ondorioz, erakunde honen balizko esku hartzea atzeratu behar izaten da, administrazio espedienteen izapidetzea aurreratuago dagoen arte.

2.2.2.f) Eskolako bizikidetzak

Aurten ere balizko eskola-jazarpenaz jaso ditugun kexak aipatu behar ditugu. Horietan, gero eta sarriago agertzen dira internet eta teknologia berriak. Gai horrek hedabideen arreta izan du 2016an barrena, eta, horren ondorioz, ez da beti lasai eta egoki jorratu. Aitzitik, azpimarratzekoak dira ganorazko zenbait ekimen, adibidez, [Save the Childrenena](#), bere azterlan eta kanpaina honekin: "[Ni horretan ez naiz ibiliko](#)". Kanpaina horretan, berdin arteko jazarpenak biktimentzat dakartzen ondorio garrantzitsuak abiapuntu hartuta, bi gauza saihestea proposatzen du: bata, gauzak puztea, eta, bestea, berdin arteko tratatu txarrak ukatzea. Bestalde, onartzen du eskola ez dela indarkeria horren sortzailea, ezta ere hori gauzatzen den toki bakarra, baizik eta konponbidearen zati bat. Izan ere, bere proposamen eta gomendioetan islatzen denez, hezkuntza eta hezkuntza-ingurua funtsezkoak dira indarkeria mota horri aurre egiteko.

Iaz, urteko txostenaren idazketari esker, ohartarazi genuen hezkuntza arloko Ikuskaritzaren esku hartzeak, arlo honetan eta kasu askotan, garrantzi handia duela, familiekin harremana izatearen ikuspuntutik, familiek behar bezala artatu dituztela senti dezaten eta hezkuntza administrazioan konfiantza izan dezaten. Kexen aukeraketan, jarraera zuzentzeko prozedurari lotuta aurten izapidetutako kasuetako bat aipatu nahi dugu. Honako gomendio hauek ere bereziki nabarmendu nahi ditugu: hezkuntza administrazioak formalki onartu dituen arren, kasuetako bat behin betiko ebaztea gaur egun oraindik ere gehiegi luzatzen ari da: [Arartekoaren 2016ko otsailaren 26ko Ebazpena](#). Haren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio, beren-beregi eta modu arrazoituan ebatz dezan elkarbizitzari larriki eragiten dion jokabide bategati-ko neurri zuzentzailea aplikatzeko jarraitutako prozeduraren baliogabetasuna adierazteko egindako eskaeraren ingurua eta [Arartekoaren 2016ko otsailaren 24ko Ebazpena](#), honen bidez gomendatzen zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari ebazpen berariazkoa eta arrazoitua emateko kexa sustatu duen interesdunak Hezkuntza Ikuskaritzara bideratutako idatziari.

Honatz txosten orokorreko hezkuntza arloan nabarmendu dugun beste kexa bat, bizikidetzari buruzkoa:

Batxilergoko lehen mailako ikasle baten amak kexan azaldu zuenez, idatzi bat igorri zioten semearen jokabidea zuzentzeko ohiko prozedura abiarazi zutela eta hogege egunez es-

kolara joateko eskubidea bertan behera uzteko behin-behineko neurria ezarri ziotela jakinarazteko.

Kexa izapidetzen hasi ondoren, interesdunak uko egin edo bertan behera uzten zuela ez zuen onartu hezkuntza arloko administrazioak, eta, horrenbestez, erakunde honen esku hartzeko tartea bereziki estutu da. Nolanahi ere, gogoan izanik hezkuntza ikuskaritzak ikastetxeen erreferente izatea lortu nahi duela eta, aldi berean, ikasleen eta hezkuntza komunitate osoaren eskubideak bermatzeko elementu erabakigarria izatea lortu nahi duela, erakunde honen aburuz konpromiso horiek benetan gauzatuz gero ikuskaritzak bere baloraziopean jarritako kasu guztien balorazio kritikoa egin beharko luke, nahitaez. Horregatik, hasitako esku hartzea bukatu aurretik kexa aztertzerakoan sortutako hausnarketetako batzuk hezkuntza arloko arduradunei igorri nahi genizkien, erabateko kautelaz, betiere.

Horretarako, eta sarrera gisa, ikasleek betebeharrak eta eskubideei buruzko [abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak](#) bete nahi zuen helburua aipatzea garrantzitsua iruditu zitzaigun. Zioen azalpenean azaltzen denaren arabera, [Euskal Eskola Publikoaren Legeak](#) eskatzen duen moduan ikasleek arbitrariorik gabeko diziplina trataera izatea bermatzeko helburuari eutsi zion, beharrezko prozedura bermeeekin eta legezketasunaren, tipikotasunaren eta aldebiko entzundariaren printzipioekiko errespetu osoarekin; horrez gain, elkarbizitzarako eskumenak eskuratze aldera jokabidea zuzentzeko prozesua funtsezko tresna izatea lortu nahi zen, eskola curriculumaren oinarritzko eskumenen artean jasoz, betiere hezkuntza ikuspuntua izanik. Horrela, jokabidea zuzentzeko hezkuntza prozesua zigor edo administrazio izaeradun zehapen prozedura bihurtzea ekidin nahi zen, ikaslearen eta ikastetxearen artean gatazka juridiko izatea bihurtu zitekeena, eta, batez ere, edozein hezkuntza neurrik hezkuntza balioa mantentzea lortu nahi zen.

Jarraian, eta dekretu honetako agindu batzuen gaineko erreferentziak zehatzago jasoz, kexa aurkeztu zuen emakumeak planteatutako zenbait alegazio nabarmendu nahi ditugu, besteak beste, jokabidea zuzentzeko bide alternatiboei buruzkoa eta ezarritako kautelazko neurriaren eta neurri zuzentzailearen balizko gehiegizkotasunari buruzkoa.

2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea

19. artikulua

1. *Haurra gurasoen, legezko ordezkarien edo bestelako norbaiten kustuari dagoen bitartean, estatu kideek beharrezkoak diren legezko, administrazioako, gizarteko eta hezkuntzako neurri guztiak hartuko dituzte haurrak honakoak jasan ez dituzan: edozein modutako kalte edo gehiegikeria fisiko nahiz mentalak, arduragabekeria edo tratu zabarra, tratu txarrak edo esplotazioa, sexu gehiegikeriak barne.*

20. artikulua

1. *Aldi baterako edo betirako bere familiarik atera diren haurrek edo beren interesen arabera ingurune horretan egon behar ez dutenek estatuaren babes eta laguntza bereziaren eskubidea izango dute.*

2.3.1. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Bulego honen 2015eko txostenean urte horretan haurtzaroren legedian izandako aldaketa garrantzitsuen berri eman zen. 2016an, oster, ez da araudi berrikuntza nabarmenik izan ez estatu mailan, ez erkidego mailan. Salbuespen bakarra Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala martxoaren 1ean indarrean sartzeko izan zen [-abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuaren bitartez](#) araututakoa-; horri esker, adingabeekin ohiko harremana daukaten lanbideak dituztenentzat nahitaezko ziurtagiri zehatzak eman daitezke, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak eskatutakoa, ondoren [nerabeen legedia aldatu zuena](#) [uztailaren 28ko 26/2015 Legeak](#) aldatutakoa.

Hala ere, erakundeen arteko alde aurreko zenbait lan tekniko egin dira; izan ere, ezinbestekoa da, gizarte zerbitzuen arloak eskumenen banaketa zabala duelako. [Enplegu eta Gizarte Politiken Saila](#) arrisku eta babesgabetasun egoerak aztertzeko tresna -Balora- eguneratzea jaso duen dekretua izapidetzen ari da. Halaber, erakundeen arteko talde tekniko bat eratu da; hiru foru aldundietako ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako aipatutako saileko ordezkariak osatzen dute, eta bi gai lantzen ditu:

1. Alde batetik, familia harreraren araudia, erakunde honek [1/2015 Gomendio Orokorrean](#) eskatu zuena; 2015eko lege aldaketan banaketa neurri emandako presentziaren ondoren nekez saihasgarria da.
2. Beste alde batetik, foru aldundiek jarraitu beharrekotako jarduteko prozedura komun bat arautzea, erakunde autonomiko eskudunari eskatutako txostena emateko, adingabeen babesari dagokionez, adingabeak aldi baterako atzerrira joateari dagokion programa humanitarioaren haritik, gai horrek kexa bat eragin zuen, eta 2015eko txostenean landu zen. Proiektatutako araudiaren helburua txostena emateko prozedurari nolabaiteko sistematizazioa eta erregulazioa ematean datza, hiru aldundiek jarduteko homogeneotasuna izatea, eta, aldi berean, interesdunari segurtasun juridiko handiagoa ematea.

Adopzio gaitan, 2015eko legedia aldaketaren ondorioz, nazioarteko adopzioarako erakunde kolaboratzaileak egiaztatzeko eskumena erkidego mailako administrazioetik estatuko administrazio nagusiari eman zitzaion, "araz ezarritako prozedurarekin eta ezaugarriekin"; nolahi ere, aipatutakoa egiteko "alde aurretik erakunde publikoak txostena eman beharko du, egoitza daukan lurraldean, bai-

ta adingabeen jatorrizko herrialdean egingo diren bitartekaritza jardueri buruzko kontrol eta jarraipen lanak ere". Araudi garapen horretarako, [Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioak](#) proposamenak eskatu ditu; Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, bidalita daude dagoeneko.

2.3.2. Pozik ez egoteko arrazoiak

Arlo honekin lotutako **kexak** egin dituzten pertsonak azal dutako gaiak dagokienez, aurten ere, kasurik gehienetan, gurasoak **ez daude ados haurren zerbitzuek egindako balioespenekin** (horietan ondorioztatu baita beraien **seme-alabak babesik gabe daudela**), guraso-agintea etetearekin eta foru-erakundeak haur horien tutoretza bere gain hartzearekin. Guraso horien ehuneko handi batek Arartekora jotzen du, haurra edo nerabea babesik gabe dagoela eta babesteko neurria hartu behar dela ezartzen duen foru-aginduaren kontrako errekurtsua epaitegietan jarri ondoren. Horrek eragotzi egiten digu kexagileen eskaera nagusiaren gainean esku hartzea. Beste batzuetan, familiak administrazioaren erabakia jakin bezain laster jotzen dute gugana eta aholkuak eta informazioa eskatzen dizkigute, neurri hori azkenean bete ez dadin. Egia esan, gurasoen desadostasun-arrazoi nagusia dela eta –azken batean, beraien seme-alaben beharrei modu egokian erantzuteko dituzten arazoak balioestea- esku-hartzeko aukera mugatuak ditugu. Alde batetik, erakunde honek ez duela balorazio-irizirik ematen gai teknikoaren gainean, adibidez, gurasoen gaitasunaz edo babesgabatasun egoeraz; eta, bestetik, kasu dezentetan administrazioaren erabakia bera epailearen balorazioaren zain egoten delako. Hala ere, eskaera horrekin batera, gai batzuk ere heltzen zaizkigu (balioztatze-prozesua, balioztatzeaz arduratzen diren pertsonak emandako arreta eta tratua, komunikazioa eta informazioa), eta horietan esku hartu dugu, eragindako administrazioari informazioa eskatuz eta beren jokamolde egokiaren arabera aztertuz.

Erakunde honek ofizios hasitako jarduketara bat den arren, eskaera partikularretatik datorrelako, hemen Bizkaiko [Umeen Zerbitzuari](#) egindako kontsulta jaso nahi dugu, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eten / bertan behera uztearen ondorioz Lanbideak adingabeak zerbitzura igorriko baliu zerbitzuak nola jokatu lukeen jakiteko; txosten honen 2.1.2 atalean gaia zehatzago landu da.

Kexen bigarren multzo batean, aurten prozesuko une desberdinetan bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuek egindako **esku-hartzearekin ados agertu ez diren** familiak ageri dira: planteatutako esku-hartzearekin edo esku-hartzearen intentsitatearekin ados ez daudenak, proposatutako komunikazio araubidearekin ados ez daudenak (seme-alabak ikusteko topaketen maiztasuna, edo topaketak gainbegiratzearekin), tutoretzapeko seme-alaben zaintzarekin ados ez daudenak (egoitzako harreratik familia harrerara igarotzea), etab. Berezi aipatu behar dira banaketa testuinguru gatazkatsuetan, eta epaitegietan hartutako neurriek porrot egin ondoren, familiako epaitegiek gizarte zerbitzuetara bideratzen dituzten kasuak, tratu txar

psikologikoari dagokionez haur horiek bizi duten babesgabatasun maila aztertzeke, eta, horren ondorioz, egokiztat jotako neurriak artikulatzeko. Hortaz, erakunde honek ikusi duenez, gurasoen partetik gutxieneko kolaborazioa lortzea ez da erraza, proposatutako esku-hartze aukera guztiak baztertzeko dituzte, horrek seme edo alabarengan eragiten duen kaltea ahaztuz.

Lehenengo kexa multzoan zein bigarren multzo honetan gure esku-hartzea bukatu ahal izan dugun ia kasu guztietan ondorioztatu dugu administrazioaren jarduna ez dela okerra izan.

Emakume baten kasuan, aldiz, ez da hala gertatu; emakume hura familia harreraren zeuden mutiko eta neskatoren baten amona zen, eta foru elkargune batean bilobak ikusteko baimenduta zeukan bisita egitea debekatu zioten, profesionalen artean informazioa ez zelako ongi helarazi. Egoera larritze aldera esan behar da emakumea beste autonomia erkidego batean bizi dela, eta bisita horretarako berriaz etorri zela; gainera, artatu zuten profesionalak haien buruak identifikatzeari uko egin zioten, eta edozein erreklamazio egiteko zerbitzuko koordinatzailearen erreferentzia eman zuten. Bizkaiko Foru Aldundiak akatsa onartu zuen, eta emakume haren aurrean barkamena eskatu zuen formalki. Hala ere, zerbitzuko arduraduna identifikatzeari esker kezagileak ondoren erreklamazioa aurkeztu ahal izan bazuen ere, Arartekoak foru erakundeari jakinarazi zion komenigarria izango litzatekeela zerbitzu horretako profesionalak erabiltzaileen eskubideak ezagutzeko, identifikatzeko eskatzeko eskubidea, eta sailak identifikazioa emateko modu jakin bat ezartzea, beharrezkoa denean aplikatzeko.

Seme-alabekin bizitzea berreskuratu nahi duten gurasoen kexak eta kontsultan jasotzen jarraitzen dugu, seme-alaben babesgabatasun egoera aitortu eta bi urte baino gehiago igaro ondoren. Guraso ahala eten eta administrazioak tutoretza bereganatu zuen unetik denbora igaro arren, familia guztiek azaldu dute banaketaren mina oso presente daukatela, eta seme-alabak etxera bueltatzeko itxaropena bizirik mantentzen dutela. Hala ere, esku hartu ahal izan dugun kasuetan, ez dugu aztertu kasuan kasuko haurren zerbitzuak modu okerrean jokatu duenik.

Jasotako beste kexa batzuk **administrazio prozeduraren epigrafean multzoka daitezke**. Zenbait txosten psikosozialetara sarbidea izateko zailtasunei buruzko kexak dira, interesdunek egindako eskaeren erantzunak emateko luzatu edo erantzunik ez ematea, edo seme-alabekin harremana izateko finkatutako komunikazio araubidea aldatu izana ez jakinarazteari buruzkoa. Kasu batzuetan administrazioak berak zuzendu du bere jarduna, baina gehienetan ez dugu jardun okerrik antzeman.

laz jakinarazi genuen ofiziosko jarduketara bat bukatzeko zain geundela, [Arabako Foru Aldundiaren](#) aurrean; jarduketak **haurren zerbitzuetan artatzen dituzten haurrek eta nerabeak entzunak izateko daukaten eskubidea**, haiengan eragina daukaten gaiak buruzko iritzia emateko eskubidea nola bermatzen ari den eta kontuan nola hartzen den aztertzen zuen. Martxotik ari ginen, eta foru zerbitzua-

ri iradoki genionez, iritziak aintzat hartzeko eta entzuteko prozesua sistematizatu egin beharko luke, prozedura, protokolo edo jarraibideetan gauzatuz, eskubide hori benetan garatzeko hobekuntza neurri gisa. Indartu ahalko litzateke, amaieran hartutako erabakiaren balorazio osoan haurren eta nerabeen iritzia nola landu den azaltzeko haur eta nerabeei informazioa eman. Iradokizuna onartuta, urte amaieran betebeharrak hori jorratu zuen lantaldeak adostutako inprimakiak eta prozedura jaso zen.

Azkenik, **jatorria bilatzeari** buruzko kontsultak aipatu behar dira. Egia da aurreko urteetan horrelako kontsultei lotutako ehuneko handiena joan diren hamarkadetan haur jaioberriak lapurtu edo modu irregularrean banatzeari lotuta zeudela, “haur lapurtuak” izenez ezagutu zirenak; 2016an, berriz, kasu batean izan ezik, familia biologikoari buruzko informazioa lortzeko saiakerai buruzkoak izan dira, gehienetan maila desegokien aurrean egindakoak. Horrelako egoeretan, Arartekoaren lana eskaera zuzen orientatzea izan da.

Aipatutako “haur lapurtuen” kasuan, kexa elkarte batetik zetorren, eta **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** aurrean egindako eskaerak erantzunik ez izatearen ondoriozkoa zen. Aldundiaren jarduna aztertu ondoren Arartekoak ondorioztatu zuenez, eskatzaileari informazioa sarbidea izatea onartu edo ukatzen dion ebazpena eskaera jaso eta hilabeteko epean jakinarazteko betebeharrak dauka administrazioak, baina zenbait bilera egin zirenez, eta bilera horietan eskatzaileen eskaerak entzun zirenez, eta erantzuna ahoz eman zitzaenez, kasu honetan legearen helburuari erreparatu ahal diote, herritarrei erantzuteko betebeharrak neurri handi batean betetz. Nolanahi ere, informazio eskaerak indarrean dauden lege aurreikuspenen arabera izapidetu eta ebatzi beharra gogorarazi zen.

2.3.3. Egoitza harrera

Babesik gabeko eta babesgabatasun egoera larriei erantzuteko, foru zerbitzuek zenbait neurri artikulatu dituzte, etxean esku-hartze intentsiboko planetatik, familia nukleotik banatu arte, harrera barne, familia batean zein egoitza batean. Beste urte batez berrets daiteke modalitate horietan haurren zaintza ahalbidetzen duen egoitza baliabideen sarea etengabe eguneratzen dela, gizarte beharrezko aldakorrei, araudien xedapenei eta eskaerei erantzunez; horrek esan nahi du administrazio arduradunek giza esfortzu eta esfortzu ekonomiko handiak egiten dituztela.

2016. urtea deskribatzerakoan, babesgabatasun egoera dauden haurrak artatzeko hiru foru zerbitzuek azaldu dute egoitza baliabideen okupazio maila oso altua izan dela, ia-ia % 100ekoa; hala ere, beharrezkoa izan den guztietan egoitza plaza bat esleitu da. Okupazio maila altu horrek, alabaina, egoitza baliabideen sarea ongi kudeatzea zailtzen du; izan ere, programa guztietan plaza libreak izatea eskatzen du, haur bati plaza bat esleitzerakoan hainbat faktore hartu behar baitira kontuan: hauraren adin, sexu, bizileku eta beharrezkoen ongien moldatzen den programa, ne-

ba-arreba ugari ote diren, etab. Egoera hori azaltzen duen arrazoietako bat bakarrik dauden adingabe atzerritar asko iritsi izanari dagokio, bereziki Gipuzkoan eta Bizkaian; zenbait urtez beheranzko joera izan ondoren, tasa 2012. urteko mailara itzuli da.

Jarrera arazoak dituzten nerabeentzako programak ere gero eta gehiago eskatzen dira; horren ondorioz, programa horretara bideratutako pare bat baliabide gehiago zabaldu dira (20 plaza) Bizkaian (eta 2017. urte hasieran beste bat irekitzea aurreikusitako da), eta 9 plaza Araban, Estibalizko behin-behineko unitatean, 2015ean egin bezala. Hala, nerabe horien beharrezko erantzun dinamiko eta anitza eman zaie; erabiltzaileen artean nukleotik aldi baterako ateratzeko premia duten neska eta mutilak dira babes sistemara iritsi direnak, alde aurretik egoitza baliabideetan aratu gabe.

Arabako lurraldean duela urte gutxitik hona adingabeentzako eguneko zentroak garatu dituzte; dirudienez, kasu batzuetan emaitza onak ematen ari dira, arrisku larri edo babesgabatasun egoeran izanik familiatik banatzeko neurriak eraginkorrak ez ziren kasuetan. 2014an baliabide horietako lehenengoa zabaldu zen, eta 2017ko lehenengo hiruhilekoan hirugarrena irekitzea aurreikusitako zen, Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuan kokatuta.

Gipuzkoan, zentroetako plaza pilaketek eragindako zailtasunak konpontze aldera, plazak nabarmen handitu eta familia harrerari beste bultzada bat emateaz gain, Bertatik eta Kaletik programak abiarazi dira. Bertatik programa egoitza harreran dauden haurrak familian batzera orientatuta dago. Babes-neurriari eusten zaio, baina zaintza familiak egiten du; zentroko taldeak hezkuntzako esku-hartzea garatzen du. Kaletik programa, bestalde, 16 urtetik gorako nerabeentzat da, indarrean dagoen behin betiko babes-neurri gisa, egoitza harreran zaintza egoeran, denboran zehar ihes luzeak baldin badaude (batzuetan familiak berak estalita) eta hezkuntza taldeak proposatutako esku-hartzea onartzen ez bada, egoitza baliabidean bizitzeari esplizituki uko eginez. Ingurune irekiko metodologiatik egiten da lan, lagundu, babestu eta orientatuko duen heldu erreferente baliagarri bihurtzeko ahalegina eginez.

Eskariak gora egitea eta egoitza plazak edo horri lotutako programak areagotzeak, logikoa denez, hezitzaile kopurua areagotzea dakar, baina ondorioz, baita kasuak koordinatzeari lotutako profesionalen kopurua ere.

Egindako esfortzua sakon aztertuz, erakunde honek, nolahi ere, administrazio arduradunak animatzen ditu baliabideen okupazio mailak arretaz zaindu ditzan eta beharrezko aldakorren aurrean egokitzeko praxi onei euts diezaien, duela zenbait urtetik nabarmendu dugun moduan.

Atal honekin bukatu aurretik adierazi behar da erakunde honek bi jarraipen espediente zabalik izan zituela, babes zerbitzuek tutoretzapeko mutilek egindako bi erasoerak dagokienez. Horietako bat otsailean gertatu zen, Lezoko Uralde zentroan, eta erasoaren biktima hezitzaile bat izan zen. Bigarren eraso, kasu honetan sexuala, taberna ba-

tean gertatu zen, Inauterietan, eta neskato nerabe batzuek pairatu zuten. Bi kasuetan erakunde honek administrazio arduradunengana jo du, gertatutakoaz eta gertatutakoaren ondoren aplikatutako jarduketaz galdetzeko eta, nola ez, erasoaren biktimen, erasotzaileen eta zentroko gainetarako pertsonen egoeraz itauntzeko. Gertaeren bilakaeraren jarraipena egin da, behar bezala bideratu eta artatu direla uste izan den arte.

Ofiziozko azken jarduketa bat urrian egin zen, komunikabideetan agertutako albiste larrien ondoren, Arabako Aldundiko haurtzaroko foru zerbitzuen tutoretza edo zaintzapeko zenbait adingaberi eragiten zien prostituzio jardueri dagokionez. Gazteak Sansoheta zentroko egoitza harreraren zeuden. Fiskaltzak egindako ikerketa lanak gorabehera, erakunde honek administrazioaren jarduna kontrolatzeko eskaera igorri zen; arduradunek gertatutakoari buruzko xehetasun guztiak eman zizkieten bertaratutako profesionalei. Hala ere, eta azterketa eta balorazio sakonagoa egiteko asmoz, gertatutakoaz jakin bezain laster zuzenean inplikaturako adingabeak zein foru zerbitzuak tutoretzapeko gainerako neska-mutilak (kasu batzuetan aurrekoen kideak) babesteko hartutako neurriei buruzko informazioa eskatu zen. Txosten hau idatzi den unean espedienteak zabalik jarraitzen du.

2.3.4. Familia harrera

Babes-neurri horri dagokionez, foru zerbitzuek egindako esfortzua nabarmendu behar da, haurraren intereserako egokitzeak jo den kasu guztietan, eta aukera egon bada, neurri hori artikulatzeko egindakoa. Jarraian familia egokiak eta beharrezkoak betetzeko familia kopuru nahikoa aurkitzeko dauden zailtasunak nabarmendu behar dira, bereziki neba-arreben taldeetan, neskato eta mutiko zaharragoen kasuan, etab. Familiak erakartzeko azken prozesuan lortutako emaitzari buruz Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datua itxaropen zantzu gisa plazaratu behar dugu.

Familia harreraren arloan 2016an gertatutakoan sakonduz, jarraian herritar baten kexa ageri da, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez; Arartekoak esku hartzeko eskatu zuen, haur bat adoptatzeko egokitasun ziuertagiria lortzeko ebaluazio eskaera izapidetzea onartzeari aldundiak ezezkoa eman ziolako (eskatzaileak haur horren *kafala* dauka). Kexagileak honako hau azaldu du:

Haurraren *kafala* abandonatuta zegoen bere herrialdean eta epaitegi marokoar batek eratu zuen 2013ko ekainean. Haurra Gipuzkoan bizitzen ari zen urte bereko irailetik. 2014ko abuztuan, kexagileak Donostiako Lehen Auzialdiko 6. Epaitegian haurraren adopzioa eratzea sustatu zuen, baina ukatu zioten. Errekurtso bat jarri zuen Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren aurrean. Horrek ezetsi egin zuen kasu hori salbuespenezkoa izatea, eta gogorarazi zuen haurra adoptatu nahi izatekotan, *“la regla general es que el expediente judicial que va a dar lugar a la adopción comience con una propuesta de la entidad pública, a favor del adoptante o*

adoptantes, que dicha entidad ha declarado idóneo para el ejercicio de la patria potestad”.

Horregatik, adingabea adoptatze aldera, interesdunak Gipuzkoako Foru Aldundira jo zuen, aurretiazko proposamen bat igortzeko eskatuz, adopzio-espediente eta egokitasun-ziuertagiria hasteko. Eskaera horri erantzunez, Haurren Zerbitzuko familia-harrera eta adopzio atalak txosten bat igorri zuen; horrela, adopzio-espediente hasteko aurretiazko proposamena igortzea ukatzeko proposatu zuen eta egokitasun-ziuertagiria lortzeko balorazio-eskaera izapidetzea ez onartzeko. Interesdunari txostena helarazi zitzaion, egoki zeritzen alegazioak egin ahal izan zitzaion, eta halaxe egin zuen. Familia-harrera eta Adopzioako Batzorde Teknikoak egokitasun-ziuertagiria eskuratzeko balorazio-eskaera izapidetzeko ez onartzeko erabakia berretsi zuen, baita adopzio-espediente hasteko aurretiazko proposamenaren igorpena ukatzeko erabakia ere.

Arartekoaren iritziz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura ez zen legez kontrakoa izan, jarraian, interesgarriak direla-koan, labor azalduko ditugun gogoetak oinarritzat hartuta.

1. *Kafala* mundu islamikoaren berezko erakunde bat da; horren bidez, *kafilak* (*kafalaren* titularra) adingabearen (*makful*) zaintza, hezkuntza eta babesa nahita bere kargu hartzeko konpromisoa hartzen du, *“aita batek bere semearengatik egingo lukeen bezalaxe”* (Marokoko 15-01 Legea, abandonatutako adingabeen *kafalari* buruzkoa).

Musulmanak bakarrik izan daitezke *kafilak*; izan ere, horiek haurra Koranaren egian hezteko betebeharrak hartzen dute bere gain.

Sistema juridiko islamikoak inspiratzen dituen eta araudi desberdinen orientazio den printzipio bat odol-loturak zaintzea da. Horrela bada, modu naturalean baztertzen da adopzioa. Hori dela-eta, sistema juridiko musulman gehienetan adopzioa debekatuta dago. Marokoko kasu zehatzean, Familia Marokoraren Kodearen 149.1 artikulua hauxe adierazten du: *Adopzioak ez dauka balio juridikorik eta ez ditu seme-alabatasun legitimoaren ondorioak izango.*

Aurreko paragrafoetan adierazitako elementuen bidez, azaltzen da Marokon *kafala*-neurriak eratzen dituzten Espainiako herritarrei, prozedura hau hasi aurretik, Islamera aldatzeko eskatu behar zaiela, bi *adulen* (notarioak) eta bi lekukoaren aurrean egindako ekitaldi batean (*kafala* soilik era daiteke pertsona musulmanen alde). Horrez gain, Marokon helbide bat ezartzeko eskatuko zaie eta ostatu-ziuertagiri baten bidez justifikatzeko.

Azkenik, komeni da adieraztea *kafala* haurrak babesteko neurritzat hartzen duela Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak (20. artikulua, 3. atala), eta, ildo beretik, Espainiako araubide juridikoak Kode Zibilaren 173. eta 173 bis artikuluetan jasotako familia-harrera iraunkorren parekotzat jotzen duela. Adopzioak ez bezala, ez du seme-alabatasun eta ondorengotza loturarik sortzen, ezta izen-abizenen aldaketarik ere.

2. Marokon abandonatutako haur baten *kafala* eskatzen duten pertsonak badakite zein den *kafalaren* izaera eta zeintzuk diren horren baldintzak. Izan ere, horren berri ematen zaie bai foru aldundietan, bai Babeseko Erakunde Publikoetan ere. Hain zuzen ere, Gipuzkoan, pertsona horiek “Marokoko Erresuman *Kafala* eskatzen duten pertsonen aitortpena” sinatzen dute; horretan, hauxe jasotzen da, besteak beste:

- *Que han sido informados por la Diputación Foral de Gipuzkoa por escrito de que la legislación de Marruecos no contempla la adopción y la kafala es una medida de protección infantil en la que concurren las siguientes particularidades:*
 - *NO produce los efectos de una adopción, en el sentido de que no crea ningún vínculo de filiación, ni sucesorios, ni de cambio de apellidos, con respecto a el/la niño/a.*
 - *Se equipara al acogimiento familiar regulado en el Art. 173 del Código Civil.*
 - *Se tienen que convertir al Islam, dado que la kafala sólo puede constituirse a favor de las personas musulmanas.*
 - *Queda sujeta al seguimiento de las autoridades consulares de Marruecos en España.*
 - *Es revocable en cualquier momento y hasta la mayoría de edad del niño/niña por el Juez que la ha constituido, según establece la legislación de Marruecos.*

Gainera, *kafala* esleitzea agindu zuen Rabateko 1. Auzialdiko Auzitegiko Familia Epaitegiaren epaiak hauxe ezartzen du, berariaz, 3. puntuan: “*la kafala no puede en ninguna forma transformarse para que sea una adopción, siendo ésta última contraria al orden público marroquí y a la ley islámica*”.

3. Lehenengo gogoetan adierazitakoa gorabehera, batzuetan, *kafala* eratu zenean Espainiako nazionalitatea zuten pertsona “hartzailleak” (*kafil*) edo egoitzagatik geroago eskuratu zutenak hartutako haurra (*makfoul*) Espainian adoptatzen saiatu dira. Hala ere, aukera hori haurren legeria nazionalaren aurka doa, ez Espainiako legeriaren aurka. Izan ere, Espainiako legeriak adopzioa ahalbidetzen zuen haurrak ohiko egoitza Espainian izatekotan adopzioa eratzera edo Espainiara eramango bazen bertan ohiko egoitza ezartze aldera (Nazioarteko Adopzioaren inguruko [abenduaren 28ko 54/2007 Legearen](#) 18. artikulua).

Hala eta guztiz ere, Marokoko agintariek ez zuten praktika hori onetsi; izan ere, uste zuten Marokon abandonatutako haurren *kafala* eratzeko prozesuen barruan onartutako betebeharrak ez zirela betetzen ari. Egitate horiek ikusita, Marokoko Erresumako Gobernuak 2012ko irailan erabaki zuen Espainian *kafala*-espediente berrien izapidetzea etetea; hala, jakinarazi zuen Marokon bizi ziren pertsonen aldeko *kafalak* baino ez zituela onartuko (Marokoko Erresumako 2012ko iraileko Justizia eta As-

katasun Ministerioaren 40. S/2 Zirkularra). Horrez gain, adierazi zuen ebatzteke zeuden Espainiako herritarren aldeko prozedurak ez zirela ebatziko Maroko-Espainia alde biko esparru juridiko bat adostu arte, etorkizunean *kafala* Marokoko araudia errespetatzeko berme guztiekin eratu ahal izateko.

2013ko ekainaren 11n, Espainiako Justizia Ministerioak adierazi zuen konpromisoa hartzen zuela kafalak adopzio ez bihurtzeko. Horrez gain, hitzeman zuen haur horien segimendua bermatuko zuela Espainian, horretarako dagozkion lege-aldaketak ezarriz. Adierazitako aldaketa hori Haurrak eta Nerabeak babesteko sistema aldatzeko [uztailaren 28ko 26/2015 Legean](#) gauzatu zen; izan ere, horrek, hirugarren artikuluan, abenduaren 28ko 54/2007 Legearen aldaketa xedatzen du. Zehazki, artikulua horren 20. zenbakiak xedatzen du 19. artikuluari 4. atala gehitzea; atal hori honela idatzita egongo da: *4.- En el caso de menores cuya ley nacional prohíba o no contemple la adopción se denegará la constitución de la adopción, excepto cuando el menor se encuentre en situación de desamparo y tutelado por la Entidad Pública.*

4. Gertakariak jazo zireneko denborei buruzko zenbait gai ebatzi ondoren, garrantzitsuak baitziren lege-xedapen bat ala bestea indarrean zegoen erabakitzeko, erakunde hau bat dator foru zerbitzuak bidalitako arrazoibideekin, adopzio-espedienterako aurretiazko proposamena egitea ukatu eta balorazio-eskaeraren biderapena ez onartzeko orduan. Honatx arrazoibide horiek:

4.1. [Kode Zibilaren](#) 176.2 artikulua hauxe ezartzen du: “*Adopzio-espedientea hasteko, beharrezkoa izango da alde aurretik herri-erakundeak proposamena egitea, adopzio-hartzailearen edo adopzio-hartzaileen mesederako, baldin eta erakunde horrek adierazi badu adopzio-hartzaile horiek guraso-ahala egikaritzeko egokiak direla. Egokitasun horri buruzko adierazpena proposamenaren aurrekoa izan daiteke*”.

Egokitasun-aitortpena, erakunde honen ustez, aurretiaz egin behar da eta adopzioarako funtsezko betekizuna da; hala ere, ez da proposamenean kontuan hartu behar den elementu bakarra. Beraz, aitortpen hori ezin da proposamenean aztertutako kasuaren edo kasuengandik bereizi; izan ere, pertsona bat egokia izan daiteke egoera batzuetarako eta beste batzuetarako ez (adibidez, haur bakar bat bada edo haur bat baino gehiago badira; haurrak behar bereziak baditu, larritasun handiagokoak edo txikiagokoak; abandonatuta dagoen haurren jaioterrian guraso bakarreko familien edo familia homoparentalen adopzioa aurreikusten bada, etab.).

Egia da 2015eko legeria-aldaketa egin baino lehen, [Ministerio Fiskalaren](#) irizpidea (8/2011 [Zirkularrean](#) jasotakoa) hauxe zela: ez zen beharrezkoa erakunde publikoak aurretiazko proposamena egitea adopzioa sustatzeko, adoptatuko den haurra urtebete baino gehiagoz hartuta egon bazen kafala araubidearen pean, baina adopzio-hartzailearen edo hartzaileen

egokitasunaren berri eman behar zuen. Hala eta guztiz ere, 2015eko abuztuan 26/2015 Legea indarrean sartu zenetik, ezin dira *kafalaren menpeko* haurrak adoptatu. Hortaz, zentzu horretan daude ekimenek arau orokorra bete beharko dute; adopzioarako prozedura guztiak adopzio-proposamen integralarekin hasten dira.

- 4.2. Nazioarteko Adopzioarako abenduaren 28ko 54/2007 Legearen 19.4 artikulua, uztailaren 28ko 26/2015 Legetik ondorioztatutako aldaketaren osteko indarreko idazketan, hauxe ezartzen du: *En el caso de menores cuya ley nacional prohíba o no contemple la adopción se denegará la constitución de la adopción, excepto cuando el menor se encuentre en situación de desamparo y tutelado por la Entidad Pública*. Hala, kontuan hartu behar da Marokoko legeriak ez duela adopzioa onartzen eta adingabea ez dagoela 19.4 artikuluan salbuetsitako egoeran, hau da, erakunde publikoak ez du horren tutoretza (Marokoko agintariek dute bere tutoretza oraindik ere). Horregatik guztiatik, ez da bidezkoa adopzioa proposatzea.

2.3.5. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta berezia

Arartekoak 2016. urte honetan bakarrik dauden adingabe atzerritarrei lotuta izandako esku-hartzeen auziak garatzen hasi aurretik, azpimarratu behar da aurten ere ezinezkoa izango dela artatu, tutoretzapeko edota emantzipatutako adingabe kopuruari buruzko datu eguneratuak aurkeztea, foru aldundiari eskatutako informazioa ez delako oraindik jaso. Eskuragarri daukagun datu bakaretako bat, nolahi ere, dagoeneko aipatutako bat da: gure lurraldera iristen den adingabe kopuruak beharrezko joera hautsi du, eta 2016. urtean lurralde batzuetan 2012. urteko bolumenen parera iritsi da.

2013an erakunde honek [ekainaren 17ko Arartekoaren 5/2013 Gomendio Orokorra](#) eman zuen. “Bakarrik dauden adingabe / gazte etorkinen arretarako bermeak”. Bertan zenbait gomendio plazaratu ziren, gai hauei lotuta: 1) beharrezko kolaborazio eta koordinazioaren garrantzia, 2) esku-bideak eta bermeak betetzea eta 3) akonpainamendu sozialaren edota haurtzaroko babesteko baliabideetara irteteko bideratze egokiaren garrantzia.

2015. urte hasieran, igorri zenetik ia bi urte igaro ondoren, bertan aipatutako erakunde eragileengana jo genuen betetze mailaren, une hartako egoeraren, antzemandako aurrerapenen eta existitzen diren zailtasunen berri izateko; informazio eskaera hura ohiko epeetan bete zen. Bakarrik dauden atzerritar adingabeekin esku hartzea, hala ere, askotan aldatzen den gai bat da, oso dinamikoa delako edo araudia aldatzen delako; hala, eta gizarte oso egoera txarrean dauden adingabeengatik Arartekoaren kezka kontuan hartuz gero, 2016an jarraipen horrekin jarraitu da. Hala, hiru foru aldundien eta [Lege Medikuntzako Euskal Institutuaren](#) aurrean

ofizioz egindako jarduketa berri batean aurretik egindako lanean lortutako informazioa partekatu da, Arartekoaren balorazioa helarazi da eta informazioa eta iritzia eskatu dira berriz ere. Adingabe hauen harrera prozesuan daukan betebeharrak garrantzitsua dela medio, erakunde honek Fiskaltzara ere jo du, hiru lurralde historikoan Fiskaltzaren lanean eragiten duten zenbait gai partekatzeko. Jasotako erantzunetako elementu garrantzitsuenak hurrengo paragrafoetan jaso dira:

Horiek lantzen hasi aurretik, nolahi ere, nabarmendu behar da erakunde honek oso modu positiboan baloratzen duela euskal lurralde osoan aurkitutako adingabe edo uesteko adingabe guztiei emandako **berrehalako arreta**; arreta hori adina zehaztu arte luzatzen da (bai agiri bidez, bai fiskalaren dekretu bidez) eta, horren arabera, tutoretza bereganatu edo egoitza baliabiderantz abiatzeko prestatzeari ekiten zaio.

2.3.5.a) Beharrezko lankidetzaren eta koordinazioaren garrantzia, bereziki adingabe izatea antzeman eta zehazteko fasean

Arabaren kasuan, azaldu dutenez, bakarrik dauden atzerritar adingabeen lotutako zenbait jarduketari buruzko esparru protokoloarekin bat etorritik jokatzen da, Lehendakariak Ministerioari idazkariordetzaren [2014ko urriaren 13ko Ebazpen bidez](#) onartutakoa. Adingabea edo uesteko adingabea berrehalako harrearako zentroan sartutakoan, identifikazio eta aipamen mekanismoak martxan jartzen dira, dokumentatuta egon zein ez. Aurreko informazioa biltzen da, polizia dokumentaziotik eta familia eta gizarte identifikazio datuetatik, [Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde](#)ko Adingabeak eta Familia arloan egindako lehenengo elkarrizketa batean, betiere interprete baten laguntzarekin. Informazio hori Adingabeen Fiskaltzari eta Gobernuaren Ordezkariordezari jakinarazten zaio. Azaroan prozedura berri bat jarri zen martxan; araudi erregulatzailan eta esparru protokoloan ezarritakoa bermekin betearazteaz gain, agiritik gabeko gazteak zehazteko kudeaketak azkartzea du helburu. Ondorioak hurrengo hilabeteetan antzemango dira, eta erakunde honek tentuz egingo dio jarraipena.

Pasaporteetako jaiotza datuen egiazkotasunari dagokionez zentzuzko zantzuak ote dauden Adingabeak eta Familia Arloak aztertzen du (eta halaxe justifikatzen ditu Fiskaltzaren aurrean). Beste bi lurralde historikoetan egiten den lanetik bestelakoa da honako hau, besteetan Polizia Nazionalak egiten baitu [Bakarrik dauden Atzerriko Adingabeen Erregistroari](#) kontsulta egin ondoren eta adingabeak aurkeztutako informazioa eta dokumentazioa ikusita; Fiskaltzari jakinarazten dio, adingabea edo adinez nagusia izatea edo, hala badagokio, aurkeztutako dokumentazioa zalantzan jartzen duten arrazoiak argudiatuz. Edonola ere, esparru-protokolo lokoa segarren paragrafoko 2. puntuan jasotako zantzuak ere balioesten ditu Polizia Nazionalak lurralde horietan. Puntu honetan horrela jokatzeari buruzko hausnarketarako deia egin behar da, doktrina jurisprudenzialari erreparatuz, [Auzitegi Gorenaren Areto Zibilaren 2014ko irailaren 23ko Epaiaren](#) ondoren (1382/2013), erabakigarria izan baitzen gai horri buruzko ondorengo epaietarako, horietako ba-

tzuek berariazko eragina daukate [Adingabeen Kontseiluan](#) (2015eko uztailaren 1eko TS 5169/205 autoa eta Auzitegi Gorenaren 2015eko otsailaren 11ko 1004/2015 autoa).

Horri dagokionez, Arabako Foru Aldundiak zehaztu du adina zehazteko proba eskaerak, pasaportearen izan arren (ez beste edozein dokumentazio mota ez identifikagarria), oso kasu zehatz eta puntualetan egiten dela, hain zuzen ere, honako hauek:

- Agirian jasotako adinaren eta itxura fisikoaren artean desberdintasun argi eta deigarria egotea;
- Poliziaren agirietan jasotako datuak eta emaitzak pasaportearen jasotakoarekin erkatuta erabat kontraesankorrak direnean.

Irizpidea Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia doktrinaren jasotakoarekin bat datorrela uste da; *“proporzionaltasuneko judizioa egin behar da, eta dokumentua fidagarria ez dela pentsatzeko arrazoiak ongi aztertu behar dira; horregatik, adina zehazteko probetara jo behar da”*. Hala, hasieran aipatutako kudeaketa lanak egin ondoren, eta bertan emandako datuak haztatu eta gero, orduan eskatzen zaio Fiskaltzari esku hartzeko, probak egite aldera; nolana ere, ez badu beharrezkotzat jotzen edo justifikatuta ez badago, ez onartzea gerta daiteke.

Bizkaiko Foru Aldundiak ere gorago aipatutako esparru protokoloaren arabera jarduten du. Azaldutakoaren haritik, adingabea lokalizatzen denean, edo ondorengo egunetan, kontsulta egiten zaio Polizia Nazionalako Bakarrik dauden Atzerriko Adingabeen Erregistroari (eta erregistratu egiten da, erregistratu gabe egon bada, eta AIZ ematen zaio). Nolanahi ere, badirudi atal horretan oraindik arazoak daudela; izan ere, estatuan aurkitutako adingabe atzeritar oro idatziz eta modu fede emailan jaso behar bada ere, Bizkaia iristerakoan erregistratu gabe ageri diren adingabeak daude oraindik, nahiz eta estatuaren beste babes sistema batzuetan artatu dituztela jasota egon.

Arabian ez bezala, Polizia Nazionala, bere irizpide propioetan oinarrituz, Fiskaltzari eskatzen dio adina zehazteko probak egiteko. Hala, *“pasporteko edukia faltsua, akasdua edo iruzurrez egindakoa dela pentsatzeko zentzuzko zantzuak egotea Polizia Nazionalak zehaztu ohi du”*. Foru Aldundiak Fiskaltzari eskatuko dio adina zehazteko probak egiteko, neurritzko denbora pasa ondoren, adingabeak agiririk lortu ez duenean edo adingabeak eurak jakinarazten duenean ezin izango dituela bere identifikazio-agiriak eskuratu.

Gipuzkoan protokolo propioa daukate, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bakarrik dauden Adingabe Atzeritarren Protokoloa; 2014ko azaroan eguneratu zuten, esparru protokolo onartu berria aintzat hartuta. Eguneraketa prozesua Fiskaltzak berak gidatu zuen, eta probintziako Fiskaltzak (Atzeritartasun Atala), Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailak ([Hautzaro eta Nerabezaro Zerbitzua](#)), segurtasun kidegoak (Polizia Nazionala, Guardia Zibila, [Ertzaintza](#) eta [Donostiako Udaltzaingoa](#)), Gobernu Ordezkariordeak,

[Donostia ospitaleak](#) eta Lege Medikuntzako Euskal Institutuak ere parte hartu zuten. Aipatutako Gipuzkoako protokoloarekin bat etorritik, adina zehazteko okerreko datuak edo datu ez fidagarriak edo faltsutasun zantzuak justifikatzea segurtasun kidegoen betebeharra da. Horrela, polizia jarduleak adina zehazteko probak egiteko baimena eskuratzeko xedez Fiskaltzari bidali behar dion dokumentazioan, besteren artean, adin txikikoa edo adin nagusikoa dela zailantzan jartzeko, edo, bestela, aurkeztu den dokumentazioa zailantzan jartzeko arrazoiak azaltzeko idatzizko agiria ageri da. Aipatu protokolo markoaren seigarren atalaren 2. puntuan jaso dira atzerriko agintaritzek jaulkitako jatorrizko pasaportearen edo bidaia-dokumentuen baliagarritasuna zailantzan jartzeko orduan indar polizialek kontuan hartzen dituzten inguruabarrak.

Puntu honetan nabarmendu behar da esparru protokoloan azaldutakoarekin bat etorritik jardun bada ere, gogoratu behar dela aipatutako protokoloaren aurkako errekurtsoa aurkeztu zela, hain zuzen ere aplikatzea Auzitegi Gorenaren doktrinaren aurkakoa dela uste zelako.

Gipuzkoako protokoloan badira erakunde honek bereziki nabarmendu nahi dituen beste bi datu ere. Araban eta Bizkaian premiazko harrera zentrori eramandako gazteak hezitzaileekin batera egoten dira kudeaketa guztiak egiteko; Gipuzkoan, berriz, polizia jardulea da adingabeak lagundu eta beharrezko leku guztietara eramaten dituenak (Donostia ospitalea, Lege Medikuntzako Euskal Institutua, Fiskaltza), adina zehaztu arte. Gipuzkoako Aldundiak esan duenez, adingabeen polizia eta osasun arloko langileek lagundu izanak ez du orain arte arazorik eragin, eta adingabeen eskubideen berri emateko informazioa eta arreta nahikoa izatea bermatzen dela ulertzen da; hala ere, erakunde honen iritziz, gomendio orokorrean azaldu bezala, egokiagoa da adingabe horiei une oro hezkuntza langileek laguntzea.

Egiten diren proba erradiologikoei buruzkoa da bigarren datua. Diotenez, Lege Medikuntzako Euskal Institutuak parte hartu du protokoloa egiteko orduan. Protokoloan adierazienez, karporen proba erradiologikoa egiten da, eta 17 urte dituela adierazten badu bakarrik egiten da, gero, ortopantomografia. Informazio hori ez dator bat Lege Medikuntzako Euskal Institutuak berak emandakoarekin; 2015eko erantzunean *erradiografia ezarriak* aipatu zituen, esaterako ortopantomografia eta karporen proba erradiologikoa, eta, kasu guztietan, klabikulako erradiografia, beharrezkoa izanez gero. Protokoloan ez da argi geratzen Lege Medikuntzako Euskal Institutuak kasu guztietan esku hartzen duen, *“Fiskaltzak alde aurretik erabakitzen duenean”* jaso baita.

Prozesuaren bermeak dira, berriro ere, erakunde honen kezken iturri, karporen erradiografia bakarra (arraroa baita adin zehatza ematea, adin-tarteak adierazten baitituen) erabakigarria izan baitaiteke haurrak babesteko sistematik atgeratzeko. Gai honen aurrean Gipuzkoako Fiskaltzak erantzun zuen Lege Medikuntzako Euskal Institutuak kasu guztietan erantzuteak adina zehaztea atzeratuko lukeela; izan ere, auzitegiaren medikuntza langileek daukaten lan meta-keta dela bide, ezingo lituzkete presazko izaeradun gazteak

aztertu. Azaldu denez, protokoloan ez da eskatu auzitegiko sendagileak esku hartzea, baizik eta osasun arloko langile espezializatuak. Ulertzen dutenez, parte hartzen duten Osakidetzako langileak, kasu honetan erradiologoak, bete-behar hori egiteko kualifikatuta daude. Une honetan, zalan-tzak daudenean baino ez dute egiten Lege Medikuntzako Euskal Institutuak esku hartzeko eskaera. Berriz ere nabarmendu dutenez, epeak luzatu egingo lirateke aipatutako erakundeak esku hartzeko eskatuz gero.

Pertsona horiek aurkitzeko eta harrera emateko prozesuan inplikaturako eragile guztien arteko beharrezko lankidetzeta eta kolaborazioaren garrantziari buruzko lehenengo atal hau bukatzeko, berriz ere Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautu zituen [uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuko](#) seigarren xedapen gehigarria gogoratu behar dugu, bertan aurreikusi baitzen **bakarrik dauden adingabe atzeritarren premiazko harrerarako jardun protokolo komun bat prestatzea**. Berriz ere nabarmendu nahi dugu protokolo hori Euskal Autonomia Erkidego osorako [komuna](#) izan behar dela, zerbitzuen kokapenaren arabera lurralde historiko bakoitzeko beharrezko aldagaiak errespetatuz, baina irizpide, berme eta eskubide berberak txertatuz.

Foru zerbitzuek gai honi buruz dauzkaten iritzia askotarikoak dira. Arabak ez du adierazpenik egin; Bizkaia, berriz, bat dator Arartekoarekin hiru lurraldeetarako protokolo komuna orain garatzeko premian eta erakunde gaidiko maileri dagokionez (bakarrik dauden adingabe atzeritarren fenomenoan inplikaturakoak). Egia da ez dagoela babes sistema kudeatzen duten administrazioak lotzeko harrera protokolo komunik, 2014ko urriaren 13ko Ebazpena (esparru protokoloa) ez baita loteslea sinatzen ez bada, eta Euskadin protokoloa aurreikusi zuen seigarren xedapen gehigarria ez da gauzatu, adostasuna lortu eta esfortzu handia egin arren. Gipuzkoako lurraldearen iritziz, hiru lurralde historikoetarako protokolo komun batek ez luke inolako hobekuntzarik ekarriko; hala ere, Eusko Jaurlaritzak lan honetarako aldundiei dei egiten badie, orduan Gipuzkoako Aldundiak kolaboratu egingo luke, beste aldi batzuetan egin duen moduan.

Gipuzkoako Fiskaltzarekin izandako bileran azaldu zenez, Euskadin protokolo bateratu bat izan ahal izateko hiru fiskaltzen artean akordio bat lortzeko aukera aztertzen ari dira.

2.3.5. b) Bermeak eta eskubideak betetzea

Kapitulu honetako intereseko elementu bat Fiskaltzak igorritako adina ezartzeko dekretua aldatzeko aukerarekin lotuta dago. Adina ezartzeko dekretuaren helburua da, datu fidagarriarik ez dagoenez, beharrezko informazioa eskuratzeari adingabearen babesa erabakitzeke edo ez. Behin-behineko neurri bat da eta egoera berriengatik alda daiteke. Beraz, geroago igorritako pasaporte egotekotan, egiazkoa bada gailentzen dena, aldatuko litzateke, zailtasunik gabe. Horretarako, Fiskaltzari jakinarazi beharko litzaiok, pasaporte bat edo beste identitate-dokumentu bat dagoela jakin

dezan, jasotako datuak ezagutzeko eta aldaketa formalki eskatzeko. Eskaera hori egin dezake interesdunak berak edo nerabearen zaintza duen foru zerbitzuak, besteak beste. Erakunde honek jakin izan duenez, kasu batzuetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du eskatu fiskaltzaren dekretua aldatzeko, gaztea ukitzen duen dokumentazioan data beti aldatzen badu ere. Fiskaltzaren dekretuaren informazioa geroago dokumentazioak ziurtatutako adinera egokitzeko zalantzarik eta arazorik ez dagoenez, egokia izango litzateke aldaketa horiek eskatzea, errotik saihesteko etorkizunean egon daitezkeen arazo administratiboak.

Zaintza edo babesa fiskaltzaren dekretuan oinarrituz eteten denaren jakinarazpenari dagokionez, **Arabako** Foru Aldundiaren jarduna bat dator horren inguruan egindako gomendio orokorrarekin. Gazteari hitzordua ematen zaio Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren Adingabearen eta Familiaren arloan. Bertan, bere erreferentziako teknikariak edo Arabako Adingabearen Kontseiluaren lege-aholkulariak, gaztearen ama hizkuntzako interprete baten laguntzaz, bere adin nagusitasuna ezartzen duen fiskaltzaren dekretuaren edukia jakinarazten dio, baita horren ondorioak ere, egoitza-baliabidean ematen ari zaion arretari dagokionez. Harrera eteten duen ebazpena ematen zaio. Era berean, jakinarazten zaio, egoitza-harrera eteteko neurriaren aurkako errekurtsio bat jartzeko eskubidea duela. Hala, aurkaritzademandara jartzeko epeen inguruko beharrezko informazioa ematen zaio eta doako justizia eskatzeko **Orientazio Juridikoko Zerbitzu** bat dagoela eta hori non dagoen adierazten zaio. Jakinarazpenaren unea ezartzeko, **Gasteizko Udalen** erantzuna izan arte itxaroten da, udal-baliabideetan plazak daudela bermatuz. Izan ere, bertan emango diote harrera haurtzaroa babesteko zentrotik irteten denetik.

Bizkaian, ez dugu ikusi burututako jardunbidean idazki honetan aipatutako gomendioarekin bat ez datorren elementurik dagoenik. Izan ere, aldundiak berehalako arreta eteteko Foru Agindua ematen du (Behin-behineko zaintzari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen ostean), baita egoitza-baliabidean zaintza emateko ere. Zentroko hezitzaileek edo kasuaren koordinatzaileak formalki jakinarazten dute etenaldia eta errekurtsio bat jartzeko aukera. Nolanahi ere, Foru Agindua egin baino lehen, Haurrak Babesteko Zerbitzuak Fiskaltzaren dekretua jasotzen duenean gazteari horren edukiaren berri ematen dio, bai eta prozesuaren hurrengo urratsena ere. Erakunde honek adierazi du kezkatuta dagoela gazteari ematen zaion informazioak eta elkarrizketaren garapenak eragin handia izango dutelako bere erabakietan. Horri dagokionez, foru zerbitzuak zehaztu du ahalik eta jakinarazpenik zehatzena egiten dela eta beti aipatzen dela errekurtsio bat jartzeko aukera. Horrez gain, orientazioa ematen zaie gizarteratzea babesteko programak ezarrita dituzten erakundeei. Era berean, argi uzten da egoitza-baliabidean egon daitekeela dagokion foru agindua jaso arte. Izan ere, gazte horietako askok hori egiten dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015ean hobekuntza batzuk egin zituen; izan ere, zaintza-neurriaren etenaldia jakinarazteko alderdi horretan hobekuntza horiek egiteko proposatu zitzaion. Horrela, adingabeen babesa eta zaintza hartzeko

emandako administrazio-ebazpen guztiek beren-beregi zehazten dute xedapen-atalean neurri horiek automatikoki etengo direla arreta jasotzen duen pertsonak adin-nagusitasuna betetzen duenean. Hala ere, ordutik aurrera, gazteari ezarritako neurria eteten dela idatziz jakinarazteko izapide gehigarria egiten da. Babeseko teknikariak behar bezala dokumentatzen du izapidea.

Ez-ohiko egoerengatik egoitza-baimena emateko gomendioa egin da, adin-nagusitasuna bete bada eta babes-zerbitzu batek tutoretza, zaintza edo behin-behineko babesa izan badu, bai Araban, bai Bizkaian. Gomendio horren igorpenaren balorazioari dagokionez, azpimarratu dute **apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak** onetsitako urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudiaren 1. ataleko 198. artikulua hartu behar dela kontuan; horrek hauxe dio: *“horrek, hau da, babes-erakundeak gomendio bat egin dezake”*. Ez du adierazten beharrezkoa denik txosten deskribatzaile bat egitea, ezta gaztearen aprobetxamenduari egokitasunaren inguruko jarrera arrazoitzea ere, Arartekoak uste duen bezala. Hala eta guztiz ere, adierazi dute, kasu guztietan, txostenaren igorpenaren inguruko erabakia banaka hartzen dela, honako elementu hauek balioztatuz: gaztearen egoerak, bere bilakaera eta baliabideen aprobetxamendu-maila, bere integrazioa errazten duten gaitasunak garatzeko.

Arabaren kasuan, ulertzen da, oro har, 6 hilabete inguruko egonaldia behar dela irizpide orokor horrek aipatzen duen adingabearen bilakaera balioztatu ahal izateko. Aldeko txosten bat egiteko behar adina daturik edo datu positiborik ez duten kasuetan, ez zaio gomendiorik egiten Gobernuaren Ordezkariordeztari. Bizkaian, denbora zehatza ezartzen ez badu ere, adierazten du ezin dela “egoitza-zentroan programatutako prestakuntza-ekintza eta jardueretan behar bezala parte hartu” duen jakin harreraren egondako denbora nahikoa ez bada prestakuntza-ekintzetan eta programatutako jardueretan parte hartzeko. Edonola ere, gazteak eskatzen badu, dokumentua igortzen da, parte-hartze eta aprobetxamendu-maila adierazten ez bada ere. Gipuzkoak adierazi du kasu guztietan egiten dela horrela, salbuespenik gabe, adingabeak harrera-egoitzan egin duen denbora edozein izanik ere.

Azkenengo kontu bat honen ingurukoa da: Gobernu Ordezkariordeztak egiten ari diren interpretazioa **egoitza-baimena eskatzeko ezarritako tutoretzako 9 hilabeteen** inguruan (Espainian bizi diren atzerritarren eskubide eta askatasunei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegiaren 196.1 artikulua -apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua-). Hala, epe hori gutxieneko epe gisa ezarri dute. Arartekoak duen informazioa da Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordeztak ez dituela egoitza baimentzeko eskaerak onartzen tutoretzako 9 hilabete egiaztatzen ez badituzte. Kasu guztietan ez denez tutoretza-epe hori betetzen, adin-nagusitasunagatik tutoretza eten ostean eskatzera behartuta egoten dira. Kasu honetan, hiru hilabeteko epean eskatu behar da pasaporte igortzen denetik. Horrez gain, bizitza-baliabideak eta foru zerbitzuko txostena egiaztatu behar dira, besteak beste.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren **2015eko Memorian** (III kapituluaren 4.7.6 atala) jasotzen da interpretazio hori Estatu-ko beste leku batzuetan ere egiten ari dela. Hori dela-eta, Kordobako Gobernuaren Ordezkariordeztak kontsulta bat egin zion Barne Ministerioari (**Immigrazio eta Emigrazioen Idazkaritza**); horrek erantzun zuen gehieneko epetzat hartu behar dela.

2016ko irailean Gipuzkoako Fiskaltzarekin izandako bileran, erakunde honi jakinarazi zion kontuan hartuko zuela eta jardunbide horren inguruko informazioa eskatuko zuela.

Araban, egoitza-baimena eskatu ohi da babes-erakundeak adingabearen tutoretza daukanean eta hori dokumentatuta dagoenean. Gobernuaren Ordezkariordeztak modu positiboan erantzuten ari da eskaera horien aurrean, bederlatzi hilabete horiek baino lehen gutxi egin badira ere. Izan ere, gehienak dokumentatu gabe joaten dira eta jatorrizko herrialdean dauden senideek zailtasunak dituzte beharrezko dokumentazioa biltzeko. Hala, dokumentazio horrekin eta aurretiazko hitzorduarekin aurkeztu behar dira jatorrizko herrialdeen Enbaxada eta Erakunde Kontsularretan. Adierazi beharra dago erakunde horiek ez dutela eskatutako dokumentazioa gustatuko litzagukeen bezain azkar igortzen egoitza-baimena lortzeko prozesuarekin jarraitu ahal izateko.

Bizkaian ez da tutoretza hartu zenetik 9 hilabete igaro arte itxaroten egoitza-baimena eskatzeko; izan ere, eskaera hori adingabeak beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu eta berehala egiten da.

2.3.5. c) Gizarte-laguntzaren edota haurrak babesteko baliabideetatik irteteko desbideratze egokiaren garrantzia

Segimendua egiten ari garen gomendio orokorrean, gogoe-ta nahikotxo adierazten dira, emantzipazioan laguntzeko programen elementuei buruzkoak (behar adina baliabide ekonomikoak -“merkatuko” kostua estaltzen dutenak- oinarrizko beharrak, ostatu-beharrak eta mantenuaren estaldura bermatzeko), baita baliabide horiek jasotzeko moduari buruzkoak ere. Horrez gain, adierazten da prozesuan zehar erreferentziako laguntza egonkorra funtsezko papera duela eta garrantzitsua dela “arreta jarraitua” bermatzea, zerbitzu desberdinetako profesionalen lan partekatua desbideratze soil baten gutxieneko baldintza baino berme gehiago eskaintzeko.

Araban, babeseko foru zerbitzuak arreta ematen dien adingabe guztiek, estatukoak edo atzerrikoak izan, **irteteko banakako programa** bat dute, aurretiaz banakako hezkuntza-planean landutakoa. **Harreraren Ondoko Jarraipenaren Programa** bitarteko baliabide bat da eta gizarte-zerbitzu orokorretarako edo bizitza independenterako pasabidea errazten du; horrez gain, bizitza autonomoan gidatzen, orientatzen, laguntzen eta aholkatzen dituen hezkuntza-jarraipena egiten die. Hala eta guztiz ere, gazte guztiak ezin dira horretara sartu. Harreraren Ondoko Jarraipenaren Programatik kanpo geratzen diren gazteak Gasteizko Udaleko

udal-baliabidetara sartzen dira; baliabide horiekin koordinazioa dago, 2014an bi erakundeen artean eraturako protokoloaren arabera: Laguntzarik gabeko atzerriko adingabeen inguruko Udalaren eta Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren arteko Protokoloa. [Adingabearen eta Familiaren Arloa](#) Gizarte Kontuen eta Adineko Pertsonen Udal Sailarekin koordinatzen da, gizarte-txosten bat igorri edo zuzenean zailtasun bereziko egoeretan. Hala, bermatzen da, nolana ere, adingabeen baliabidean baja ez ematea ondorengo momentuan estaldura edo beste aukera bat eskaini gabe. Hala eta guztiz ere, [Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzura](#) sartzen dira; bertan, oro har bazterketa egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsona helduentzat aurreikusitako baliabideak eskaintzen zaizkie.

Babes-erakundeak ustezko adingabe gisa arreta eman dien kasuetan, adina ezartzeko probak egin ostean, Dekretu Fiskal batean oinarrituz adinez nagusiak direla jotzen bada, ez da beharrezkoa izango irteko banakako plan bat eratzea, ezta segimendua egitea eta babesa ematea ere. Izan ere, pertsona horiek adinez nagusiak dira. Hala eta guztiz ere, gure lurraldean geratu nahi dutela adierazteko, Udalaren eta Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren Protokoloan jasotzen den bezala, udal gizarte-zerbitzuetara ere bideratuko zaie.

Bizkaian, laguntzarik gabeko atzerriko adingabeak [Mundutik-Mundura programara](#) eta emantzipazioko Helduz programara bideratzeko protokoloak daude. Gaur egun, programa horiek berrikusten ari dira, hain zuzen ere, Hautzaro Zerbitzuan jasotako arretatik [Gizarteratzeko Zerbitzura](#) ahalik eta modu artikulatuenean igarotzen direla bermatzeko (egun sail desberdinetan daude zerbitzu horiek). Hala ere, jakina den bezala, tutoretzapean egon diren laguntzarik gabeko atzerriko adingabe guztiak ez dira aipaturako programetara sartzen. Programa horietara sartzeko irizpideren bat betetzen ez dutenentzat, plaza bat izapidetzen zaie Bilboko Udal Aterpetxean eta [Hemen programa](#) dagoela eta non dagoen jakinarazten zaie. Erakunde honek aurretik adierazi duen bezala eta aurten [Arartekoaren 2016ko apirilaren 14ko Ebazpenean](#) eta [2016ko apirilaren 19ko Ebazpenean](#) adierazi duen bezala, programa honek ematen duen arreta ez da kapitulu honetan aipaturako 5/2013 Gomendio Orokorrean proposaturako mailara heldzen.

Oinarrizko beharren estaldurari dagokionez, ez da aldatarik egon bulego honen aurreko urteetako txostenetan jasotako informazioari dagokionez. Bertan, gizarteratzeko laguntza bereziak aipatzen ziren; nolana ere, laguntza horiek gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuekin lotutako banakako arreta-planetan oinarritzen dira. Halaber, laguntzen inguruko hausnarketa egiten ari da; horren helburua da laguntzak erabiltzaileek dituzten gizarteratzeko behar anitzekin gehiago lotzea. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak azpimarratu du gazte horiek gainerako herritarrek dituzten baldintza berak dituztela, gizarte-bazterketa arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzat eskuragarri dauden egoitzako, eguneko arretako baliabideetara eta gizarte-hezkuntzako baliabideetara sartzeko. Izan ere, baliabide horietako ohiko onuradunak dira, bereziki eguneko arreta-zentroenak eta laneratzearen aurreko lantegienak.

Gipuzkoan diru-sarrerak bermatzeko laguntza bertan behera utziko da modu mailakatuan ([ekainaren 28ko 14/2016 Foru Dekretua](#)) eta hori berri txar bat da erakunde honentzat. Izan ere, erakunde honek behin baino gehiagotan adierazi du laguntza hori positiboa dela eta jardunbide egokitzat ere hartu du. Laguntza horrek ahultasun egoeran dauden eta erreferente heldurik ez daukaten gazteen talde batentzako beharrezko euskarria eman izan du (bai ekonomikoa, bai soziala, lan-plana eta hezkuntza-plana ere jasotzen baititu), hau da, babesgabe dauden haurrentzako gizarte-baliabideetatik atera diren baina bi urtetik beherako tutoretza eduki duten gazte horientzat. Nolanahi ere, emantzipazio-pisuak mantenduko dira (98 plaza Gipuzkoan sakabanaturako 18 pisutan) eta 18tik 23 urtera bitarteko gazteentzako laguntza ekonomikoak ere bai. Izan ere, ehunaka gazteek jasotzen dituzte laguntza horiek hileroko.

Emantzipazioa babesteko programei dagokionez, Arartekoak adierazi nahi du, badakiela gazte horien beharrei ematen zaien erantzuna gizarteratzeko zerbitzuetatik ematen dela neurri handi batean. Hori gorabehera, ezin dugu ahaztu horien beharrak eta profila ez direla zehazki bazterketa-egoeran dauden beste pertsona batzuen berberak. Argi dago gazte horiek gainerako heldu gazteek dituzten emantzipaziorako behar berberak dituztela (enplegua, etxebizitza, trebakuntza...), baina ez dute familiarik, gure gizartean babes eta segurtasun sare bat dena. Izan ere, familia da benetako euskarria bizitza autonomoko proiektu pertsonaletan aurrera egin ahal izateko. Hain zuzen ere, familiarik ez dutenez, horien ahultasuna nabarmen areagotzen da eta bestelako babesik izango ez balute, bazterketa-arriskuko egoera horrek bazterketa-egoera konplexuago eta larriagoetara eramango lituzke. Egiaztapen horretatik bi ondorio ateratzen dira:

- Lehenik eta behin, egiaztatu egin da pertsonen bizitza-prozesuak berme handiagoekin oinarritzeko behar garrantzitsuetako batzuk ez direla gizarte-zerbitzuen eskumen nagusia. Horrela, gazte horiek gaitasun pertsonaletan eta harremanetarako gaitasunetan arazorik ez duten pertsonak dira. Hala ere, etxebizitza bat, lanpostu bat eta gaitzen dituen prestakuntza lortzeko zailtasunak dituzte. Eginkizun horretan, beste erakunde batzuek ere hartu behar dute pertsona horien eskubideekiko konpromisoa.

Hala, zailtasun horietako bat aipatzen zen txosten honen Hezkuntzaren atalean: Oinarrizko Lanbide Prestakuntza sortzearekin, gaikuntza mugatu da [otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuan](#) adierazitako terminoetan. Horrez gain, mugapen horretan Hasierako Gaikuntza Profesionaleko Programen desagerpenak eragin du. Gabezia horren aurrean, foru zerbitzuak zenbait ekimen abiarazten ari dira:

- Araban, prestakuntza-prozesuak abiarazi dira zentroetan (alfabetatzea, eginkizun instrumentalak ikastea, etab.) eta inguruan eskaintzen diren baliabideetan (herri-kulturako zentroak eta gizarteratzeko ikastaroak).

- Bizkaian, ofizialak ez diren hizkuntza-murgiltzeko berezko ikastaroak edo lantegi okupazionalak (lorezaintza, mantentze-lanak, etab.), besteak beste. Hurrengo ikasturtean matrikulatu ahal diren kasuetan, etorkizuneko edukiak indartzeko ikasgaiak ematen dira. Era berean, diru-laguntzak eman zaizkie irabazteko asmorik ez duten erakunde batzuei, trebatzera zuzendutako jarduera batzuk egiteko, babesgabatasun egoeran dauden nerabeen laneratzeko. Neurri handi batean, nerabe horien artean daude atzerriko adingabeak.
- Gipuzkoan, harremanetan jarri ziren [Hezkuntza Sailarekin](#); sail horrek, zailtasunak ezagutzen zituelarik, lan-aukera bat proposatu zuen. Aukera hori, 2.2.2. c) puntuan adierazi den bezala, gaur egun oraindik ez da ezarri, horren arrazoiak zeintzuk diren ez dakigun arren.

Argi dago ekimen horiek ez direla nahikoa adingabe horien hezkuntzarako eskubidea bermatzeko. Hor-taz, erakunde honek Hezkuntza Sailari eta [Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari](#) -enplegurako prestakuntza azpisistemaren arduraduna- berriro ere eskatuko die behar horiei erantzuteko konponbide egonkorrak emateko.

- Bigarrenik, gizarteratzeko zerbitzuek arreta ematen diete bazterketa-arriskuan dauden pertsonak direlako. Beraz, horiei zuzendutako programek, gutxienez, dituzten behar espezifikoetara zuzendutako erantzun bat eman behar diete. Nolanahi ere, behar horiek bazterketa-egoera larrian dauden beste pertsonak dituzten behar desberdinak dira. Hain zuzen ere, gomendio orokorrean emantzipazio-programen osagai gisa aipatzen diren elementuetako batzuek espezifiko-tasun hori kontuan hartzen saiatzen dira.

Emantzipazioa eta, oro har, gizarteratzea babesteko zerbitzu eta programen inguruko azkenengo ohar bat egingo dugu. Orain arte diseinatutako Gizarte Zerbitzuen Mapa desberdinetan islatuta dagoenaren arabera, aldaketa handiak egitea aurreikusita dago, erakunde eskudunei, lurraldeko banaketari eta estaldura-mailak areagotzeki dagokienez. Beraz, hausnarketa eta antolamendu prozesuan gaude eta baliteke une egokia izatea paragrafo hauetan adierazitako hausnarketak kontuan hartzeko.

2.3.5. d) Pasaporteak itzultzea dokumentuen faltsutasunagatik salatutako prozeduretan

Aipatu dugun gomendio orokorraren segimendutik kanpo, 2015eko amaieran, erakunde honetan kexen multzo bat aurkeztu zen. Horien bidez, jakinarazi zen, dokumentuen faltsutasunagatik burututako eta delitua ez egoteagatik artxibatutako salaketa-prozeduretan, pasaporteak ez zirela itzultzen. Horrek titularrak kaltetzen zituen identifikatzeko dokumentaziorik ez zutelako.

Kontu hori dela eta, Arartekoko langile batzuek zenbait bileran izan dituzte Fiskaltzarekin eta Gobernuaren Salarekin. Bilera horietan, pasaporteak ez itzultzeak dakartzen zailtasunak jakinarazi dira eta horrela sortzen den paradoxaren berri eman da. Izan ere, pasaporte berriak entregatu ez den pasaportearen jasotako eduki bera dauka. Nolanahi ere, arazo hori Gipuzkoan soilik agertu zenez, lurralde horretako Fiskaltzarekin izandako bileran jorratu zen. Fiskaltza horrek jakinarazi zuen pasaporteak ez direla itzultzen uste osoko pieza bat direnean, hau da, pasaporteak manipulatu denaren zentzuzko seinaleak daudenean. Hala, seinale horiek formalak dira, ez materialak. Kasu honetan, arazoa ez zen hori; beraz, arraroa zen. Edonola ere, pasaporteak ez itzultzea ezartzen duen ebazpenaren aurka errekurtso bat jar daiteke Probintzia-auzitegiaren aurrean egoera hori ematen zen kasu zehatzak aztertu ondoren, egiaztatu zen une horretan ebatzita zeudela edo prozesuan zeudela egoitza judizialean. Hala eta guztiz ere, txosten hau bukatu denean, Arartekoak ez daki benetan pasaporteak titularrei itzuli zaizkien.

2.3.5. e) Informazio-tratamendua

Joan den urtean, Herriaren Defendatzaileari bideratutako jarduketa bat adierazi zen. Izan ere, jarduketa horrek [Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak](#) informazioa tratatzeko moduarekin, eta zehazki, Gipuzkoako Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako prentsa oharrekin izan du zerikusia. Ekainaren 10ean argitaratutako eta hedabideetan oihartzuna izan duen prentsa-oharrea (Diario Vasco, 2015-06-11), immigrazioak, eta zehazki, bakarrik dauden adingabe atzeritarren kolektibo ahulak gizartean duen irudiari eragiten dieten adierazpenak egin dira. Prentsa-oharrea aipatu da frogatu ez diren delituak egitea eta dei efektua egotea bezalako balorazioak sartu dira.

Arartekoaren iritzia [Herriaren Defendatzaileari](#) helarazi diogu. Izan ere, esan diogu jokabideak auzipetzea auzitegien ardura dela eta, poliziak etorkinen jardueri buruz ematen dituen informazioei dagokienez, komenigarria dela irizpide arduratsua eta zuhurra izatea, informazioa diskriminazioa eragiteko, errepikatzeko eta indartzeko tresna bihurtzea saiheste aldera.

2016an, Herriaren Defendatzailearen bulegoak erakunde honi erantzun zion; hala, jakinarazi zion jarduketa ugari burutu dituela erakunde eskudunekin hedabideek immigrazioaren inguruan egiten duten tratamenduari dagokionez. Horrez gain, azpimarratu zuen beharrezkoa dela [Konstituzioaren](#) 20. artikulua jasotzen duen informazio-askatasuna diskriminazioaren eta intolerantziaren prebentzioarekin uztartzea. Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari helarazi diot Ministerio Fiskalari dagokiola adin-nagusi edo adingabe izaera ezartzea identifikazio-dokumentaziorik ez dagoenean edo aurkeztutako dokumentazioaren inguruko zailtasunak zentzudunak daudenean. Ministerio Fiskalak hori egiten du adina ezartzeko dagokion dekretua emanez, behin espedienteko datu guztiak aztertuta; datu horien artean, besteak beste, proba oseometriko eta erradiologikoak daude. Horrez gain, adierazi du zuzendaritza nagusiari jakinarazi zaiola

kasu zehatzetako batzuen egoera (Txosten Orokorraren III.08 kapituluaren 4.1.1 puntua ikusi), oharrean jakinarazitako bestelako egoeran daudenak. Era berean, adierazi da prentsa-oharrak ziurtzat jotzen duela herritar atzeritarrek pasaporteak faltsutzen dituztela eta horien herritartasuna aipatzen du, errugabetasun-presuntzioa eta kontu horren inguruko ebazpen judiziala emateke dagoela kontuan hartu gabe. Azkenik, erakunde horri gogorarazi dio kautela bereziarekin jokatu behar dela adingabeen edo uestzko adingabeen edo atzeritarren taldea bezalako beste talde batzuen datuak ematerakoan; izan ere, pertsona edo talde horiek estigmatizatu daitezke legez kontrako jarduerekin lotzean eta pertsona horien inguruko estereotipoak eta aurreiritziak sortzea edo sustatzea saihestu behar da.

Erakunde honen jarduketa eta, horrenbestez, Herriaren Defendatzailearena eragin zuen egoerari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduketa positiboa izan dela azpimarratu behar da, uneoro mantendu zuelako adingabeei emandako arreta. Izan ere, errugabetasun-presuntzioa dela-eta, zigortuak izan arte, adingabeak ziren ondorio guttiarako. Horrez gain, prozedura penalean agertzen saiatu zen baina ukatu zioten, pertsona horiek helduak zirela jo zelako.

2.3.6. Genero-indarkeria jasan dezaketen haurrak eta nerabeak

Adierazi dugun bezala, 2015eko uztailera legegintza-aldaketaren ondorioz, behingoz lortu da genero-indarkeria jasan dezaketen haurrak indarkeria horren zuzeneko biktimizat hartzea. Biktima estatutua ematean, bermatu ahalko da, batetik, neurri zibilak eta penalak hartzen direla, prozedurako beste edozein subjektu bezala. Bestalde, biktimizat hartzeak esan nahi luke baloratu egingo litzatekeela etxean indarkeriaren eraginpean egotea haiengan eta haien garapenean nola eragiten ari den, eta, ondorioz, haur horien sufrimenduarentzako erantzun espezifiko egokienak egituratuko liratekeela, amekin esku-hartzeak haiengan zeharka izan dezakeen eraginaz harago.

Bulegoaren joan den urteko txostenean aurreratu zen bezala, 2016ko lehenengo hilabeteetan [Emakundek](#) zuzendutako eta 2014an hasitako lana bukatu zen. Lan hori *Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearen arteko II. Akordioaren* Jarraipen Batzordearen Erakundearen arteko Talde Teknikoaren esparruan egin da. Adostutako laneko plana Segimendu Batzordeari aurkeztu zitzaion, horrek onar zezan. Esku-ragarri dago jadanik gauzatzen hasteko.

2.3.7. Sexu-abusua

Sexu-abusua, oro har, sexu-indarkeria ez da 2.3 atal honek aipatutako gizarte-zerbitzuek soilik kudeatu behar duten kontu bat. Hala eta guztiz ere, argi dago indarkeria horrek haurrak eta nerabeek babestuek izateko duten eskubi-

deen aurka egiten duela; atala iragartzen duten [Haurren Eskubideen inguruko Konbentzioaren](#) artikuluek eskubide horiek aipatzen dituzte. Umearen Eskubideen Batzordeak, hala ere, haurren kontrako sexu-abusua haurrenganako tratu txar larria dela gogorarazten du, haurrak eskubideak dituzten subjektu gisaren ikuspuntutik jorratu behar dena. Hau da, abordatze hau biktimizat hartzetik harago doa eta duintasunaren eta osotasun fisiko eta psikologikoaren errespetutik abiatzen da, eskubideen titular gisa.

Sexu-indarkeriaren barruan zenbait jokabide sartzen dira; normalean 3 taldetan bereizten dira eta horietako lehenengoa da sexu-abusua. Horren barruan sar daitezke sexu-kontaktua, baina baita kontaktu zuzenik gabeko jarduerak ere. Edozein kasutan, haurren muga pertsonal eta intimoak gainditzea suposatzen du. Pertsona batek (heldua edo beste adingabe batek) haur bati inposatutako sexu edukia duten jarrerak dira, desberdintasun edo botere asimetria testuinguru batean egindakoa, normalean engainu, indarra, gezurra edo manipulazioa erabiliz.

Urteak eman ditugu errepikatzen beharrezkoa dela haurren eta nerabeen aurkako tratu txar larri horri behar bezala aurre egitea. Hala, dirudenez, 2016an beharrezko baldintzak eman dira, gutxienez, orain arte demanda horien berri ez zuten zenbait eremutatik erantzun egokiak eskatzen hasteko. Horren adierazgarri dira honako paragrafo hauek:

Arartekoak aurtun zabalduetako ofiziozko jardunen artean, gure epaitegietan agertzen diren haurrek jasotzen duten arretari dagokiona azpimarratu beharra dago, biktima edo lekuko gisa izan, balizko sexu abusuen kasuan.

Horren markoaren barruan, erakunde honek [Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko](#) Gobernu Aretoarekin eta Fiskaltzarekin lan saioak deitu ditu, baita abokatuen kualifikatutako ordezkariekin ere, partekatutako helburu batekin: kontradikzio printzipiotik eta defentsarako bermetik sortutako prozesu eskaerak espainiar eta europar araudian agertzen diren haurrak babesteko irizpideekin bateratzea. Zentzu honetan, eta erreferentzia gisa [biktima eta lekuko diren adingabeak babesteko Estatuko Fiskaltza Orokorraren 3/2009 Zirkularra](#) hartuz, hobetzeko eremu bezala honakoak identifikatuko ditugu:

- Bulego adiskidetsuak adingabeek parte hartu behar duten diligentziak praktikatzeko.
- Ireki aurretik esku hartu duten beste sistema publiko batzuek igorritako txosten teknikoaren zigor prozeduran aintzat hartu eta jaso, eta bereziki euskal osasun sistemak eta gizarte zerbitzuak.
- Adingabeei praktikaturako frogak bete beharreko denbora, espazio eta lan dinamikaren baldintzak, nahikoa ez den instrukzio jardura baten parte bezala, aldi berean bigarren mailako biktimizazioaren prebentziorako baliagarria dena.
- Adingabeekin egin beharreko Justizia Administraziozko zerbitzuen eta langileen berriazko formazioa,

eboluzio garapenari eta prozesuaren ulermen mailari buruzkoa.

- Hasieratik haurrei eman beharreko arreta terapeutikoa.

Fiskaltzak berak lehen aldiz ohartarazi du Internet eta teknologia berrien bitartez adingabeek pairatutako jazarpen sexuala dela-eta gero eta kezkatuago dagoela.

Hezkuntzaren arloan egondako azkenengo kasuak eta kezka hau direla-eta, protokolo hau ezarri egin da: *Hezkuntza-arloko Protokoloa, adingabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoetarako eta Hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzaren eta koordinaziorako.*

Sexu-abusuaren gaia zenbait elkarteek –AVAIM, Save the Children, Gure Sarea– antolatutako jardunaldi, ikastaro eta seminarioetan jorratu da. Horietan guztietan, argi geratu da beharrezkoa dela horren inguruan gehiago jakitea; lehenago eta hobeto hautematea; sakontasun handiagoz ulertzea; erantzun egokiak eratztea; konektaturik lan egitea eta osotasun-ikuspegiarekin. Erakunde honek uste du arazoa hauteman ostean, aurrerapausoak eman behar direla, goian adierazi den bezala, haurren eta nerabeen eskubideak ardatz gisa hartuta.

2.3.8. Txosten berezia:

Udal gizarte zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Egungo egoera eta hobetzeko proposamenak

Txostenaren atal honek aipatutako egoera gehienak foru eskumeneko zerbitzu eta programen bidez kudeatzen dira haur eta nerabe horien babesgabetasun-maila dela-eta. Hala ere, ezin da ahaztu udal gizarte zerbitzuek funtsezko paper bat dutela babesgabetasun-egoeran dauden haurrei eta nerabeei emandako arretan (hala badagokio, babesgabetasun-egoeran daudenak). 2016ko amaieran, erakunde honek udal gizarte zerbitzuen inguruko txosten monografiko bat aurkeztu zuen. Bertan, zenbait hausnarketa eta gomendio jasotzen dira, gizarte zerbitzuen sistemaren funtzionamendu integratua hobetzeko eta zorroan aurreikusitako zenbait zerbitzu eta prestazio hobetzeko ere bai. Txostena zehaztasun handiagoz aurkezten da txosten orokorraren IV. kapituluan, baina babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden haur eta nerabeentzako arretaren ikuspuntutik, honako gomendioak (txostenaren ondorioekin harreman estua dutenak) nabarmendu behar dira:

- Gizarte-hezkuntzako esku-hartze eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzuari bultzada berri bat ematea, bere jarduna haurrak babesteko araudi guztian aurreikusitako eskumen eta gurasoen arduren jardun egokiarekin lotutakoen ezberdinak diren haurren eta nerabeengan babesgabetasun egoera sortzen di-

tuzten arazoei zabaltzeko: jazarpena edo bizikidetzaren arazoak (eskola eremuan eta horrez gain), berdinaren arteko biolentzia eta harreman afektibo eta sexualetan, arrisku-kontsumoak, etab.

- Lehen eta bigarren mailako arretaren arteko koordinazioa hobetzea, lankidetzako protokoloak edo erabakiak eratztea eta desadostasunak ebazteko mekanismo eraginkor bat ezarria.
- Gizarte zerbitzuen sistemaren eta hezkuntza-sistemaren arteko lankidetzaren sakontzea, lankidetzaren kultura bat garatuz. Kultura horren helburua izango da arazo sozialak hautematea, dagokion kasuetan gizarte zerbitzuetara bideratzea eta bi sistemaren arteko lankidetzaren sustatzea.
- Profesional eskudun nahikoek osatutako diziplina anitzeko ekipoak eratztea eta horien eginkizunak garatu ahal izateko baldintza egokiak sortzea.
- Esku-hartzeko eredu komunak garatzea, profesionalen prestakuntza sustatuz eta koordinazio horizontaleko egiturak ezarria. Horiek lehen mailako gizarte zerbitzuentzako babesa, lankidetzaren, hausnarketa eta informazioa erraztuko dituzte.
- Esku-hartzearen erkidego-ereduari eta arretaren jarraitutasun-printzipioari edukia ematea.
- Pertsonen parte-hartzea sustatzea banakako edo familiarako esku-hartze prozesuetan.
- Prebentzio-jarduketak areagotzea.
- Legean aurreikusitako araudi-garapenean aurrerapausoak ematea (zorroaren zerbitzuak eta prestazioak arautzen dituzten arauak) eta zorroa behar bezala eguneratuta mantentzea, pertsonen behar aldakorretara egokituz.
- Udal-aurrekontuetan beharrezko baliabide ekonomikoak ematen direla bermatzea, herritarrei udal eskumenekoak diren gizarte zerbitzu guztiak emateko –kaltatezko maila egokietan–.

Diru-sarrerak bermatzeko sistemarekiko koordinazioa, txosten berezian ere aipatzen dena, 2016an Lanbideri zuzendutako [iradokizunean](#) jorratu da; iradokizun hori labor-labor aipatzen da txosten honen 2.1 atalean.

2.4. Familia babeslea izateko eskubidea

18. artikulua

1. *Bi gurasoek dituzte betebeharrak haurra hazi eta hezterako garaian, eta estatu kideek indar guztiak jarriko dituzte printzipio horren onespenera bermatzeko. Gurasoei edo, hala dagokionean, legezko ordezkariari dago-*

kie haurra hazi eta garatzearen erantzukizuna. Estatuaren ardura garrantzitsuena haurraren interesa izango da.

2. *Hitzarmen honetan jasotako eskubideak bermatu eta sustatzeko, estatu kideek laguntza egokia emango die gurasoei eta legezko ordezkariari, haurra hazteko bete-beharrean behar bezala joka dezaten; halaber, haurrak zaintzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuen sorrera bultzatuko dute.*

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezten sustatzen du, familia-eredu askotarikoen garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatesiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeko.

2.4.1. Araudi-eta gizarte-testuingurua

2015 urte oparoa izan zen Estatuan eta Euskadiko Autonomi Erkidegoan familien babesean zuzenean eragiten duten lege, arau eta beste tresna batzuen ezarpenari dagokionez (horri dagokionez, Arartekoaren 2015eko urteko txostenaren epigrafe bera kontsulta daiteke). Aitzitik, 2016. urtean, ez da berrikuntza nabarmenik egon horri dagokionez.

Hala eta guztiz ere, aipagarria da lehendakariak 2016ko martxoan egindako iragarpena; hala, Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Haurtzaroko Estrategia deritzona iragarri zuen. Horren helburua da haurren pobretasuna saihestea eta mutil eta nesken aukerak berdintzea eta, batez ere, ziurgabetasun ekonomikoak seme-alabak edukitzea edo familia-proiektuak hastea gomendatzen ez duenaren pertzepzio soziala leheneratu nahi da. Horretarako, herrialdearen familia eta haurtzarokoaren aldeko itun bat egiteko proposatzen da, hasiera batean 2020ra arte urtean 50 milioi euro inbertituz. Horrez gain, gizarte-politika horietarako inbertsioa handitu nahi da aurrekontuaren egoerak hori ahalbidetzen duenean. Iragarritako estrategia ibilbide-orri bat da inplikaturako eragile publiko eta pribatu guztiekin (erakundeak, alderdi politikoak, gizarte-eragileak eta hirugarren sektorea) eztabaidatzeko eta gaia jorrazteko. Estrategia horretan, proposamenen dekalogo bat jaso da eta horren helburua da esparru orokor egokia sortzea pertsonak bizitzaren etapa guztietan garatzeko. Neurri horietako asko ez dira laguntza edo diru-laguntzen definizioan sartzen; izan ere, horien helburua da baldintza egokiak sortzea familien zerbitzu-beharrek eta demandak asetzeko. Horrela, seme-alabak dituzten familientzat gutxieneko diru-sarrerak bermatu nahi dira; ekipamendu eta zerbitzu soziokulturaletarako sarbidea; gazteen emantzipazioa bultzatzea; denboraren antolaketa egokiagoa sustatzea familientzako eta adiskidetzarako; haurrei arreta emateko “kalitatezko” zerbitzu “eskuragarrietarako” sarbidea erraztea; gurasotasun positibo eta familia-bitartekaritzako programak ezartzea; familia-topaguneko puntuen sarea indartzea eta gizarte-hezkuntzako esku-hartze programak indartzea.

Urtearen amaieran, [Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak](#) jakinarazi digu estrategia hori Eusko Jaurlaritzaren sailei

aurkezteko barne-lana hasia dela, sailen arteko adostasuna lortzeko asmoz, erakunde arteko ezein urrats egin baino lehen. Gorago aipatutako estrategiaren oinarritzko lerroek orientatu beharko dute, edonola ere, Familiei Laguntzeko IV. Plana. Plan hori zehazten hasi beharko litzateke Familiei [Laguntzeko erakunde arteko III. Planaren](#) ebaluazioa bukatutakoan –aurreratuta dago–.

2.4.2. Kexetan pozik ez egoteko azaldu diren arrazoiak

Seme-alabengatiko laguntzei buruzko euskal legeriaren babespean eskatu diren laguntzen ukapena dela-eta, kexak jasotzen jarraitu dugu 2016an ere. Horietan guztietan, arazo formalak azaldu dira; txosten orokorreko III. atalaren 2.4 puntuan (familiei buruzkoan) aipatzen da horren adibide bat, [Arartekoaren 2016ko apirilaren 20ko Ebazpena](#) eragin zuena. Aurreko txostenetan jada, kasuistikaren eta erakunde honek gai horren gainean egindako balorazio orokorraren gaineko azalpena eman dugu, interesdunei eman beharreko informazioan hobekuntzak proposatuz, Eusko Jaurlaritzako [Zuzenean](#) zerbitzuaren aurrean prozedura irekitzeki hasita.

Puntu horretan, aurreko urteetan egin dugun moduan, seme-alabak jaiotzeagatiko laguntzen emakida automatizatzeko egokitasuna berretsi behar dugu, eskaera-izapide baten mende egon beharrik gabe, gero eta konplexuagoa baita izapide hori interesdunentzat, eta, zalantzarik gabe, laguntza horiek jasotzetik baztertzen baititu, praktikan, laguntza horien onuradun izan daitezkeen pertsona asko.

Haatik, 2016an protagonismo berezia hartu dute **familia ugariari** buruzko kexak. Horietatik hiru gai nabarmenduko ditugu, oso garrantzitsuak baitira, gure ustez:

Lehenbizikoa gai honekin lotuta dago: bikote bat hausten denean (dibortzioagatik edo banantzeagatik, izatezko bikoteen kasuan) sortzen den arazoa, eta, horren ondorioz, familia ugariaren titulua zer gurasori eman erabakitzeke zailtasuna. Kexa horietan adierazten da, horren ondorioz, zaila dela guraso bati edo besteari esleitzea familia ugariaren titulua. [Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 2.2 c\)](#) artikulua ezartzen du beharrezkoa dela bi gurasoetako bat aukeratzea familia ugariok kidearen izaera mantentzeko. Horrenbestez, beste gurasoak titulartasuna galduko luke, familia ugariatik kanpo geratuz. Gurasoen arteko adostasunik ez badago, bizikidetzaren irizpidea hartuko da kontuan, hau da, familia ugariaren titulartasuna esleitu beharko zaio judizialki zaintza duen gurasoari –aitari edo amari–. Ukitutako herritarrentzat zaila da arau hori ulertzea, batez ere, kasu batzuetan. Izan ere, kasu horietan, zaintza ofizialki bati esleitu arren, bisiten araubidea zabala da eta bi gurasoek dute erantzunkidetasuna seme-alaben heziketa eta zaintzari dagokionez. Beraz, bi gurasoetako bat familia ugariaren onuretatik baztertzen duen arau hori ez da bidezkoa. Arazo honen inguruan aurkeztutako kexen konponbidea desberdina izan daiteke. Batetik, gai horren inguruko Estatuko legeria erreformatu daiteke eta, bestetik, euskal

eremuan *ex novo* arauketa bat egitea. Horrek, Familiei Laguntzeko [abenduaren 12ko 13/2008 Legearekin](#) bat etorriz, bultzada berri bat emango lieke familiei laguntzeko neurriei, kargura dituzten seme-alaben kopuruaren arabera.

Horrez gain, estatuko araudi horrek ez ditu kontuan hartzen **benetan seme-alabekin bizitzearekin lotutako baldintza horiek, zaintza partekatuko kasuetan ematen direnak**. Familia ugarien inguruko Estatuko legeria aztertu ostean, erakunde honek gai horren inguruko iritzia eman zuen joan den urtean. Hala, azpimarratu zuen egia zela manu horrek eskatzen duela, seme-alabak gurasoetako batekin bizitzeari uzten dioten dibortzioen kasuan, bi gurasoetako bat aukeratu behar dela familia ugariaren titularen parte izateko. Hala eta guztiz ere, familia ugarien tituluen kudeaketako administrazio-jardunbidean -foru aldundien eskumenekoa dena- konponbide bat ezarri behar da, seme-alabak bi gurasoekin bizitzeari uzten dioten zaintza partekatuko kasuei erantzun bat emateko.

Zaintza partekatua nahiko berria da eta eremu honetan legezko hutsune bat dago; horrela, Eusko Jaurlaritzari helarazi genion arazo hori, Eusko Legebiltzarrak gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzko [ekainaren 30eko 7/2015 Legean](#) adierazitakoa kontuan hartuta, irizpide homogeen bat ezartzeko foru erakundeek familia ugarien inguruko Estatuko Legearen manu hori aplikatzeko. Izan ere, familia ugarien titulua kudeatzeko eskumena foru aldundiek dute. Irizpide homogeen hori ezarri da; horrela, familia ugariaren titulua urtero txandakatuko dute guraso bien artean, zaintza partekatua den kasuetan. Formula horrek kudeaketa-arazo ugari sorrarazi dizkie foru erakundeei eta, horregatik, herritar askok kexak aurkeztu dituzte Arartekoaren aurrean, arauketa horrekin, ez direlako zaintza partekatuaren aukera hautatu duten gurasoen legezko itxaropenak asetzen. Izan ere, zaintza partekatua aukeratzeko duten gurasoek familiei laguntzeko neurri desberdinen onurak izaten jarraitu nahi dute zaintza partekatuaren araubidea indarrean dagoen bitartean.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen bosgarren xedapen iragan-korra interpretatzeko orduan sortu da bigarren arazoa; izan ere, xedapen horrek *Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen* 6. artikulua berriaren ondorioetako batzuen **atzerageraginezko luzapena** aplikatu du, 2015eko urtarrilaren 1etik eta legea indarrean sartu arte, hau da, 2015eko uztailaren 17ra arte titulua galdu duten familia ugarietako matrikulazio- eta azterketa-hobariak lortu ahal izateko hezkuntzaren alorrean, lege hori indarrean sartzen denetik familia ugarien izaera oraindik duten gainerako familiek bezalaxe. Izan ere, familia horiek titulua mantenduko dute (eta kasu horretan, titulu horren onura guztiak) 21 urte baino gutxiagoko seme edo alaba bat edo ikasten duen 26 urte baino gutxiagoko seme edo alaba bat, neba-arreba nagusiek izaera horretatik kanpo geratzeko legezko adina beteta duten arren.

Arazoa sortzen da [Gipuzkoako Foru Aldundiak 26/2015](#) Lege horren bosgarren xedapen gehigarriaren terminoen interpretazio murriztailea egiten duelako, matrikulazio eta

azterketa onuren luzapen hori soilik 2015/2016 ikasturtera-ko aplikatzen dela jo duelako. Hala, jo du kexagilearen bi seme-alaba txikiek ezingo dutela baliatu, ikasturte horretatik aurrera, familia ugariaren kide izaera, hezkuntzaren alorrean zenbait matrikulazio eta azterketa onura izate aldera. Erakunde honen ustez, exegesiaren xede den bosgarren xedapen gehigarriaren literaltasunetik eta izaeratik ezin da ondorio hori atera. Horregatik, txosten honen amaieran Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendutako gomendio bat jaso dugu. Hala, gomendio hori 2017. Urtea hasi ostean argitaratuko da eta gainerako foru aldundiei ere jakinaraziko zaie, baita Eusko Jaurlaritzari ere, xedapen horren aplikazio uniformeaz ezartzeko Euskal lurralde osoan. Gomendio horretan, egiaztatzen da ez dela egokia jotzea onura hori soilik ikasturte batean aplikatuko dela (2015/2016), Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten duen bezala. Izan ere, Legean ez da mugaketarik ezartzen zentzu horretan, ez esplizitua, ez implizitua. Herritarren aldeko lege-arau baten interpretazio murriztaile bat da hori. Horrek, indar handiagoarekin, legegilearen nahian beren-beregi babesteko eskatuko luke eta interpretazio hori ezin da inolaz ere legezko xedapen horretan aurkitu. Hortaz, ondorioztatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako interpretazioa, kexagilearen familia onura horietatik baztertzen duena 2016/17 ikasturteetik aurrera, ez dela Zuzenbidera egokitzen eta *Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak* egindako *Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen* erreformaren izaera eta literaltasuna urratzen dituela. Hori dela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio kexagilearen bi seme-alaba txikiei aitortzeko, ikasturteekin lotutako mugarik gabe, familia ugarien inguruko legerian ezarritako hezkuntzaren arloko matrikulazio eta azterketa onurak, seme-alabek legeria horren aplikazio-eremutik kanpo geratzeko legezko adina bete arte.

Hirugarren gaia, berriz, hauxe da: Bizkaian, familia ugarietako **zerga-onurak kendu direla** ondasun higiezinaren gaineko zergan. Euskadiko Kide Ugariako Familien Elkartearen Federazioak ([Hirukide](#)) erakunde honi adierazi zion ez zegoela ados Bizkaian, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, familia ugarietako kideen aukerako hobaria kentzearekin Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren [maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua](#) indarrean sartzearen ondorioz. Gai horren inguruan egin ditugun azterketa eta esku-hartzearen ondorioz, Arartekoak **2016ko azaroaren 2ko Ebazpena** eman zuen. Horren bidez, Bizkaia Foru Aldundiko [Ogasun eta Finantza Sailari](#) iradokitzen dio seme-alabak euren kargu dituzten familien aldeko onura fiskalen aitortzearen aurrera egitea sustatzeko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan. Horrez gain, ebazpen horretan, euskal herri-administrazio guztiei gogorarazten zaie Legean beren-beregi jasotako herritarren demandari erantzun nahikoak eskaini behar dizkiotela. Batetik, neurri desberdinek aplikatzen zaizkien familiengan izan dezaketen eragin ekonomikoa aztertu behar da eta, bestetik, familiei babes egokia eman behar zaie, bereziki familia ahulenei. Hori guztia lortzeko, zalantzarik gabe, ezinbestekoa da era askotako neurri publikoetan -baita zerga arlokoetan ere- neurrien eraginpean dauden familiak seme-alabarik ote duten kontuan izateko ohitura hartzea. Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailari iradokitzen diogu hausnarketa-prozesu bat hasteko,

lurralde historiko horretan bere kargu seme-alabak dituzten familiak babesten dituzten tresna eta neurri ekonomikoan indartzean aurrera egiteko eta sakontzeko, horien bizitza-proiektuak autonomiarekin garatu ditzaten laguntzeko, kos-tuak konpentsatzeko neurriak ezarriz. Horrez gain, iradokitzen zaio, aurrerago, erabakiak hartu aurretik, aktibatu nahi dituen neurri fiskalek bere kargu seme-alabak dituzten familiengan izan ditzaketan eragina aztertzeko, zerga-erreformak barne. Izan ere, espediente honetan zalantzan jartzen dena bezalako erreformek onura fiskalak kentzen dizkiete familia horiei. Bestalde, uste dugu aurrerapausoak egin beharko lituzkeela, oro har, familientzako zerga-onurak homogeneizatzeko, seme-alabak dituzten familiak Euskal Autonomia Erkidego osoan, beren bizitokia edozein dela ere, sistema berdintsu batez babesturik egon daitezzen.

Guraso bakarreko familiek dituzten zailtasunak adierazten dituzten kexak jasotzen jarraitzen dugu; hala, zailtasunak dituzte haien familia estatusa onartua izateko eta seme-alabengatik dagozkien hobariak eskuratzeko, kontuan izanda familiako titular bakar bat seme-alaben arretaz eta hezkuntzaz arduratzeak dakarren zailtasun erantsiak. Adierazi egin den bezala, gure toki-administrazioetan familia horiek oso modu desberdinetan onartzen direla igarri dugu (berezi ki udal-kiroldegien esparruan). Izan ere, kasu batzuetan guraso bakarreko familien berezitasuna erabat onartzen eta aintzat hartzen dute, baina beste batzuetan ez dute errealitate hori inola ere ezagutzen, eta horrek kalte nabaria eragiten die mota horretako familiei. Berri positibo gisa, adierazi beharra dago, txosten hau ixtear zegoenean, Bilboko Udaleko [Gazteria eta Kirola Sailak](#) erakunde honi jakinarazi diola tarifak berrikusteko prozesuan daudela (2017rako gauzatuko direnak). Hala, jarduketa hori bat dator 2014an egindako [iradokizunarekin](#); izan ere, horren bidez, proposatu zitzaion udal kirol-instalazioetako hobaridun tarifak berrikusteko, hain zuzen ere, berrikuspen hori kide gutxiago dituzten guraso bakarreko familien sustapenaren ikuspegi integratzailetik egiteko proposatu zitzaion.

Familia homoparentalen egoera dela eta, 2016an kexaren bat jaso dugu gai honen gainean: lesbianen bikoteek zailtasunak topatzen dituzte seme edo alabaren ama ez biologikoaren aldeko seme-alabatasuna erregistratzeko orduan. Arrazoi horren harira, hainbat arazo juridiko sortzen dira, eta guztiak eragiten diote estatuan arlo honen inguruan dagoen legediaren ezarpenari, *laguntza bidezko ugalketa-teknikei buruzko [maiatzaren 26ko 14/2006 Legearen](#)* ezarpenari batez ere. Ondorioz, zailtasunak agertzen dira bi emakumek osatutako familietan jaiotako haurrak erregistratzen inskribatzeko orduan.

Legeak mugak ezartzen dizkigun arren –gure zeregin instituzionalatik kanpo geratzen baita botere judiziala kontrolatzea, bai eta Gorte Orokorrek emandako legeak aldatzeko proposatzea ere–, Ararteko erakundeak, bere eskumenera neurrian, zenbait jardueraren bidez jorratu du dagoeneko kontu hori ([Espainiako Herriaren Defendatzaileari](#) txosten bat bidali diogu, baita ere 4/2010 Gomendio Orokorra).

Hala eta guztiz ere, ezin dugu alboratu egun indarrean dauden araudiak –ama bien aldeko seme-alabatasuna onar-

tzeko xedea duenak– egun ezartzen duen erregulazioa: hain zuzen, emakume horiek ezkontuta egon behar dute eta seme-alabek laguntza bidezko ugalketa-teknikak erabiltzearen ondorioz jaiotak izan behar dute. Bi baldintza horiek biltzen ez badira, ama biologikoaren bikotekidearen aldeko seme-alabatasuna ezartzea adopzio-prozesuaren bidez baino ezin da egin, ezkontza zibilaren esparruan edo autonomia erkidegoak izateko bikoteen inguruan duen legediari jarraiki. Prozedura hori, ordea, ez zaie bikote heterosexualei ezartzen, ezkontuta egon edo izateko bikote izanda ere, automatikoki onartzen baitzaie seme-alabatasuna. Ildo honetan, aipatu behar dugu, estatuko legegilearen aukera denez, Arartekoaren erakundeak ez duela eskumenik estatutu juridiko hori, laguntza bidezko ugalketari buruzko legeak sortu duen hori, zalantzan jartzeko. Hala ere, jakin badakigu araudi horrek pertsonen arteko berdintasunaren printzipioa kaltetzen duten disfuntzioak sor ditzakeela, nekez justifika daitekeen desberdintasuna eragiten baitu bikote heterosexualek eta sexu bereko bikoteak tratatzeko moduan. Beraz, diskriminazioa sor dezaketan desberdintasunak dira. Kontu horren gaineko kexak eta kontsultak jasotzen jarraitu dugu, eta eragindako herritarrentzat konpondu ez den gaia dela adierazten digu horrek. Arrazoi horiengatik guztiengatik, erakunde honek horren berri emango dio, berriro ere, Espainiako Herriaren Defendatzaileari, eta eskura dituen bitarteko guztiak jarriko ditu egungo egoera aldatzea ahalbidetuko duten aldaketak sustatzeko.

2016an, beste kontu batek ere bereganatu du gure arreta: Gizarte Segurantzako inprimaki jakin batzuk ez daude egokituta familia homoparentalen errealitateara. Berriz ere Estatuko administrazio bati eragiten dion kontua dela aintzat hartuta, Espainiako Herriaren Defendatzaileari bidali diogu, erakunde horrek izapidetu dezan. Bada, gero jakinarazi digu, bere esku-hartzearen ostean, seme edo alaba jaiotzeagatik prestazioen eskabideetako zenbait alderdi aldatu direla; zehazki, *A gurasoa* eta *B gurasoa* jarri da, *aitaren* eta *amaren* ordez. Aitzitik, inprimakietan bertan jasotako beste erreferentzia batzuk ez dira aldatu; hala nola, *amatasunagatiko* prestazioei eta *aitatasunagatiko* prestazioei egiten zaien aipamena; izan ere, eta Herriaren Defendatzaileak adierazitakoaren arabera, [Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean](#) eta horren garapen-araudian ezartzen dena kopia-tuz jaso behar da aipatu izendapena, eta ez aipatu legea, ez horren araudia, ez daude alderdi horretan aldatuta.

2.4.3. Banantze- eta dibortzio-prozesuetan haur eta nerabeei eman behar zaien arreta berezia

Oso kezkatuta ikusten dugu, oraindik ere, jasotzen zenbait kexatan (gai eta eremu desberdinetakoak) bikote gatazkatsuen hausturak eragindako komunikazio-arazo larriak islatzen eta adierazten direla, eta horiek seme-alabengan larriki eragiten dutela. Hortaz, hainbat kexa aztertu ditugu, honako hauekin zerikusia dituztenak: administrazio-kudeaketak egiteko zailtasunak; familia-elkarguneen funtzionamendua-

ri eta bertako profesionalen erabakiei buruzko salaketak; profesional horiek eta epaitegietako lantalde psikosozialek egindako txostenak, e.a. Ondorioz, alde biei eskatu nahi diegu, beste behin, arduraz joka dezatela eta, adingabeen interesa zaintzearen, komunikazioa lortzeko ahaleginak egin ditzaten, desadostasunik egonez gero epaiaren erabakia alde batera utzi gabe.

Bai [Arartekoaren 2016ko maiatzaren 12ko Ebazpena](#) ematean, bai deribazio judizialaren ondorioz familien elkarguneetara egin diren ikuskatze-bisitetan, erakunde honek bere jardueraren gidaritzat hartu ditu inguru gatazkatsu horiek, baita ere neska edo mutil bakoitzak, erabakiak hartzeko orduan, bere eskubideak lehentasunezko gaitzat jo daitezten duen eskubidea babestea.

2.5. Osasunerako eskubidea

24. artikulua

1. *Haurren eskubidea da osasun-mailarik altuena izatea eta gaixotasunak zaintzeko eta osasuna errehabilitatzeko zerbitzuak erabiltzea. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute eta haur guztiek eskubide hori izateko eta zerbitzu horiek gatzatzeko aukera izan dezaten lan egingo dute.*

2.5.1. Araudi-eta gizarte-testuingurua

2016an, *Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko [apirilaren 7ko 1/2016 Legea](#)* onetsi zen; lege horren helburua da adikzioen diziplina anitzeko abordatze integrala egitea. Legearen prebentzio eta arretako ereduaren oinarrien artean, osasun publikoaren ikuspuntua eta politika guztietan osasuna txertatzearen paradigma nabarmendu behar dira. Horien bidez, erakundeen arteko konpromiso bat lortu nahi da, sektoreen arteko zeharkako estrategia bat sustatzen duena, osasuna eta ekitatea osasunaren arloan politika publiko eta eragile sozial guztien helburuak izatera bideratutakoa.

Haurrak eta nerabeak legearen proposamenen hartzailen nagusietako batzuk direla adierazten da. Izan ere, proposamenaren hartzailen naturalen oinarritzko parte bat dira; proposamen horrek osasuna sustatzeko eta adikzioak eta drogen menpekotasuna prebenitzeko jarduteko oinarritzko estrategia gisa definitzen du osasunerako hezkuntza. Hori, osasun publikoaren ikuspuntutik, ohitura osasuntsuak eta osasunaren kultura sustatzera zuzenduta dago, bizitza autonomo, solidario eta librea bultzatzeko modu bezala. Prebentzio-jarduketetan, familia-, erkidego- eta hezkuntza-eremuek lehentasuna dute; horregatik, koordinatu beharko dira esku hartzen duten eragile sozial guztiak inplikatzeko.

Familiaren eremuko prebentzioari dagokionez, gurasotasun positiboaren printzipioa nabarmendu behar da eta familiekin esku-hartze soziala egitearen paradigma. Horren bidez, guraso-gaitasun positiboak garatzen dituzte gurasoek edo tutoreek seme-alabekiko harremanak hobetzeko. Horrez gain, jokabidearen mugak ezartzen dituzten balioetan oinarritutako hezkuntza azpimarratu behar da. Helburua da lotura afektiboko balioak sustatzea; egituratutako inguru-neak indartzea; eskola-ikaskuntza suspertzea eta babestea eta seme-alaben balioa aitortzea, horiek euren burua eragile aktibo, eskudun eta gai gisa ikus dezaten bultzatzeko.

Erkidegoaren eremuari dagokionez, legeak nabarmentzen du pertsonarengandik hurbilen dauden inguruneek balio propulstazailera dutela. Hortaz, horien inplikazioa eta parte-hartzea bilatu behar da proposatutako esku-hartzeetan. Hezkuntzaren eremuari dagokionez, lehentasunezko balioa dauka hezkuntza-sistemak paper nagusia daukalako pertsonen eskumenen eraikuntzan, batez ere garapenaren eta paririk goiztiarrenetan. Hortaz, jotzen da beharrezkoa dela arrisku-egoeran dauden adingabeei zuzendutako neurriak hartzea, ikasleak substantzia batekiko adikzio bat edo portarazko adikzio bat garatzeak dakarren arriskuaz jabetzeko eta horiei aurre egiteko eskumenak indartzeko. Horretarako, autokontrol eta autoebaluazioko tresnak jarriko dira bere esku, uste dugulako ezagutza ezinbestekoa dela borondatea eratzeko. Beraz, ezagutza beharrezkoa bada ere, harago joan behar da, batez ere arriskuan dauden adingabeez ari garenean.

Azkenik, arrisku altuan dauden adingabe eta gazteekin lotutako prebentzioari dagokionez, gizarte-hezkuntzako esku-hartze eta programa espezifikoak nabarmentzen dira, aholkularitzakoak, babesa ematekoak eta horien egoerara egokitutako esku-hartzeak.

Gizarte-osasunaren eremuan, adierazi behar da *Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko [otsailaren 2ko 13/2016 Dekretua](#)* onetsi dela. Dekretu horren helburua da oinarritzko arauak ezartzea arreta goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartze guztiak antolatu eta koordinatzeko; esku-hartze horiek osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen eremuetatik garatzen dira. Hori guztia, eredu integral eta eraginkor bat bermatzeko, sail desberdinen jarduketak behar bezala koordinatzeko. Dekretua indarrean sartzeak esan nahi du, beste ondorio positibo batzuen artean, hiru lurralde historikoetan emango zaiela arreta 0 eta 6 urte bitarteko haurrei. Hala, arreta hori handituko da oraindik handitu ez zuen lurraldean, hau da, Araban 3 urtetik 6 urtera arte. Azkenik, ikuspuntu sozialetik garrantzitsua den araudiaren bestelako eremu batean, jarduketa publikoen orientazioa ezartzen duelako, adierazi behar da *Emakumeen Genitalen Mutilazioari dagokionez Euskadiko Osasun Sistemaren Gomitadutako Jardunen [Gidaliburua](#)* argitaratu dela.

2.5.2. Euskal osasun sistemaren inguruko kexak

Aurten ere, aurkeztutako kexa ugari zer ikusia izan dute **atzerritarrek osasun-arreta jasotzeko** dituzten zailtasunekin. Txosten honetan, aipatu ditugunak haurdun dauden emakumeek eta adingabeek osasun-arreta jasotzeko dituzten arazoetan oinarrituta daude. Hori horrela da haurtzararen inguruko legeriak azpimarratzen badu ere Espainiako herritartasuna duten haur eta nerabeek dituzten eskubide berak dituztela.

Osasun Sailak eta **Osakidetzak** Arartekoari jakinarazi diote osasun-zentroetako onarpenen, fakturazioko eta bezeroen arretarako zerbitzuen arloetan horri buruzko prestakuntza ematen ari direla etengabe. Alabaina, jasotako kexek erakusten dute aplikatu beharreko arauak aplikazioaren arduradunei helarazten ari zaizkien irizpideekin bat ez datozen interpretazioak sortzen dituztela.

Atzerritarrei laguntzearen arlo honetan, Arartekoak ofiziozko jarduera bat hasi zuen, bai baitzekien atzerritar jaioberriek zailtasunak dituztela eskubidez jaso dezaketen osasun-laguntza jasotzeko. Arazoa ez da osasun-arreta jasotzeko unean sortu, medikuak agindutako prestazio osagarriak eskuratzekoan baizik, esaterako farmazia-prestazioa.

Hori gertatzen da umea jaiotzen denetik haurren gurasoek jatorrizko herrialdetik administrazio eskudunak (GSINK edo Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, kasuaren arabera) laguntza jasotzeko eskubidearen aintzatespena izapidetzeko eskatu dien dokumentazioa lortzen duten arte igarotako denboragatik.

Egoera horrek eragina dauka bai adingabearengan, bai horren gurasoengan, **apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak**, osasun-sistema nazionalari eusteko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko urgentziatzeko neurriei buruzkoak, osasun-laguntza jasotzeko onuradun izaera aitortzen baitie. Era berean, arau horrek berak, egoera berezietan osasun-laguntza jasotzeko kasuetan, atzerritarrak ez diren adingabeen baldintza berdintsuetan beti jasotzeko eskubidea aitortzen die.

Horrenbestez, osasun-laguntza (prestazio guztiak barne) jasotzeko eskubidea zalantzan jarri ez den egoera baten aurrean gaude, baina eskatutako dokumentazioa aurkeztu arte igaro daitezkeen denborak horren eraginkortasuna baldintzatzen du luzaroan. Ondorioz, epe horretan zehar osasun-arretaren prestazio osagarriak bere osotasunean ordaindu behar dituzte.

Osasun Sailak laguntza-zentro guztiei emandako erantzuna helarazi dio Arartekoari, honako hau dioena: *“Halako kasuetan ezin da erabili “Presbide” aplikazio informatikoa, pediatrek egiten duten preskripzioa errezeta elektronikoa bidez izapidetzeko. Horren ordez Osakidetza errezeta ofiziala emango da paperean, eskuz idatzita, eta jaioberriaren gurasoetako edozeinen OTI zenbakia jarriko da bertan. Farmazia-bulegoan, besterik adierazi ezean, %40ko ekarpe-*

na aplikatuko diote, beste autonomia-erkidego batzuetako gaixoen errezetei aplikatzen dieten bezala, 65 urtetik beherrako gaixoak izanez gero (zaharragoei % 10eko ekarpena aplikatzen zaie)”.

Kontsultatu diren iturri batzuek iradoki zuten adingabe horien arretaz arduratzen diren osasun-profesional guztiak ez dutela ezagutzen paperean errezeta ematea barne hartzen duen jarduteko moduari buruzko informazio hori. Hori dela eta, Arartekoak informazio osagarria eskatu zuen, oraingo honetan Osakidetza. Eskaera horretan bertan, preskripzioak paperean egiteak adingabeen kolektibo horren historia klinikoan preskripzio horiek jasotzeko unean arazoa sortzen duen argitzeko eskatu da.

Kexetan maiz agertzen da beste gai hau ere: **bigarren iritzia** eskatzea, **familiako medikua**, **ospitalea edo mediku espezialistak alda diezazkieten** galdegitea. Kexa horien artean bat nabarmenduko dugu, adingabe bati baitagokio: bertan, ezezkoa eman zitzaion osasun mentaleko zentroa aldatzeari.

Eskaera hori hurbiltasun-arrazoiengatik egin zen (osasun-zentro berria bere bizilekuaren aurrean zegoen), eta medikua hautatzeko eskubidean oinarrituta zegoen. Eskubide hori Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen **uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuan** jasota dago. Osasun-sistema publikoak erabiltzaileei eskaintzen dien aukera da, hasiera batean esleitu zaizkien bitartekoetan aldaketak eskatu ahal izateko.

Eskaeraren funtsezko arrazoia hurbiltasunari lotua zegoen, bizilekuaren aurrean baitago beste zentroa. Ukapena honetan oinarritu zen: plangintzak ez du aztertu aldaketa eskatu deneko adimen-osasuneko zentroan haren semeari arreta ematea.

Arartekoak egindako informazio-eskaerari emandako erantzunak azaldu zuen haur eta gazteen adimen-osasuneko zentro espezializatuetan posible den arretarik onena emateko irizpideak zonakatzean ezarritakoak direla, tresna horrek artatutako pazienteen kupoak parekatzen baititu.

Arartekoaren ustez, eskatutako aldaketa ukatzeak ez zituen apartekoak ez izan arren bereizirik azter daitezkeen bi esparru desberdin. Lehenengoa plangintza-irizpideei buruzkoa da eta, beraz, osasun-administrazioak osasun-laguntzari esleitutako bitartekoak antolatzeke eskumenekin dauka zerikusia. Bigarrena hautatzeko eskubideari dagokio eta, eskubidea absolutua izan ez arren, izaera propioa dauka.

Bi esparru horiek bereizten ez badira, hautatzeko eskubidearen edukia husteko arriskua dago.

Administrazioak baliabideen plangintzarako duen eskumena justifikatzen duten arrazoiak eskuragarri dauden baliabideak antolatzeke bere ahalmeneko gaitasunaren esparruan kokatu behar dira. Baina justifikazio hori imitazioz eramaten bada geroko edozein eskaerara, erabiltzaileak hautatzeko duen eskubidearen isla izanik eskaera hori, aurretiko plan-

gintzan oinarrituta, eskatu den banakako edozein aldaketa ukatzeko xedez, eskubide horren edukia husteko arriskua sortzen da. Horrenbestez, antolakuntza aldatzen duteneko modua justifikatzen ez bada, plangintza-irizpideen alegazio soilak ezin ditzake zentro-aldaketaren eskaerak ukatu.

Eskatu den eskaera onartzearekin egungo antolakuntza kaltetuko dela egiaztatuko balitz, hautatzeko eskubidearen mugaketa justifikatua egongo litzateke. Eskubide hori baldintzatuta egongo litzateke ere, hizpide dugun kasuan bezala, ez balitz bermatuko eskatutako adimen-osasuneko zentroan beharrezkoa den haur eta gazteen berariazko arreta egun artatzen duten zentroan dauden baliabide antzekoekin gauzatuko dutenik.

Erakunde honen iritziz, ezin zaio aterik itxi hautatzeko eskubideari geroko balizko eskaeretan oinarrituta, aurkeztuko zireneko zantzurik ez bazegoen (Osakidetzak emandako erantzunean adierazi zen eskaera horri arreta aurrekaria izango litzatekeela, eta hori onartzeak ezarritako antolakuntza bat ez etortzeak ekarriko litzukeela). Ukatzeko arrazoi hori onartzen bada, eskatutako banakako aldaketak antolakuntza oinarritzen duten plangintzen ostekoak direnez beti, ordenamenduak erabiltzaileei ondoren hautatzeko ematen dien banakako eskubidearen edukia hustuko litzateke.

Arartekoak zehatz-mehatz aztertu du autismoa duen beste adingabe bati emandako **osasun-arreta**. Adingabe horrek odontologia tratamendu bat behar zuen, eta autismoa zuelako, kirofanoan anestesia behar zuen.

Osakidetzaren plangintzarekin bat etorri adingabeari esleitu zizkioten osasun-zerbitzuak bere osasun-arloari zegozkionak ziren, Gipuzkoan. Hala eta guztiz ere, odontologia-tratamendua [Haurren Hortzak Zaintzeko Programan](#) (PADI) dago, Osasun Sailak itundutakoa; hortaz, Osakidetzaren osasun-arloarekin bat ez datorren plangintza dauka. PADI-ren plangintza horren arabera, autismoagatik jaso behar zuen arreta berezia Bizkaian gauzatu behar zen, Sestaoko anbulatorioan lehenik eta, ebakuntza-gelara joan behar izanez gero, [San Juan de Dios Ospitalean](#), Santurtzin.

Hasiera batean, Sestaoko medikuak erabaki zuen adingabeak behar zuen esku-hartzeak ez zuela ebakuntza-gelaren beharrik, eta lasaigarri batekin egitea proposatu zuen. Hori ez zen posible izan, eta hiru hilerik behin bere PADI-ko odontologoarekin koordinatutako mediku-azterketak egitea adostu zuten, hortzaren eboluzioa ikuste aldera. Ondoren, odontologo horrek esku-hartzea sedazioarekin (ebakuntza-gelarik gabe) egiteko aukeraren inguruko informazioa biltzeko gomendatu zien. Izan ere, txantxarraren neurria ikusita, ezin zen gehiago itxaron. Gurasoek, aukerez informatu ostean, hitzordua eskatu zuten [Donostiako Quirón Ospitalean](#) (Osasun Sailarekin itundutako zentroa, esku-hartze horiek behar dituzten Gipuzkoako pazienteentzako dena). Gurasoek horren berri eman zioten Sestaoko zentroari, eta zentro horretan aurreikusita zeukaten hitzordua ezeztatu zuten. Quirónen esan zioten ezinezkoa zela sedazio bidezko esku-hartzea egitea, esku-hartzea luzea izango zelako eta, ondorioz, anestesia orokorra (ebakuntza-gela) beharko litzatekeelako.

Aurrekari horiekin, gurasoek baimena eskatu zuten Quirónen bere semeari esku-hartzea burutzeko. Osasun-administrazioak Gipuzkoako zentro horretan esku-hartzea egiteko baimena ukatu zuen, haiei zegokiena ez izateagatik. Hori dela eta, hitzordua eskatu zuten Sestaon; bertan adierazi zieten esku-hartzea gauzatzeko ebakuntza-gela behar izanez gero erreferentziako zentroa Santurtziko San Juan de Dios Ospitalea zela.

Administrazio-ikuspuntutik, Osasun Sailak emandako erantzuna zuzena izan zen. Alabaina, laguntza-prozesuaren eboluzioak izandako aldaketen arabera, ukatu zieten Quirónera joateko baimen-eskaera egin zuten unean adingabeak bi proposamen terapeutiko desberdin zeuzkan: bere Bizkaiko erreferentziako zentroan (laguntza hori emateko itundutakoan) ukitutako hagina ateratzea proposatu zioten, baina Quirón zentroan (Gipuzkoako pazienteentzako itundutakoan) proposatu zioten tratamendua endodontzia bat zen.

Osasun Sailari egoera modu horretan azaldu zitzaionean, osasun-administrazioak aurrekari guztiak aztertu zituen, bereziki desberdina den proposamen terapeutikoa, eta azkenik gurasoen nahia bideratu zuen, proposamen desberdinen espezifikotasuna aintzat hartuz.

Tratamendu edota ebakuntzetarako **itxaronaldietan** egoten diren zerrondak, denborak eta informazioa direla eta, horiekin zerikusia duten kexek haurrei eta nerabeei ere eragiten diete, gainontzeko herritarrei bezalaxe. Edonola ere, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txosten honetan, nabarmendu nahi dugu itxaronaldi horiek garrantzi handia dutela antzutasun arazoetan, are gehiago emakumeak adin jakin baten mugara iristear daudenean, handik aurrera gutxitu egiten baitira arrakasta izateko aukerak.

Haur eta gazteen buru-osasunari dagokionez, elikadura-portaeraren nahasmenduei buruz egindako jarduera bat aipatuko dugu aurten.

Elikadura-portaeraren nahasmenduek ukitutako pertsonen la-
guntzeko elkarteek proposatutako zenbait alderdiren gainean jarraipen bat egite aldera, Arartekoak kexa-espeditante bat ireki zuen. Horren bidez, [Osakidetzaren](#) 2014ko abenduko txosten batean jasotako ebaluazioa hartzen zen abiapuntutzat, pertsona horiek artatzeari buruzko eskaerari erantzunez.

Izapidetutako espeditantea txosten hartako bi puntutan oinarritu da: paziente larriak ospitaleratzeko unitate espezializatu bat sortzeko eskaria, eta jantoki terapeutikoen zerbitzuak osatzeko beharra.

Lehenengo puntuan, zenbait gogoeta mota dela-eta, ezinezkoa izan da unitate espezializatu hori garatzeko eraren gainean ados jartzea. Bigarren puntuan –jantoki terapeutikoak– ordea, adostasuna dago haien erabilgarritasunari dagokionez, baldin eta laguntza-eskema koherente eta koordinatuan sartuta badaude.

Arartekoak puntu horiei buruzko informazio-eskaeraren artean eta Osakidetzak emandako erantzunaren artean

igarotako denbora-tartean, lurralde historiko bakoitzeko [ACABE](#) eta Osakidetzako ordezkarien arteko bilera bat egin zen. Arartekoa ere joan zen bilera horretara. Jantoki terapeutikoen egungo egoeraz eta elikadura-portaeraren nahasmenduen berriazko arretaz hitz egin zuten, bai eta egungo gabeziei aurre egiteko aurreikusitako jarduek ere. Alderdi horiei buruzko informazio-eskaerari Osakidetzak emandako erantzuna elikadura-portaeraren nahasmenduak ukitutako pertsonen laguntzeko hiru elkarteekin egiaztatu ondoren, Arartekoak [erakunde honek 2016ko uztailearen 14an emandako ebazpena](#) helarazi du. Horren bidez, Osakidetzari gomendatzen zaio beharrezko zuzkidura jaso dezala elikadura-portaeraren nahasmenduen ukitutako pertsonak artatzeari lotutako jardueraren proposamenak aztertze aldera.

2016an jorratutako haurren eta nerabeen osasun-eskubidearekin lotutako azkenengo kontu bat izan da Arartekoak eskatuta irekitako espediente batzuetan aztertu dena; horietan, izendatzaile komun bat dago, hau da, adingabeek **alkoholdun edariak eskuratzea** kontrolatzeko udal jarduketaren inguruko informazioa eskatzea. 2.1.1 atalean adierazi den bezala, adikzioen inguruko lege berria aurkezterakoan, beste garai batean ordena publikoko kontu bat izan ahal zena, gaur egun, osasun publikoko kontu bat da.

Ofiziozko esku-hartzea zenbait udalen aurrean egin zen arren, azterketa orokorra egiteko helburua zuen. Esku-hartze hori burutu da zenbait herritarrek, intentsitate eta formatu desberdinekin, adierazi dutelako kezkatuta daudela nerabeen edari alkoholdunen kontsumoa dela-eta. Hala, adierazi dute harriztasun daudela, dirudienek, oso erraz eskuratzen dituztelako, adingabeek alkohola saltzea debekatuta egon arren.

Arartekoak bukatutzat jotzen du bere jarduketak; egiaztatu du egia esan neska eta mutil adingabeen edari alkoholdunen kontsumoa kontu konplexu bat dela. Hala, beharrezkoa da eragile guztien lankidetzak, erakunde-eragileena, eragile sozialena eta partikularrena Oraingoan, beste une batzuetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza edo Osasun Sailarekin egin izan duen bezala, oroigarri bat zuzendu die euskal udalei. Horren bidez, udalerrietan neska eta mutil adingabeek ematen zaien alkohola kontrolatzeko dituzten legezko betebeharrak gogorarazi dizkie.

Aipatu dugun legea argia da zentzu honetan; hala, tokiko erakundeek esleitzen die ikuskatzeko eginkizuna (agintaritzako agentetzat hartzen diren langileak), baita dagozkien zigorrak ezartzeko eginkizuna ere.

Hala eta guztiz ere, lege honek, izenburuak adierazten duen bezala, adikzioen arazoa diziplina anitzeko ikuspuntu integral batetik aztertzen du. Zentzu horretan, prebentzioak berebiziko garrantzia dauka (osasun publikoaren ikuspegitik), eta horretarako oinarrizko estrategia gisa, osasunerako hezkuntza ere oso garrantzitsua da. [Europar Batasunaren drogaren aurka borrokatzeko 2013-2020 Estrategia](#) jarraituz, demanda murriztera eta eskaintza kontrolatzera bideratutako neurriak, desberdinak izan arren, osagarriak izan beharko dira.

Esku-hartze publikoaren oinarrian daude, berriz ere, haurren eta nerabeen eskubideak. Zehazki, osasunean, posible den maila altuenaz gozatzeko eskubidea eta bere gaitasun integralarentzat kaltegarria izan daitekeenaz babestua izateko eskubidea. Horiekin bat etorritik, alkoholari eta adingabeek buruzko politika publikoaren lana hezkuntzan oinarritu behar da eta neurriek babes-testuingurua ezarri behar dute; hori izango litzateke adingabeek alkohola saltzearen kontrolaren kasua.

Udal batzuek Arartekoari erantzun diote jadanik; hala, burutzen ari diren prebentziozko jarduketan berri eman diote eta helarazi diote ahal duten heinean adingabeek edari alkoholdunak saltzea eta hornitzea kontrolatzera bideratutako jarduketak areagotu nahi dituztela.

2.6. Adingabe arau-hausleen eskubideak

40. artikulua

1. *Lege penalak hauste leporatzen zaion haurrari edo hauste horren errudun izatea salatzen edo deklaritzen zaionari bere duintasun eta adinarean zentzua suspertu behar zaizkio, giza-eskubideak eta besteen oinarrizko askatasunak errespetatu ditzan, eta haurren adina eta birgizarteratzearen garrantzia gogoan izanik, haurrek gizartean funtzio konstruktiboa har dezan.*

Nahiz eta [Arartekoa sortu eta arautzeko legeak](#) 13.1. artikuluan argi eta garbi azaldu ez dela sendetsitako epaia-*ren gai izan edo epailaritzak erabakiaren zain egon daitezkeen arren* kurak banaka aztertzen hasiko, alde batetik, adingabeen fiskaltzari eta, bestetik, adingabeen defentsan jarduten duten erakundeek, besteak beste, Arartekoari esleitutako haurren eta nerabeen eskubideak babesteko funtzioek bat egiteak berekin dakar, praktikan, bi instantzien artean sarritan informazioa eta kudeaketak trukatzeko komunikazio-kanal bat izatea.

Bestalde, 2015ean [Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin](#) zerikusia izan duten jardueretako batzuk jada azaldu ditugu txosten honen beste puntu batzuetan (adibidez, familia babeslea izateko eskubideari buruzkoa). Horrela, gure ustez herritarrei ardura zaizkien arloetara hobeto egokitzen den aurkezpena egin nahi izan dugu, eta ez hainbeste eragindako administrazioaren arabera antolatutakoa.

Bulego honen 2015eko Txostenean azaldu zen moduan, txostena idatzi zen unean gurasoei bideratutako informazioari eta haur arau-hausleak entzuteari buruzko ikerketa bat irekita zegoen; haur horiei, 14 urte bete gabe zituztenek, eta adingabeen erantzukizun penala arautu zuen [urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikaren](#) 3. artikulua ikusita, adingabeek babesteko arauetan xedatutakoa aplikatzen zaie. 2015ean eta 2016an egindako esku-hartzean, Arartekoak inplikaturako erakunde eragileei informazioa eskatu zien, proposamenak aurreratu egin ziren, aztertzeko, eta hainbat bilera egin ziren proposamenak aztertu eta erkatze-

ko. Eraitza 2017ko otsailan aurkeztuko den dokumentu batean jaso da, eta jasotako iritziak eta informazioak bildu eta partekatuko dira bertan, adingabe horiei dagokienez Euskadin aginteei baliatzen dituzten prozedurak hobeto ezagutzeko ekarpena egite aldera (hiru lurralde historikoei- tan nabardura desberdinak dituzte), eta ahultasun elemen- tu nagusiak argiago ikusteko. Proposamenei dagokienez, hasieran Arartekoak plazaratutakoak, zein ondoren beste eragile batzuek igorritakoak aipatutako azterlanean azaldu dira, komenigarritzat jo dutenen balorazioekin batera.

Polizia esparruari dagokionez, txosten nagusiaren II.13 atalean herritarren eskubideei eta polizia funtzioa bete- zeari lotutako **kexaren bat** bildu da. Horixe da **Ararte- koaren 2016ko abenduaren 20ko ebazpenean** azaldutako kasua, adingabe bati eragiten diona. Izan ere, ertzainek adingabe bat atxilotu zuten, frogarik gabe, eman ez zituen tratu txarren uestezko delituagatik. Adierazi zenez, gogoe- ta hori oinarri hartuta, Adingabeen Fiskaltzak atxilotetaren ondorioz bideratutako atariko eginbideak behin-behinean largestea erabaki zuen, adingabea salatutako ekintzen egilea izan zela esateko daturik ez zegoela ulertuta. Era berean, kexak salatzen zuen ertzainek indarra erabili zu- tela adingabea atxilotzeko, bere gauzak arakatu zituztela, eskuburdirak jarri zizkietela eta gertatutakoarekin bat ez zetorren gertakarien bertsioa eman zutela. Halaber, kexa- ren arabera, ez ziren errespetatu behar besteko bermeak, ez atxilotetan, ezta adingabea Ertzaintzaren bulegoetara eramateko orduan ere.

2016an arlo honetan izapidetu ditugun ofiziotzko jardun- bideak atxiloteta zentroen egoera aztertzei zuzenduta egon dira. Horretaz gain, atxilotetari buruz eta poliziaren jardueretako berme sistemari buruz Arartekoak egindako gomendioak betetzen ote diren aztertu dugu.

Getxoko **Ertzaintzaren** eta **Portugaleteko Udaltzaingoaren** atxiloteta zentroen instalazioetan –2016ko ekitaldi hone- tan bisitatu direnak- ez dago adingabeak egoteko insta- lazio zehatzik, **urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak** (17.3 artikulua) eskatu bezala; erakunde honek bisitatu di- tuen Ertzaintzaren atxiloteta zentro guztietan gauza bera gertatzen da.

Amorebieta-Etxanoko Udaltzaingoak (hori ere bisitatu da) ez du adingabeentzako berariazko atxiloteta liburutik, ur- tarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onartu zuen **uztailaren 30eko 1774/2004 Lege Organikoak** eskatu bezala. Portugaleteko Udaltzaingoaren kasuan, bi atxilo- keta liburu dituzte (adingabeentzat eta helduentzat bana), baina bietan eskuz idazten dute. Portugaleteko Udaltzain- goaren bi atxiloteta liburutik (adingabeentzat eta hel- duentzat bana) eskuz idazten dute. Orri bakoitza atxiloteta bati egokitu arren, liburuak urtekoak ez direnez, ezin da edozein unetan kontsulta bakar baten bidez urtean zehar egindako atxiloteten kopurua ezagutu, erakunde honek gomendatzen duen bezala. Era berean, ez dira atxiloteta- ren jarduera nagusiak erregistratzen, nahiz eta erregistra- tuta ez daudenetako batzuk atxilotetarekin lotutako beste erregistro eta dokumentu batzuetan ageri diren.

2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea

31. artikulua

1. *Haurrak atsedean eta denbora-pasako, jolas eta bere adineko aisialdi ekintzetarako eskubidea du, eta hone- kin batera, bizitza kulturean eta artetan parte hartze- koa ere bai. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute.*
2. *Estatu kideek errespetatu eta bultzatu egingo dute, haurrak bizitza kulturean eta artistikoan parte hartze- ko duen eskubidea, eta horretarako aukera egokiak es- kainiko dizkiote berdintasunaren baldintzapean.*

2.7.1. Eskola kirola

Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubideari buruzko kapitulu honetan, haur eta nerabeek kirola egitearekin lotuta daude, aurten ere, kexarik esan- guratsuenak.

Alde batetik, **beste herrialde batzuetan jaiotako adin- gabeak kirol federatuan inskribatzeko arazoak daude** oraindik ere. Haurrak adoptatuta dauzkaten euskal familie- k jarri zituzten arrazoi horren harira jaso genituen kexak; izan ere, tratu ezberdina ematen zitzaieen seme-alaba adopta- tuei eta seme-alaba biologikoei, aurretiko errolda eskatzen baitzitzaieen atzerrian jaio izanagatik.

FIFAk ezarritako prebentzioa da hori, futbol-klub handiek gehiegikeriazko praktika zehatz batzuk egitea saihesteko xedea duena. Baina praktika horiekin zerikusirik ez duten kasuetan ere neurri hori ezartzeak, argi eta garbi, eragin disfuntzionala sorrarazten du adingabeen interes naga- sian, eta horixe da kasua. Eusko Jaurlaritzako **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak** arduraz lagundu dio Arartekoari, agertu diren kasu guztiak konpontze aldera, erakunde honek gaiaren inguruan dituen eta aurreko txos- tenetan aipatu ditugun irizpideen ildoan.

Alabaina, kasuak errepikatu egiten dira, eta, beraz, azpi- marratu egin behar dugu kirol-federazioek, Euskadiko Fut- bol Federakundeak bereziki, gaiaren inguruko irizpideak aldatu behar dituztela, berdintasunezko tratua jaso deza- ten adingabeek, beren jaiotza-tokia edozein izanda ere; batez ere, beren prestakuntzarekin eta garapen integrala- rekin zerikusia duten eremuetan.

Beste alde batetik, Arartekoak 2015eko urteko txostenean adierazi zuenez, urtean zehar hainbat esku-hartze egin zi- tuen zenbait klubek edota entrenatzailek **eskola-kirolaren aurretiko adinetan egiten den kirolaren esparruan** izan- dako jarrera jakin batzuen inguruan. Hain zuzen ere, en- trenamenduetan eta partiduetan, lehia-errendimendu han- diagoa edo txikiagoa izatearen arabera adingabe batzuei, beste batzuen kalterako, ematen zaien protagonismoez ari gara. Erakunde honek badaki, ordea, klub eta entrenatzaile

gehienek zuzentasun osoz burutzen dutela haur eta gazteen kirol-jardueraren zuzendaritza. Horregatik, Euskadiko hamabi udalerritako laginetik horri buruzko informazioa bildu ondoren, udalei zuzendutako [otsailaren 16ko 2/2016 Gomendio Orokorra](#) igorri zuen Arartekoak, heziketa-irizpideetan, irizpide parte-hartzaileetan eta ez lehiakorretan oinarritu daitezkeen beren udalerrietan haurrentzat antolatzen diren kirol-jarduerak, eskola-kirolaren aurretiko adinetan bereziki, eta irizpide horiek betetzearen mende jar dezaten, hala badagokio, klubek jasotzen duten udal-laguntza, bai instalazioen lagapenean, bai diru-laguntzetan edo sustapenean.

Eskola-kirolaren esparruan oraindik ere erakunde honek Gipuzkoako gurasoen zenbait kexa jaso ditu tarteka, teknifikazio jardueretan parte hartzeko betekizun gisa eskola kiroleko programa orokorrean edo kirol anitzeko jardueretan parte hartzeko betebeharrarekin ados ez zeudelako, haurren mailatik beherako kategorien kasuan. Erakunde honek jakin badaki zer garrantzia duen haurrentzako kirol teknifikazioaren eskaintza eskola-kirolarekin koordinatuta egoteak eta hala izatearekin ados dago. Hala, adin horietan kirol modalitateen eta ibilbideen arteko nolabaiteko oreka lortu nahi da eta adingabeek goizegi kirol bat aukeratu dezaten saihestu nahi da, izan ere, horrek beste kirol batzuk ezagutzeko aukera galarazten du eta, horrenbestez, ez dute kirola jolas eta balioak ikasteko aukera gisa ulertuko. Horrekin bat etorritik, kexagileei emandako erantzuna ildo horretan joan da; nolana ere, egoera bereziren batean Gipuzkoako Foru Aldundiko [Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Sailaren](#) jarduna aztertzeak [gomendioren](#) bat eragin du.

Pareko edukia izan duten kexak errepikatzen zirela ikusita, erakunde hau Gazteria eta Kirol foru zuzendariarekin eta eskola-kirolaz arduratzen den talde teknikoarekin batzartu zen 2015. urte amaieran, lehenago aipatutako egoeretan zeuden familientzako konponbidea bilatu beharra plazaratzeko; hala ere, eskola-kirolaren araudiaren muinean dagoen filosofiari eutsi ahal zaio, eta Arartekoa erabat ados dago filosofia horrekin. Horrek eta alde aurreko beste harremanen batek bultzatuta, Zuzendaritzak bi ekimenetan parte hartzeko gonbidapena igorri zion Arartekoaren erakundeari. Alde batetik, Gipuzkoako eskola-kirolaren eredia hedatzeko kanpainarako [bideo](#) batean parte hartzeko gonbidapena egin zion. Beste alde batetik, eskola-kirolaren programa berrikusteko urte amaieran abiarazitako prozesuan parte hartzeko gonbidapena egin ziguten (25 urteko garapenaren ondoren); prozesu horretan, foru zerbitzuak programaren hainbat alderdi zehatz sakon aztertu nahi ditu, gaur egungo beharizanetara egokitzeko, sarbide unibertsala izateko eta hezkuntza orientazioko oinarriari eutsiz.

Haur eta nerabeentzako antolatutako **aisialdi eta denbora libreko jarduerak** ere zenbait kexa eragin dituzte. Horiek aztertu ondoren, hobetu beharreko bi alderdi nabarmendu behar ditugu:

- Lehenengoa jardueraren ardua daukaten langileen eta gurasoen arteko harreman eta informazioari buruzkoa da, bereziki sor daitezkeen tentsio edo an-

tsietate egoerak kudeatu behar direnean; gure esperimentziaren arabera, gaixotasun edo egokitzen ez diren pertsonen kasu puntualak izaten dira. Jakin badakigu gehienetan une eta egoera egokietan gertatzen dela. baina, hala ere, bi gai aipatu nahi ditugu:

- [Hiru foru aldundiek adostutako jarduketa esparruak](#) horrelako egoerarako ezarritako jarduketara urratsak gurasoek alde aurretik jakitea komenigarria izango litzateke.
- Haur bat gaixorik egotearen sintomak baldin baditu, osasun arloko langileek egindako lehenengo behaketan proba gehiago egin behar zaizkiola ikusten bada, gurasoari azkar eta zuzenean jakinaraziko zaiela bermatu behar da, behin betiko diagnostikoaren zain egon gabe.
- Bigarrenak ezgaitasunen bat edo hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta nerabeek herri-administrazioek antolatutako aisialdi jardueretan berdintasun baldintzetan parte hartu ahal izatea du helburu. Horrelako egoera batek [gomendio](#) bat eragin zuen 2016an, hain zuzen ere [Gasteizko Udalera](#) igorritakoa; onartu egin da, eta 2017ko oporren programa antolatze aldera lantzen ari dira dagoeneko.

Kasu honetan, arazoa sortu zen Gasteizko Udalak 3 eta 17 urte arteko haur eta gazteentzat uda guztietan modu integratuan eskaintzen duen oporren programako jardueraren batean plaza esleitzeko prozesuan hezkuntza premia bereziren bat daukaten gazteentzako prestatutako plazaren izaera hura galdu egiten zela planteatu zelako. Udalak emandako informazioa aztertu ondoren, agerikoa da hezkuntza premia bereziren bat daukaten gazteentzako plaza kopuru jakin bati esleipen prozesua amaitu arte eusteko helburua zutela, baina ez zen horrela gertatzen. Gorago aipatutako ebazpenean disfuntzioa aipatu zen, eta horrenbestez, adingabe horien parte hartzeko eskubidea gauzatzeko zenbait neurri proposatu ziren.

2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

2. artikulua

1. *Estatu kideek Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak errespetatuko dituzte eta bermatuko dute beren jurisdikziopean dauden haurrei aplikatuko zaizkiela, alde batera utzita haurren, gurasoen edo legezko ordezkarien arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelakoa, nazio-, etnia- edo gizarite-jatorria, ezintasun fisikoak, jaiotza edo bestelako edozein ezaugarri.*

2.8.1. Atzerritarren seme-alabak

Bakarrik dauden adingabe edo gazte atzerritarrekin bera-riaz zerikusia duten jarduerak (txosten honen 2.3. atalean aipatu ditugu) ez ezik, atzerritarren seme-alabak ere kexetako protagonistak izan dira beste arlo batzuetan. Zehatz samar azalduko ditugu jarraian.

Hezkuntza administrazioaren mendeko zentro publiko batek ez zion ikasle bati hiyaba edo estalki islamiarra jantzita bertaraten utzi. Zentroko zuzendaritzak Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiaren babesean jokatu zuen, araudi horretan txanoak edo burua estaltzeko beste edozein arropa erabiltzea debekatu baitzen. Horren ondorioz, familiak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan.

Horrelako egoera batek Euskal Autonomia Erkidegoan horrenbesteko oihartzuna lortu duen lehen aldia izan da, baita Arartekora kexa modura iritsi den lehen aldia ere. Gure iritziz, aurrekaririk ez izateak azalduko luke hezkuntza arloko administrazioak, lehenik eta behin, duela zenbait urte Madrilgo Erkidegoan gertatutako adibidearekin konparatuz erantzutea; izan ere, orduan gertatutakoa hizpide dugun egoeraren parekoa zen, eta Madrilgo Administrazioarekiko Auzietarako 32. Epaitegiaren epaiarekin itxi zen (2012ko urtarrilaren 25eko 35. Epaia); epaia argia izan zen: ezarritako debekua zilegizkoa zela berretsi zuen.

Aurkeztutako kexa aztertzen hasterakoan, erakunde honek gogoan izan zuen, hala ere, [Lleidako Udaleko Elkarbizitza eta Gizalegeari buruzko Udal Ordenantzaren gainean Auzitegi Gorenak esandakoa](#); ordenantza horretan xedatu zenez, zerbitzuen eta udal ekipamendu eta eraikinak erabiltzeko testu arautzaileak erabat estaltzen duen beloa janzten zuten emakumeak horretarako prestatutako espazio eta lokaletara sartzeko eta bertan egotea debekatu edo mugatzeko aukera ezarri zuen. Epaian, bai Lleidako Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiak, bai erakunde horrek onartutako testu arautzaileak zuzenbidearen aurkakotzat jo eta baliorik gabe utzi zituen Auzitegi Gorenak.

Zalantza izpirik gabe, hezkuntzari ez dagokion eskumen esparru baten gaineko adierazpenak dira; bestalde, estalki osoaren erabilera eztabaidatu da erabaki horretan, ez estalki sinple edo hiyabari dagokiona. Auzitegiak bere irizpidea azaltzen duen lehen epaia (eta bakarra, uste dugu) izan da, eta auzitegiak berak onartu bezala, eztabaida biazian dagoen gai bat da. Arartekoaren iritziz, bertan jasotako gogoetak ezin dira alde batera utzi, izan ere, arrazoikertaren oinarria doktrina konstituzional tinkoa da.

Hartara, doktrina horretan oinarrituz, Auzitegi Gorenak argi eta garbi eta modu kategorikoan ondorioztatu du erlijio askatasunaren eskubidea baliatzeko muga ezarri ahal izateko legea funtsezkoa dela, eta horren orde ezin dela beste araudi iturrik baliatu; hortaz, hezkuntza arloko administrazioak hasierako erantzunean aipatutako aurrekariak baztertu egin behar dira.

Hortaz, gaia aztertzerakoan ezin izan ditugu hezkuntza arloan estalkia erabiltzeari buruzko ondorengo beste adie-

razpen batzuk ahaztu, erakunde honen iritziz planteatutako arazoari ongi erantzuten ez badiote ere. Horrelakoa da [Gaztela Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren azaroaren 28ko 277/2014 zenbakidun epaiaren](#) kasua. Epai horretan Gaztela Leongo Justizia Auzitegi Nagusiak ikastetxeek antolatze gaitasuna daukatela xedatu zuen, gaitasun hori irakasteko askatasunaren azken adierazpen gisa ulertuta, elkarbizitzarako arauak edo erregimen bat ezartzeko dagokiela defendatzeko; arau horiek janzteko irizpide zehatz batzuk izateraino iristen dira, baita gurasoek seme-alabentzat erlijio printzipioetara hobekien egokitzen zaien ikastetxea aukeratzeko gaitasuna gehitzea edo gaineratzea ere; hala ere, zalantzan jarritako erlijio askatasunerako eskubidea mugatzearen gaineko estaldura legala ez zen azaldu edo justifikatu.

Beharrezkotzat jotako elkarbizitza eta jokabide arauak zehaztuz, ikastetxeek bertako antolaketa eta funtzionamendu arau propioak onartu eta ezartzeko antolaketa gaitasun aitortua daukatela zalantzan jartzea ez dago Arartekoaren helburuen artean; baina, gure ikuspuntuaren arabera, eta aurreratu dugun moduan, Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiak lortutako ondorioak, dirudenez, ez du arazo honetarako erantzun egokirik eman. Ikastetxeen gaitasun hori zalantza izpirik gabe onartzeak ezin du ekarri, aldi berean, oinarritzko eskubide baten babesa arriskuan jartzea, alegia erlijio askatasunerako eskubidea, aipatutako gaitasuna gehiegi erabiltzeagatik; ezin da alde batera utzi erlijio askatasunerako oinarritzko eskubidea baliatzea mugatzeko formalki lege bat behar dela; exijentzia konstituzional bat da.

Gaia aztertu ondoren ondorio horietara iritsita, Arartekoak kezka ikusi ditu hezkuntza ikuskaritzak prestatutako txostenean jasotako proposamenak; izan ere, ikasgela barruan estalkia erabiltzeko erabakiak ekarritako egoera arautzea eskusiboki ikasle kexagilearen ikastetxearen esku uzten zuen. Hala ere, azkenik, [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko](#) arduradunek euskal ikastetxeen hezkuntza komunitateetara zenbait gomendio igortzea erabaki zuten, aniztasunari erreparatzeko eta eskola inklusiboaren marko pedagogiko berriaren testuingurua aipatuz. Gomendio horietan buruan painelua janzten duten neskatoen eskolatzea ez debekatzeko gomendatzen zen, eta antolaketa eta funtzionamendu arauak edo hezkuntza proiektuak horrelakorik onartzen ez duten kasuetan testuok berrikusteko gomendatu zen, aniztasunari erreparatzeko eta eskola inklusiboaren marko pedagogiko berriaren planteamendutik.

Hezkuntzaren esparruan, gainera, Gasteizen ikasle etorkinen banaketari lotuta sortutako kezka txosten honen 2.2 atalean nabarmendu zen; horren ondorioz, erakundeen arteko mahai bat eratu da, eta mahai horretan hiriko ikastetxe jakin batzuetan sortutako “ghettizazioa” bideratu ahal izateko irizpideak ezarri nahi dira. Ikasleak onartzeari lotuta erakunde honek plazaratutako zenbait proposamen 2016-2020ko Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plan aurkeztu berrian jaso dira. Ahots kritiko batzuek dagoneko esan dute ez dela nahikoa, baina baliteke planean bertan jarraipena egiteko eta aldizka berrikusteko jasotako

konpromisoari esker antzemandako ahultasunak bideratu ahal izatea.

2.5 atalean, **osasun** arloari buruzkoan, euskal ospitaleetan jaiotako atzerriko familien seme-alabek bizi duten egoera sakon azaldu da; haur horien dokumentazioa kasuan kasuko enbaxada eta kontsulatuekin izapidetzen den bitartean, zailtasunak izaten dituzte ez osasun arreta jasotzeko, baina bai prestazio farmakologikoetara sarbidea izateko. Atzerriko emakume haurdun batzuek euskal osasun sisteman artatu eta haurdunaldian laguntza jasotzeko izan dituzten zailtasunak ere azaldu dira, modu laburragoan. Haurdun dagoen emakumearen eta haurraren osasun egoerari jarraipen egokia egitea oso garrantzitsua da etorkizunean osasun maila aproposa bermatzeko. Kasuak, nolana ere, modu positiboan ebatzi dira.

Atzerrian jaiotako neska zein mutilek **futbol federatua** egiteko lizentzia lortzeko izan dituzten arazoak ere positiboki konpondu dira (tartean atzerriko nazionalitatea daukaten familietako semeak), txosten honetako 2.6 atalean azaldu bezala.

Haur eta nerabe ugari bizi duten **pobrezia** egoerari buruz ezin dugu horren positiboki hitz egin, haur eta nerabeen familia burua gehienetan atzeritarra denean, profil hori baita, azterlan guztiek azaldu dutenez, haurren populazio pobreak artean. Horren ondorioz, esparru honetan hartu beharreko neurriek, arazoen muinari dagozkionak eta integralak izatea nahi badugu, pertsona batzuei atzeritarrak izateagatik bereziki eragiten dien elementu bereizleak bereziki hartu beharko lituzkete aintzat.

Administrazioaren araudiaren esparruan, aintzat hartuta gehienetan estatuko administrazio nagusiaren eskumena dela, aurtan **Herriaren Defendatzaileari** bideratutako ofiziozko jarduketara bat abiarazi da, Espainian dagoen Gineako enbaxadan pasaporte bat izapidetzeko aukerarik ez izateak eragiten dituen ondorioei buruzko kezka helarazteko. Horrek zailtasun ugari eragin zituen, besteak beste, Gineako amen haurrak Erregistro Zibilean inskribatzeari dago-kionez. Enbaxadak ematen duen ordezkio ziurtagiria ez da herri-administrazio guztietan onartzen ondorio guztietarako pertsonak identifikatzeko dokumentu gisa.

Bukatzeko, gehitu behar da **persona errefuxiatuek**, tartean haur ugari bizi duten egoera urtero erakunde honek antolatzen duen udako ikastaroko gaia izan zela. **“Europa asilo lurraldea? Erronkak eta erantzunak”** izenburupean, ikastaroan asilo eskubidearen edukia landu zen, ikuspuntu teorikotik zein aplikazio praktikotik eta eskubidearen erregulazioaren ikuspuntutik.

Ikastaroaren helburua bigarren mundu gerratik Europan izan den asilo eskaririk handienak eragindako arazoen magnitudea aztertu eta eztabaidatzea zen, baita euskal, espainiar eta europar mailako zenbait erakundek emandako erantzunak ere (edo erantzunik eza). Honako hauek izan ziren eztabaidaren elementuak: 1) Europako Parlamentuak -Europan herritartasunaren ordezkari gorenaren den aldetik- bideratutako ekimenak eta zenbait talde politikok

hartutako jarrera gaur egungo egoeretan asilo eskubidea baliatzeak dakarren erronkari eman beharreko erantzunei dagokienez; 2) erakunde humanitarioek hartutako edo sustatutako ekimenak, neurriak eta ikuspegia jazarpena pairatzen duten pertsonak babesteko eta pairatzen dutena arintzeko, haurren errefuxiatuak bereziki aintzat hartuz.

2.8.2. LGTBI haurrak eta nerabeak

Auzi horri lotutako gure jarduketa guztien xedea hiru helburu hauen bitartez laburbiltzen da:

- Euskal herri-administrazioek euren jarduera guztietan berdintasuna erabat errespetatu dezaten eta sexu-orientazio eta genero-identitatearen ondoriozko bereizkeriarik egin ez dezaten lortzea, eskubide horien gauzatzea benetakoa eta eraginkorra izateko beharrezkoak diren neurriak abian jarri.
- Euskal gizarte osoan, bazterkeriarik ezan eta aniztasun afektibo eta sexualari eta genero-aniztasunari lotutako eskubideen errespetuan oinarritutako kultura zabaltzea.
- Homofobia edo transfobiaren aurka borrokatzea (edozein formatan agertzen bada ere), Euskadin LGTBI haur eta nerabeen egoeraren gaineko ezagutza eta sentsibilizazioa zabalduz.

Arartekoak, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren bidez eta LGTBIen eskubideen arloaren bidez, **“Eskola seguruaren aldeko talde egonkorra”** izeneko espazioan parte hartzen jarraitu du, aurreko urteetan bezala. Eratze mistoa (soziala-instituzionala) duen lan-foroa da, **Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak** eta **Berdindu Zerbitzuak** babesten dutena. Eskolan, mutikoen, neskatoen eta nerabeen aniztasun sexual eta afektiborako eskubideekiko errespetua eta sustapena bultzatzeko xedea dauka talde horrek, eta Arartekoak al-dizka hartzen du parte bertan -Haurren eta Nerabeen bulegoaren bidez eta LGTBIen eskubideen atalaren bidez-, beste erakunde batzuekin batera (horien artean, **Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila** nabarmentzen dugu). Talde horren zeregina, funtsean, adingabeei, familiei eta irakasleei laguntzeko jarduerak eta protokoloak koordinatzea da, hezkuntza-zentroetan ikasleen genero-identitateei eta -rolei eragiten dieten egoerak eta jarrerak agertzen diren kasuei dagokienean.

2016an egin zen bilera bakarrean, Euskadiko hezkuntza-zentro guztiei zuzendutako dokumentuaren azken idazketa hitzartu zen. Hauxe da dokumentuaren izenburua: **Ikas-tetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko**. Dokumentuak sarreran adierazten duen moduan, **hezkuntza-sistemaren lerro estrategiko bat da aniztasunari erantzutea. Hori dela eta, hezkuntzako profesionalak gai izan behar dute, eskola inklusiboaren parametroetan oinarrituta, ikasleen eta haien familien dibertsitatea eza-**

II

gutu eta aitortzeko. Hezkuntzako profesionalen aniztasun horiek detektatuz gainera, ikasle horiei beren eragozpenak gainditzeko lagungarri izango zaizkien bitartekoak eskaini behar dizkiete bizi dituzten egoera jakin batzuk gainditzeko, gainerako ikaskideekin berdintasun baldintzetan pertsona oso bezala garatzeko, aske eta zoriontsu bizi izateko eta arrakasta akademikoa lortu ahal izateko. Protokolo horrekin, Euskadiko hezkuntza-sisteman sexu-joera eta genero-identitate edo -adierazpen anitzei ematen zaien arretari erantzun nahi zaio, bai eta eskolan homo/lesbofobia eta transfobia prebenitu nahi ere.

Arartekoaren ustez, protokolo hori aurrerapen nabarmena da, eskolan aniztasun sexual eta afektiboa aitortzeari begira. Horrekin guztiarekin, irakasleen prestakuntza espezifikoa azpimarratu behar dugu orain, aipatu protokoloa ezartzeko erantzukizuna duten horiek baliabide nahikoz hornitze aldera, bai arrakastaz bete ditzaten protokoloan jasotako xedeak, bai, eskolako egoera indibidualetatik harago, giza aniztasunari harrera egiteko eta, bereziki, aniztasun sexual eta afektiboari harrera egiteko klima era dadin ikasgelan eta hezkuntza-zentroaren multzoan, prebentzio gisa. Irakasleak prestatzeko eta sentsibilizatzeko plan edo programa nahikorik ez egotea, gai horiek ikasgelan modu sistematikoan eta antolatuan jorratu ez izana, sexu-joera eta genero-identitateari buruzko material zehatza modu antolatuan erabili ez izana edo egun dauden tresna didaktikoetan bizikidetzaredu berriak islatu ez izana horren adibide argiak dira, eta, horren ondorioz, irakasle kontzienteenak ez dute behar beste laguntza jasotzen hezkuntza-sistemaren eskutik, gai horiek behar bezala jorratu ahal izateko.

Horregatik, ezinbestekoa da Euskadiko hezkuntza-zentroen eta hezkuntza-erakundearen artean baterako lana sustatzea, eskola haur horientzat benetan inklusiboa eta toki segurua dela ziurtatuko duten tresnak sortzeari begira, euren sexu-joera edo genero-identitatea edozein izanik ere.

2016. urtearen hasieran bukatu zen 2015eko txostenean aurreratu genuen kexa bat; bertan, zalantzan jarri zen [Osakidetzako Gurutzetako ospitaleko](#) Genero Unitatearen jardura gai honetan: arreta desegokia eman zitzaioela legez neska erregistratuta egon arren, mutil bizi eta sentitzen zen adingabe bati. Oraingo honetan, erakunde honek [Arartekoaren 2016ko otsailaren 12ko Ebazpena](#) igorri dio Osakidetzari, [elkarrizketa-bide irekiak](#) ezar ditzan eta [zabal-zabal erantzun diezaien](#) genero-identitate anitza duten haurren familiek [osasun-zerbitzuen ikuspegiaren inguruan dituzten kezkei eta egiten dituzten informazio-eskaerei](#). Bestalde, ebazpen horren bidez, Osakidetzari eskatu zaio kontuan har ditzala zenbait [printzipio edo jardura-ildo](#), bai transexualei ematen zaien arretan, bai euskal legeriak arlo honetan aurreikusi duen gida klinikoa.

Arartekoak egindako ikerketaren emaitzari dagokionez, eta Osakidetzak adierazitako gogoetak ere aintzat hartuz, erakunde honek ondorioztatu ahal izan du [erronka zientifiko, sozial eta gizatiar berriak dituen jardura-eremu baten aurrean gaudela](#), eta pertsona horiek eta bereziki haurrek eskatzen duten [arretan inplikaturik dauden zerbitzu publiko guztiei](#) -baita osasun-zerbitzuei ere- eragiten diela.

Gauzak horrela, Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzuari zuzendutako gomendio horrekin, aipatu pertsonen arreta emateari bideratutako [jardura publikoak hobeto orientatzen lagundu dezaketen eta nazioartean aitortuta dauden printzipio batzuk gogorarazi](#) nahi izan ditu Arartekoak. Horien artean, printzipio hauek nabarmentzen ditugu: [transexualitatea despatologizatzeko](#) printzipioa, sentitutako sexua errespetatzeko printzipioa, ezagutza zientifikoari eta praktikoari irekitzea, bai eta arlo honetan eskarmentu aitortua duten beste instantzia batzuen doktrina-korrante ezberdinei irekitzea ere, eta informazio zabala jasotzeko eskubidea, zerbitzuaren erabilzaileak modu aktibo eta informatuan hartu ahal izan dezan parte bere osasunari eragiten dioten erabakietan.

Haurrei dagokienez, era berean azpimarratu nahi izan da haur horiek adierazitako eskaerak entzutea eta egoki bideratzea eskatzen duela adingabeen interes gorenak, eta [profesional adituen laguntza bermatu behar dela horien banakako ibilbidean](#), hori edozein izanik ere, eta, horretarako, [zerbitzu publikoen esparruan sartu behar direla psikologiako profesionalak](#). Bestalde, [haurtzaroak eta nerabezaroak berezkoa duten eboluzio-izapena](#) dela-eta, pertsonen nortasunaosatzean etapa batzuen garrantziari arreta emanez gainera, egokitzen jotzen dugu osasun zerbitzuek eremu honetan egiten dituzten jardunetan gizarte ikuspuntua barne hartzea eta [tentuz ibiltzea, diagnostiko azkarrak edota itxiak egitea ekidinez](#), kategoria geldi edo finkoen arabera, [atzera bueltarik gabeko prozesuetara azkarregi jo dezaketenak](#).

Azkenik, Arartekoak Osakidetzari adierazi dio gai honen inguruan [dauden askotariko ikuspegi sozial, zientifiko eta doktrinalak](#) sartu behar direla [legez aurreikusi den gida klinikoa](#), transexualen arretan orientatzeko balio behar diela horrek osasun-zerbitzuei, eta [ezagutzaren azken-mailara eta ebidentzia zientifikora](#) igo behar dela arreta, horretarako, beharrezkoa balitz, nazioarteko eremuko pertsona eta erakunde adituen irizpideetara joz.

2.8.3. Ezgaitasunen bat daukaten haurrak eta nerabeak

Aurreko urteetan bezala, kopuru aldetik ezgaitasunen bat daukaten haurrei eta nerabeei gehien eragiten dieten kexak [irisgarritasun](#) gabeziei buruzkoak dira, bai ekipamenduetan (etxebizitza, hezkuntza, osasuna, gizarte arlokoak, kulturakoak, etab.), bai hiri ingurunean edo garraioan. Hori ikusita berriz ere gogoratu behar da irisgarritasun unibertsalari esker herritar guztiek bizitza sozial eta ekonomikoan parte hartze aktiboa izateko aukera daukatela, haurrak barne, eta denak aukera berdintasunean.

Garraioari eta mugikortasun arazo handiak dituzten haurrak mugitzean duen eraginari dagokionez, Bilboko [Trafiko eta Aparkalekuen Ordenantzak \(TAO/OTA\)](#) ezarritako betekizuna nabarmendu behar da atal honetan, ezgaitasu-

nen bat daukaten pertsonen ibilgailuen ezohiko araubidea aplikatu ahal izateko (36. eta 37.1 artikulua), ezgaitasunen bat daukan pertsona, halaber, ibilgailuko gidaria den. Erakunde honek bi gomendiotan gai honi buruzko adierazpenak egin ditu (azkena 2014an), eta horietan Bilboko Udalera jo du, aipatutako araubidearen onurak apartatzeko txartel bakarreko titular diren pertsona guztiei hedatzeko eskatuz. Aurten irizpidea zalantzan jarri da berriz ere, eta udalak oraindik ez ditu onartu erakunde honen argudioak.

Aurreko gaiarekin zuzenean lotuta, jakinarazi behar da aurten martxoaren 22ko 50/2016 Dekretua onartu dela, ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duena. Dekretuak, irisgarritasun unibertsalaren eta bizitza independentearen printzipioekin bat etorritik, beharrezko neurriak artikulatu ditu ezgaitasuna dela medio mugikortasun murriztuko pertsonen ibilgailuak aparkatzea errazagoa izan dadin. Estatu mailan 2014an helburu berarekin onartutako errege dekretuarekin alderatuta aldaketak dakartza; izan ere, ezgaitasunen bat daukaten pertsonen garraio kolektiboan lan egiten duten pertsona fisiko edo juridikoei eta ikusmeneko ezgaitasunen bat daukaten pertsonen aparkatze txartela lortzeko eskubidea aitortu eta behin-behineko aparkatze txartelak emateaz gain, txartela lortzeko eskubidea daukaten titularren artean 3 urtetik beherako pertsonak ere jaso dira, bizitza funtzioetarako ezinbesteko gailu teknikoak etengabe behar badituzte edo larritasuna dela medio 4. edo 5. mailako ezgaitasunaren balorazioa jaso badute (patologia larria edo oso larria).

Hezkuntza esparruari dagokionez, txosten honen 2.2. atalean babes premia desberdinak dituzten hurrek daukaten zailtasunak aipatu ditugu, ezgaitasuna dela medio; kasu batzuetan modu positiboan konpondu dira eta beste batzuetan, ordea, ez: laguntza langileak ez jartzea edo berandu iristea, esku-hartzearekin ados edo pozik ez egotea, derrigorrezko hezkuntzen ondorengoetan laguntza aitopena ukatzea edo zailtzea, eta bestelakoak izan dira.

Osasunari buruzko 2.4 atalean aurten autismoa zuen haur bati zegokion kexa izapidetu dugu; kasu honetan ongi bukatu da.

Denbora librearen eta aisialdiaren atalean, azkenik, Gas-teizko Udaleko oporretako programan hezkuntza premia bereziak dituzten gazteentzako plazen erreserbari buruzko ebazpena gogoratu behar da; dokumentu honetako 2.7 atalean sakonago azaldu da, eta hor nabarmendu bezala, hau ere onartu egin da.

2.8.4. Neska-mutil ijitoak

Aurten Arartekoak familia ijitoetako haur eta nerabeei eragiten zien gaiei buruzko herritarren eskaera batzuk izan ditu. Lehenik eta behin argitu behar da azaldutako zailtasunak bizikidetzaz arazoei lotuta daudela, eta gizarte zailtasun eta bazterketa egoeran dauden familiak inplikatu daude; ez daude lotuta ijitoen herrikoak izateagatik sortutako bazterketarekin. Nolanahi ere, familia horietako hau-

erakundeak iritzi publikoaren epaiketen eraginpean daude, argi eta garbi.

Arartekoaren esku-hartzea 2015. urte amaieran hasi zen, Bilboko auzo bateko herritar talde batek eskatuta; erakunde honek esku hartzeko eskatu zuten inguruan bizikidetzaz arazo larriak sortzen zirelako, eta arazo horietan neurri handi batean mutil talde bat zen protagonista, gehienak adingabeak eta familia berekoak; beste bizilagun batzuk asaldatu, lapurtu eta erasotzen zituzten. Egoera ez zen berria, baina okerrera egin zuen. Eskatzaileek igorritako kezkan, gainera, adingabeak nabarmentzen ziren, babesik gabeko egoera larrian zeudela aipatzen baitzen, heldu erreferente aproposik ez zeukatela eta gurasoen istorioa errepikatuzera “bideratuta” zeudela azaltzen baitzen.

Egoera aztertuta, erakunde honek lehenengo ondorioa eta ondorio argia egoera konplexua zela aitortzea izan zen. Egoera konplexua, lehenik eta behin, urte luzez luzatu zela. Konplexua, horrez gain, esku-hartze ugari egin zirelako eta, hala ere, ordura arte ez zutelako ondorio eraginkorrik izan. Konplexua da, halaber, familia erdiesteko eta familiarekin hitz egiteko zailtasunengatik. Konplexua da, amaitzeko, inplikatu dauden eragile anitzak eta eremu desberdinak direla-eta. Horrenbestez, artikulatu beharreko erantzunetan nahitaez bi ezaugarri hauek inplikatu beharko liriateke: konplexutasuna eta denbora.

Adingabeen arretari dagokionez, berriz ere nabarmendu zen ordura arte egindako esfortzuek ez zutelako ia emaitzarik eragin. Familiako ia adingabe guztiak babesgabetasun egoera larrian zeudela onartu ondoren, bazterketa neurrien bitartez aplikatutako esku-hartzea ez zen eraginkorra izan, lortutako emaitzak ikusita. Haurrak eta bereziki nerabeak egoitza harrerako baliabideetan egoten ziren harik eta familia egiturara itzultzen ziren arte, eta familia egitura aterpea ematen zien. Horrek, agian, banan-banan kasuak jorratzeko estrategia berrien inguruan hausnarketa bat egitea ekarri beharko luke. Haurrak hobeto kontrolatu eta jarraitu egiteko egoitza baliabideetatik egindako esku-hartzeak mespretxatu gabe (azkenaldian indartu zirenak), solaskide batzuek haurrak gurasoekin mantentzeko aukera aipatu zuten, eta etxean hezkuntza eta gizarte esku-hartze intentsua egitea; horrela, familia nukleoari eustea izango litzateke aldaketarako palanka. Horretarako, nolahi ere, bizikidetzaz-unitateen banaketa bat egin beharko litzateke; izan ere, horrek bizikidetzaz-unitate bakoitzaren ezaugarri eta beharrezko egokitutako lan espezifikoak eta partikularra egitea ahalbidetuko luke.

2016ko ekainean, liskarrek okerrera jo eta bizilagunen kexak areagotu ondoren, Udaltzako plan bat egiteko konpromisoa hartu zuen (helburu eta xede zehatz batzuek gidatutako jarduketara, epe, arduradun eta beharrezko baliabide zehatzekin); plan horretan “parte hartzea” (erakundeena eta udal arlo desberdinena), “kolaborazioa” eta “jarduketa koordinatua” funtsezko elementuak ziren. Arartekoaren ustez, ingurunean esku-hartze holistikoa, planifikatu, antolatu bat egiteak, inplikatu erakunde eta udal arlo desberdinek garatu beharreko ekintzak antolatzeko esku-hartzea, planteatutako arazo konplexuari eki-

teko bide egokia zen. Auzoetako auzokideen eta gizarte erakundeen parte hartzea ere, gure ustez, aurreikusi egin beharko litzateke aipatutako planean. Nolanahi ere, 2017. urtean planeko helburuen betetze mailaren jarraipena egingo du Arartekoak.

Planaren proposamenen artean babesgabetasun egoeran zeuden adingabeei arreta emateko jarduketak ere aurreikusi ziren. Gizarte zerbitzuen euskal ereduan definitu bezala, egoera horretan Bilboko Udalak eta Haurren Foru Zerbitzuak koordinazio eta lankidetzara maila handienarekin lan egitera deituta daude, bereziki konplexuak diren egoeretan erantzun konplexuak (eta osatuak) eskaintzeko.

Egoera horri lotuta, baina liskar horiei eta iritzi publikora igortzen ari ziren ijitoen komunitatearen eta inplikaturako familiako adingabeen irudiari (haien ustez estereotipo txarrez beteta) zenbait hedabidek emandako tratamenduaren ikuspuntutik, esku hartzeko beste eskaera bat jaso zen urte erdian (nolanahi ere, aipatutako adingabeen pribatasun, ohore eta irudi propioaren eskubideak bereziki babestu beharko lirateke). Arartekoaren erantzuna nahi genuena baino mugatuagoa izan zen komunikazio enpresa pribatuen jarduna zelako, eta ez herri-administrazioarena (erakundea arautzeko legeak definitutako jarduketa esparrua); hala, erantzuna kexan aipatutako arloan eragin handiko eragile batzuekin zenbait kudeaketa egitera bideratu zen, ez soilik egoera zehatz honi ekiteko, baizik eta komunikabideek informazioa modu ez baztertzailan tratatzeko eta pertsonen eskubideak sustatzeko modu jakin batean

planteatzeko. Testuinguru horretan kokatzen dira Kazetarien Euskal Elkargoarekin eta Elkartearekin harremanetan jarri izana; talde horiek bideratzen dituzten ekimenen artea, Espainiako Kazetarien Elkarten Federazioaren kode deontologikoa nola aplikatzen duten informatu eta gidatzen dute, erakunde hori baita kode etikoari buruzko zailtasunak pizten dituzten kazetaritza jardunen jarraipena eta salaketa egiteko organoa, eta edozein pertsonak edo erakundeak izan dezake sarbidea.

Erakundearen hirugarren esku-hartzea uda ondoren aktibatua zen, herritarrek arbuiatu zutenean familia batek Gas-teizko etxebizitza bat okupatu izana. Familiak, bestalde, Arartekoarengana jo zuen alde aurretik, haurretako bi eskolatze zailtasunak izan zituztelako, etxebizitza okupatzeko titulu baliagarririk ez zutenez erroldatu izanetik eratorrita. Udal erroldan inskribatzea zerbitzu publikoak jaso ahal izateko ondorio garrantzitsuak dituen eskubide bat da (betekizun gisa eskatzen baitute erroldatuta egotea) eta beste era bateko eskubideak erabiltzeko, esaterako eskubide politikoak (bozkatzeko eskubidea, herritarren parte hartzea, etab.). Kexa hura ebatzi egin zuen, eta haurrak eskolatu egin zituzten alokairu kontratu bat aurkeztu eta, horrenbestez, udal erroldan jasotzea aurkeztu ondoren.

Auzokideekin dituzten harremanen zailtasunak, berriz, ez dira murriztu. Horiei dagokienez, esku-hartzeak irekita jarraitzen du eta hainbat esparrutan du eragina (segurtasuna, elkarbizitza, gizarte zerbitzuak, etab.); horrenbestez, datorren urteko txostenean emango da emaitzen berri.

III

ATAIA

Entzuna izateko eta
bere iritzia kontuan
hartua izateko
eskubidea:
Arartekoaren
Haur eta Nerabeen Kontseilua

III. Atala

ENTZUNA IZATEKO ETA BERE IRITZIA KONTUAN HARTUA IZATEKO ESKUBIDEA: ARARTEKOAREN HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA

12. artikulua

1. *Iritzi propioa izateko gai den haurrari Estatu kideek iritzia askatasun osoz azaltzeko aukera bermatuko diote, haurrari berari dagozkion gai guztietan, eta beti bere adin eta heldutasunaren arabera.*

13. artikulua

1. *Haurrak adierazpen askatasuna izango du, muga politikoak kontuan izan gabe; eskubide horren barruan sartuko dira edozein ideia edo informazio bilatu, jaso eta zabaltzea, bai ahoz, idatziz edo inprimakiz, modu artistikoan edo haurrak aukeratzen duen edozein modutan.*

Haurren Eskubideen Hitzarmenak, Nazio Batuek 1989an onaturikoak, 18 urtetik beherako adingabeei informaziorako eta parte-hartzeko eskubidea aitortzen die, bai eta eragiten dieten arlo guztietan beren iritzia emateko eta beren iritzia kontuan hartua izateko eskubidea ere. Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

Haur eta Nerabeen Kontseiluak neska-mutilen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta bestelakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Erakundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili diren (eta aurrerantzean erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri da; halakoak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak, bai eta bizitegi-baliabideetan harrera egin

zaien neska-mutilei egindako elkarriketen esparruan sortutako eztabaida-taldeak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 24 neska-mutilek osatzen dute. Neska-mutil horiek parte hartzeko barne-dinamiketan esperientzia duten hainbat ikastetxek proposatuta izendatu dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere, kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoia izatea. Nork bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentzialtasuna bermatzea dira kontseiluaren funtzionamenduaren oinarritzko arauak.

2014an, kontseiluak ikasturte osoan zehar egin beharreko lanaren haria izateko gaiak jorratzea erabaki genuen. Horrela, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 25. urterrenak eraginda, kontseiluaren lanak hitzarmenaren aintzat hartutako haurren eskubideak zabaltzen eta sustatzen lagundu ahal izatea jarri genion geure buruari helburutzat, egunerokotasunetik aztertuta eskubide horiek, bizi dugun eta egun normaletan gertatzen zaigun horretatik abiatuta. Dinamikaren arrakasta ikusita, formula berberari eutsi diogu kontseiluak 2015/2016 ikasturtean egin beharreko lanerako.

Gure xedea bikoitza da: alde batetik, gure kontseiluan parte hartzen duten neska-mutilek giza eskubideak eta eskubide zehatzen bat ezagutzea bilatzen dugu, eta horien gainean sakondu eta hausnartu dezatela; eta, bestetik, euren hausnarketak ikus-entzunezko produktu batean isla ditzatela nahi dugu, beren ideiak eta mintzaira erabilita, berdinen artean eta parte-hartzaileak baino gazteagoak diren neska-mutilen artean eskubideen kultura zabaltzeko balio dezan.

Hurrengo paragrafoetan, 2016ko saioetako lana laburbilduko dugu.

Urteko **lehenengo bilera** Donostian izan zen, otsailaren 20an, Aieteko Jauregian kokatutako Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Saio hartan ikastarorako proposatutako gaia landuz hasi ginen: harreman afektiboetan tratu ona jasotzeko eskubidea. Lan saioan tratu on eta berdintasunean oinarrituz harremanak izateak esan nahi duenari buruzko hausnarketa egin genuen, elkarrekin, ikastaroaren amaieran bideo bat egiteko ideia erabakigarriak identifikatze aldera.

Goizeko saioan emakume eta gizonei buruzko estereotipo eta aurreiritziak identifikatzea landu genuen, genero rolei buruzko hausnarketa egin. Film labur, bideo klip eta filmetako pasarte batzuk oinarritzat hartuta, gure mutiko eta neskek sexismoaren eta harremanen munduan barneratu ziren; ondoren, termometro handi batekin, nerabeen arteko harreman afektiboetan sor daitezkeen jokamoldeak aztertu genituen; harreman horiek biolentoak edo, ostera, tratu onekoak izan daitezke.

Arratsaldeko saioan bikote- edo ligatze-harremanen kasu erreala aztertu zituzten, eta berdintasunez tratatzeko protagonistei zein gomendio eman ahal zaien galdetu zitzaizen. Jardunaldi osoan zehar, kontseilariak hainbat ideia "tratu onen gutunontzi" batean sartu zituzten, hurrengo saioan grabatuko zen bideoan islatu ahal izateko.

Urteko **bigarren topaketa**, 2015-2016 ikasturteko azkenengo, Bilboko Kastrexana gazte ostatuan egin zen, ekainaren 4an.

Kontseiluak ikastarorako proposatutako betebeharrak luze eta zirrargarrienari eskaini zion egunaren zati handiena: haur eta nerabeen eskubideak hedatzeko ikus-entzunezko materialerako gidoia prestatzea, eszenak entseatzeko eta materiala grabatu eta muntatzea, kasu honetan, **berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harreman afektiboak izateko eskubidea gaitzat hartuta**. Estereotipoak, genero rolak, sexismoa, maitasunari eta bikote harremanei buruzko mitoak, jarrera eta harreman "toxikoak"... azken finean, hausnarketa guztiak [La relación es cosa de dos - Berdintasuna harremanetan](#) bideoan jaso ziren. Neska-mutilen

hausnarketa prozesuaz eta lan guztiaren amaierako emaitzaz oso harro gaude.

Ikasturteko azken saio horretan kontseilari batzuk ere agurtu genituen; izan ere, bi urte eman eta gero, gurekin egin dako ibilbidea bukatu zuten, eta neska-mutiko berriei lekua utzi diete.

2016. urteko **azken bilera**, 2016/2017 ikasturteko lehenengo, azaroaren 26an egin zen Gasteizko Montehermoso jauregian, eta hamalau kontseilari berrien lehen harremana izan zen.

Kontseiluaren lehenengo saio honetan Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak haur guztiei aitortzen dizkien eskubideak landu genituen. Horretarako Lego Serious Play metodologia erabili genuen, Kontseiluak alde aurretik beste saioaren batean ere erabilitakoa (ikus Eusko Legebiltzarraren 2011 eta 2013ko txostenak, Haurren eta Nerabeen Bulegoko txostena). Metodologia horri esker hausnarketa, elkarrizketa eta pentsamendu sortzailearen prozesua sustatzen da. Parte hartzaileek galderen erantzunak Lego piezekin hiru dimentsioko ereduaren eraikuntzen bitartez eman behar zituzten; ondoren, kideekin ideiak trukatu behar zituzten.

Taldeka banatuta, neska-mutilek konbentzioa erreparatu zuten, eta bertan jasotako eskubide batzuen esanahian sakondu eta horri buruzko hausnarketa egin zuten elkarrekin; horrez gain, eskubide horiek gure bizitza pertsonalean zein neurritan konprometitzen gaituzten aztertu zuten.

Talde txikietan eskubideei buruz egindako hausnarketak gainerako kideen aurrean azaldu ondoren, eskubide bat hautatu zuten, eta ikasturtean zehar eskubide hori landu eta horretan sakonduko dute: entzunak izateko eta beraien iritzia aintzat hartzeko eskubidea.

2017. urtean zehar ikastaroaren hurrengo saioetan gai hori jorratuko dute.

IV

ATAIA

Haurren
eskubideak
errespetatzeko
kultura sortzen
laguntzeko jarduerak

IV. Atala

HAURREN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

42. artikulua

Estatu kideek hitz ematen dute Hitzarmenaren printzipio eta arauak jakinaraziko dizkietela modu eraginkor eta egokietan bai helduei bai eta haurrei ere.

1. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartzea ospatzea



Nazio Batuen erakundeko Batzar Orokorrak [Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa](#) (azaroaren 20a) onartzearen omenaldia Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunarekin (azaroaren 25a) batera egin zen 2016an, eta azaroaren 10ean Gasteizen egindako [Jardunaldia: emakume eta adingabeak sexurako salerosketa](#) jardunaldian gorpuztu zen.

Jardunaldiaren helburu nagusia herritarren sentsibiliziorantz bideratu zen, gizakien salerosketari dagokionez; gaitz horrek batez ere eta modu dramatikoan emakume eta adingabeei eragiten die, aski ezagutzen ez den neurrian. Aurrezpenean aurreratu zen moduan, gaur egun milioika emakumek, gizonek eta haurrek etxetik ihes egin behar izaten dute premia ekonomikoa, gatazkak, gerra edo mota askotako jazarpena dela medio. Testuinguru horretan, gizakien salerosketan aritzen diren trafikatzailen eskuetan erortze-

ko arriskua izaten dute askok; horrelako trafikatzailak ez daukate inolako muga moral edo etikorik, pertsonen bizitzak salerosten dituzte, salgai huts gisa hartuz, esklabo gisa saltzen dituzte eta bizitza autonomia krudeltasunez kentzen diete, baita babesteko edozein gaitasun ere, giza eskubideak sistematikoki eta modu higuingarrian urratuz. Dimentsio izugarriak dituen fenomeno bat da, nekez kalkula daitekeena, gure gizarteko pertsonen ahulenei eragiten die modurik latzenez, bereziki emakumeei, baita neskato eta mutikoei ere. Gizakien salerosketak agerian uzten du gizakiak arbitrarioki nola banatzen gaituen munduan daukagun jaioterriaren arabera, pobre edo aberats izatearen artean.

Jardunaldiak abiapuntu bat izan nahi zuen, Euskaditik *Europako Batasunaren estrategia pertsonen salerosketa deuseztatzeko (2012-2016)* ekimenaren helburuetan ekarpena egiteko abiapuntua, zehazki alor hauetan:

- gaiaren funtsezko garrantzia hedatzea, eta gaitz honek dakartzan giza ondorio larrien berri ematea Euskadin, horrela, gure gizartea eta gure erakundeak sentsibilizatzen laguntzeko, gaitz hori desagerrarazteko beharrari dagokionez;
- hausnarketa prozesu sakonagoa abiatuz eta gaiaren egoerari argia emateko ahalegina eginez, dimentsio guztietan: ideologikoa, giza arlokoa, soziala, juridikoa eta poliziala;
- ikuspuntu profesional eta lurraldeen ikuspuntuetatik iritziak trukatzuz, baita esku-hartze esparru edo diziplinetatik ere, denak gizakien salerosketaren aurkako borrokan inplikaturakoak eta bereziki biktimei arreta eman eta babestuz;
- etorkizuneko lankidetzarako oinarriak finkatzea, fenomeno izugarri honi buruzko ezagutza areagotzeko eta biktimei laguntzeko erantzun eraginkorrenei dagokionez, eta, azken finean, gizakien salerosketako edozein merkataritza modu desagerrarazteko.

2. Gizarte-eragileekiko lankidetzaz

Arartekoak eta, dagozkion kontuetan, Haur eta Nerabeen Bulegoak, bere jarduera-ildoan artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari, bai haien eskubideak jendarteratuz edo defendatuz, eta bai, askotan, batez ere egoera ahulean dauden neska-mutilentzako baliabide jakin batzuk kudeatuz.

Lankidetzaz-harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan, eta abar.

Harreman ohikoa eta jarraitua daukagu haur eta nerabeen eskubideak babesteko erakundeekin, hala nola Save the Children eta UNICEFekin, Euskal Herriko Batzordearekin. 2016ko ekitaldi garrantzitsuenak “Haurren aurkako indarkeria” jardunaldian parte hartzea eta Euskadiko errealitatea landu zuen “[Nik horretara ez dut jolasten](#)” txostena erkatzea izan zen, eskola jazarpenari buruzkoa, lehenengoaren kasuan, eta “[Berdintasuna haurtzaroan](#)” lan mintegia antolatzen parte hartzea, aipatutako bigarren erakundeari dagokionez.

Ezgaitasunen bat daukaten pertsonen esparruan, ezgaitasun, mendekotasun eta osasun arloko koordinatzaileek harremanak dituzte sektoreko elkarteekin; hala, horrek ekarri du aurten bilerak izatea [AVIFES](#), [APDEMA](#) eta [ACABE](#) elkarteekin. Ildo beretik, familia arloko arduradunak arlo horretako erakundeekin harremana dauka, oraingo honetan [Hirukide](#) elkartearekin. Aztertutako egoera edo arazo horrek haur edo nerabeengan eragin edo presentzia berezia daukan kasu guztietan elkarrekin egiten da lan, eta arazoan konponketan haurren ikuspuntua txertatzen da.

Babesik gabeko haurrei dagokienez, honako hauekin harremanetan izan gara:

- [AVAIM](#), haur eta nerabeen aurkako sexu indarkeriaren gaineko kezka partekatuz.
- [Bizgarri](#) eta [IRSE Araba](#), judizialki bideratuta familia topaguneetara ikuskaritza bisitak egiteko testuinguruan.
- SOS Arrazakeriak, familia erreferenterik ez daukaten adingabe eta gazte atzeritarren egoerari buruzko informazioa erkatuz.
- [Bizkaiko Gurutze Gorria](#), [Cáritas Gipuzkoa](#) eta [Cáritas Bizkaia](#), egoera ekonomiko prekarioan dauden eta adingabeen ardura daukaten familiek jasotako arreta eta egoerari buruzko informazioa bilduz.
- [Jolas eta Ekin](#), haur eta gazteekin lan egiten duten Honduras eta Guatemalako GKEek Euskadira egindako bisiten anfitrioi izan diren aldetik.

- [Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa](#), erakundera iristen zaizkien informazioen komunikazio formatua definitzeko, haur eta nerabeen eskubideak urratzea salatu bada edo horren susmoak egonez gero.

Urtean zehar, Arartekoa bizilagunen arteko bi liskarretan inplikatu da, eta bi liskarretan faktore komun bat zegoen: adingabe ugari zituzten ijitoen etniako familiei eragiten zien. Testuinguru horretan bilerak eta harremanak egin ditugu ijitoen herriaren erakunde sozialekin eta [Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluarekin](#). Gatazka hauei buruzko informazioari eta, bereziki, liskarrek erasaten dituzten adingabeei komunikabideek emandako tratamendua Euskal Kazetarien Elkartearekin egindako bileran landu zen.

3. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzaz

Modu berean, askotarikoak dira erakunde instituzional edota baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzaz aritzeko espazioak eta uneak. Solaskideetako batzuk honako hauek izan dira:

- Euskadiko Eskola Kontseilua.
- Etxebizitza Sailburuordetza eta Lanbide (egoera ekonomiko prekarioa eta adingabeak kargura dituzten familiei eragiten dieten egoerak).
- Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Gizarte Garapenerako zuzendaria.
- Berdindu zerbitzua.
- Biltzen zerbitzua.
- Arabako Gizarte Zerbitzuen diputatua eta diputatu nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol eta Gazteria zuzendaria.
- Hiru foru aldundietako Gizarte Ekintza / Gizarte Politika / Gizarte Zerbitzuen sailerako haurren zerbitzueta arduradunak (horietaz gain, hainbat zerbitzu, programa eta baliabidetako arduradunak).
- Emakunde. Erakundeen arteko talde teknikoa.
- EAEko Fiskal Nagusia, Gipuzkoako atzeritartasuneko fiskala eta fiskalburua, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako adingabeen arloko fiskalak.
- Bilboko, Gasteizko, Galdakaoko eta Lasarte-Oriako udalak.

Bilera horien testuinguruan, edo, hain zuzen ere, bilera horien ondorioz, Arartekoaren erakundeak politika publikoak eragin dituzten planak, protokoloak edota estrategiak bertatik bertara jakin ditu, eta zenbait egoera kezkarri erakunde eskudunei jakinarazi dizkie, artatu beharreko beharrian gisa formulatuta, edo esku-hartzean eskubideak bermatzea zehazte aldera.

Herritarren eskubideak politika publikoetan hobeto babestu eta zaintzeko lankidetzara ildo horretan, Haurren eta Nerabeen Bulegoa [Eskola Elkarbizitzarako Behatokiko](#) batzarren parte da, aurten 2016an deialdirik egin ez bazaio ere. Genero indarkeriaren eraginpean egon diren haurrei buruzko Emakundeko erakundeen arteko talde teknikoak gidatutako lan prozesuan parte hartzen jarraitu du.

Ohi bezala, herrien **beste defendatzaile** batzuetako haur eta nerabeen arloekin harreman bikaina daukagu; informazioa, irizpideak eta iritzia trukatzeko maiz gertatzen da. Aurten bereziki interesgarria izan da urtero [Haurtzaroko Elkarleen Plataformak](#) antolatzen duen Defendatzaileen Topaketan parte hartzea, Espainiar estatuan haurren eta nerabeen eskubideen egoerari buruzko balorazioak partekatzea eta horri buruz hitz egitea ekarri baitu, erakunde honek Haurren Eskubideen Batzordera igortzen duen txosten osagarriaren ekarpen gisa, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren jarraipen lan gisa.

4. Ekitaldietan parte-hartzea

Elkarte eta erakundeekin kolaboratzeko marko horretan zein Arartekoaren erakundeak berak gidatutako ekimenak izateagatik, arartekoak berak edo erakundeko langileek adingabeei lotutako hainbat foro eta topaketan parte hartu izana nabarmendu behar da, gure erkidegoan zein gure erkidegotik kanpo. 2016ko parte hartze nabarmenenak eta orain arte dokumentu honetan aipatu ez direnak honako hauek dira:

- FECAPP. *Baloreak haurrei eta nerabeei transmititzea*. Bilbo.
- EDE taldea. *Haurrak eta nerabeak babesteko lege berrien aldaketa nagusiak*. Bilbo.
- CIPI - Haurrak Babesteko Kontseilu Independentea *Euskadin haurtzaroren egoerari buruzko eztabaida*. Bilbo.
- Eusko Jaurlaritza. *Aitatasun eraldatzaileak, gizonak, emakumeak, hazkuntza eta boterea*. Bilbo, Donostia, Gasteiz.
- AVIFES. *Encantadas de hablARTE. Gaixotasun mentalak dituzten emakumeekin artearen bitartez hitz egitea*. Bilbo.
- Korapilatuz. *Haurtzarora eta nerabegarora gerturatzeko soziala gaur egungo krisian*. Irun.
- EFEA-Ronda Pirineos IV (FEAE Euskadi). *Demokrazia eta hezkuntzaren onura sozialak*. Vielha.
- Oficina de Defensa dels Drets del Menor de Illes Balears. *Neus canvis legislatius haurtzaroa eta nerabezaroran*. Palma Mallorcakoa.
- Agintzari. *Haurtzaroko legediaren aldaketak udal gizarte zerbitzuetan daukan eragina*. Bilbo.
- Innobasque-Hirien Sarea. *Haurren eta nerabeen parte hartzerako eskubidea*. Zamudio.
- Comillasko Eliz Unibertsitateko "Zuzenbidea eta Adingabeak" Santander katedra. *Haurren interes gorena haurtzaroa eta nerabezarora babesteari buruzko Espainiako legedian*. Madril.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. *30. urteurreneko ekitaldia*. Donostia
- Bizkaiko Foru Aldundia. *Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saila Adingabeen egoera eta babes beharra adin nagusira iristerakoan*. Sondika.
- UNICEF. *Berdintasuna haurtzaroran*. Bilbo.
- Haurtzaroko Elkarleen Plataforma *Defendatzaileen betebeharra bermatzaile gisa*. Madril.
- Galdakaoko Udala. *Gizarte Zerbitzuen topaketa: nerabegaroa*. Galdakao.
- Save the Children. *Haurtzaroren aurkako indarkeria*. Bilbo.
- Gure Sarea-EHU. *Haurren sexu abusuak*. Leioa.



ATALA

Haur eta nerabeen
eskubideen
egoera baloratzea

V. Atala

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEEN EGOERA BALORATZEA

Hurrengo paragrafoetan, Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2016an egindako jardueretan eta balorazioetan aipagarriena izan dena aurkeztuko dugu.

Haurrak eta nerabeak berriaz aipatu dituzten edo horiek tartean dituzten kexa-espeditenteak, 2016an, 521 izan dira, eta Ararteko erakundearen aurkeztutako kexa guztien %20,45 izan dira. Zenbaketa horretan sartu ditugu alde batek eskatutako kexa-espeditenteak (489), partikularrek edo erakundeek ezarrita dauden sarbide ezberdinen bidez (bulegoen, web-gunearen, posta elektronikoaren bidez) aurkeztu dituztenak, bai eta ofiziozko espeditenteak ere (32), erakundearen ekimenez ireki direnak, zaurgarritasun maila jakin bat edo haurren eta nerabeen beharren arreta ezegokia dagoelako susmoa egon denean, egoera horiek aztertzeko eta jarraitzeko xedez.

Haurren garapenerako egokia den bizitza-maila izateko eskubideari dagokionez, diruz estu bizi diren familien (bizikidetzak-unitateak) erreklamazio nahikotxo heltzen arri dira; familia horietako batzuen egoera oso larria da eta seme-alabak dituzte bere kargu. Hain zuzen ere, 2012tik, aurretik ere modu lausotuago eta orokorragoan egin bazen ere, erakunde hau zenbait ekimen garatzen ari da egoera horiek eraginkortasunez kudeatu ahal izateko jarduketak ezagutzeko eta proposatzeko. Zalantzarik gabe, egoera horiek haur eta nerabe horien funtsezko eskubideak urratzen dituzte eta horien garapenerako aukerak murrizten dituzte. Azterlanak, diagnostikoak, eztabaida-foroak eta proposamen ugari kexa partikularren espeditenteen esparruan. Horietako batzuk bizikidetzak-unitate horietako seme-alabekin zuzenean lotutako jarduketetan gauzatzen dira (ezgaitasuna edo menpekotasuna duten haurrak; esku-hartze sozialeko programetan konprometituta dauden familiak horiek diru-sarrerak bermatzeko sistemaren betekizunekin bateragarriak ez direnean; guraso-lana proposatutako lan-eskakizunekin bateratzeko zailtasun itzelak dituzten guraso bakarreko unitateak, etab.). Beste egoera batzuetan, haurrak bizi-baldintzak gutxienekoak diren egoera orokor batek ukitutako pertsonetako batzuk “baino ez” dira.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren gutxieneko sarrera horiek ukatzeak edo kentzeak haurren eskubide eta interes gorenean duen eraginaren inguruko hausnarketa hori dela-eta, hain zuzen ere, 2015ean, gomendio orokor bat igorri zen. Hala, 2016an gomendio horren jarraipena egin da. Lanbide ez dago ados erakunde honek emandako argudioekin; horiek hemen daude jasota: Haurren Eskubideen Komitearen [14. Ohar Orokorra](#); Europako Batzordearen “Haurtzaroen inbertitza: desabantailen zikloa apurtzea” Gomendia eta Haurrak babesteko sistema aldatzeko [uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa](#).

Nolanahi ere, haur-pobretasunari buruz hitz egitean ez gara haurren orainaz ari soilik. Pobretasunaren inguruan zehaztasunez hitz egiteko, adituen ustez, denbora-ikuspuntua hartu behar da kontuan. Horrela, [pobretasunaren belaunaldi-transmisioaren](#) terminoetan hitz egitea saihestezina da. Izan ere, pobretasuna gurasoek seme-alabei helarazten diete, belaunaldiz belaunaldi, oinordetzan hartu daitekeen zerbait balitz bezala eta, alegia, bada. Eskurik hartzen ez badugu, Europako Batzordearen gomendio horretan azpimarratzen den bezala, pobretasuna transmitituko da. Hor-taz, belaunaldien artean desabantailak transmititu daitezela saihestea ezinbesteko inbertsioa da Euskadiren etorkizunerako, eta epe luzerako onurak ekarriko dizkie bai haurrei, bai ekonomiari, bai gizarteari, oro har hartuta.

Planteamendu horietatik, itxaropentsua da Eusko Jaurlaritzak egindako iragarkia; hala, familiengan eta haurren inbertitzeko estrategia bat sustatuko du. Estrategia hori erakundearen artekoa izango da, egonkorra eta irismen handikoa. Horretarako, Haurren eta Familien aldeko Herrialde-itun bat ezarriko da eta horrek, besteak beste, haur-pobretasunaren prebentzioari erantzungo dio, baita berdintasunaren erreproduktzioari ere. Iragarritako estrategiak garrantzi handia izango duela suposatzen da; hala, horrelako erabaki batek ahalegin handia eskatzen du eta, agian, denbora ere bai. Hala eta guztiz ere, ekimena zuzentzeko eskumena duen sailak urtearen amaieran erantzun zuen aldaketa baterako oinarriak jartzen ari zirela baina aldaketa hori “*ez dela ikusgarria izango epe laburrean, eztaertainean ere*”. Hori kezkarria da erakunde honentzat;

horregatik, beste jarduketa osagarri edo aurrendari batzuk egin daitezkeen eskatzera animatzen du, estatusun ekonomiko eta desberdintasun sozialeko egoerei arreta ematen zaiela bermatzeko, konponbide integralak, irmoak eta egiturazkoak heldu bitartean.

Horietako jarduketa bat da, “epe laburrean” diru-sarrerak bermatzeko sistema. Hala, sistema hori nabarmendu behar da, hobe daitekeen arren. Izan ere, pobretasun-tasak eusten laguntzen du eta, oro har, ondorio positiboak ditu gizarte-kohesioan eta pertsonen eta erkidegoen ongizatean. Zenbait azterlanek adierazi duten bezala, sistema horri esker, pobretasun-egoeran dauden familien herenaren egoera hobetzen da eta pobretasun-atalaseak gainditzen dituzte (marjina handiarekin ez bada ere). Hala, beste heren bat muturreko pobretasun-egoeratik atera daiteke sistema horri esker.

Horrez gain, neurri handi batean, sistema horrek azaltzen du pobretasun erreala Euskadin elikadura-arazo larriekin lotuta ez egotea. Hori horrela da horren inguruan ohartarazten zuen “*Haur-pobretasunaren eskualde-eragina Euskadiko Autonomia Erkidegoan EPDS 2012*” txostenak emandako datua gorabehera. Horrez gain, 2015ean lehen mailako arretako osasun-profesionalen bidez egindako ikerketek eta 2016an familiekin zuzenean lan egiten duten erakunde sozialekin egindako ikerketek ez dute hori baieztatzen. Kontsultatutako pertsona guztiek adierazi dute ez dituztela egiturazko arazotzat hartzen kausa sozio-ekonomikoek eragindako elikadura eskasiako egoerak. Horrek ez ditu kasu zehatzak baztertzen, ezta dieta eskastzat hartu genezakeena ere (elikagaien aniztasun eskasa).

Egungo pobretasun-egoerei erantzuteko hartutako neurri dagokionez, ezin dugu ahaztu euskal udalek egindako ahalegina. Izan ere, horiek, gizarte-larrialdiko laguntzen edo beste udal prestazio ekonomiko batzuen bidez, batzuetan zuzenean eta beste batzuetan antolatutako gizarte zibilaren laguntzarekin, diru-sarrerak bermatzeko errenta heltzen ez den kasuetan osatzen dute eta konponbide zehatzak ematen dituzte.

Nolanahi ere, bloke hau ixteko, azpimarratu nahi dugu esku-hartze goiztiarra eta prebentzioa funtsezkoak direla politika eraginkorrak egiteko; izan ere, sufrimendu dosi handiak ekiditeaz gain, merkeagoa izango da (gastu publikoari dagokionez) egoerak hain larriak ez direnean esku hartzea, pobrezia eta gizarte bazterketa larriagoaren ondorioei arreta ematea baino.

Hezkuntzarako eskubideari buruz, Arartekoaren ustez, hezkuntza ituna lortzea lehentasunezko helburu edo asmo ukaezina izan behar da, eta horri esker gure sistemari behar dion egonkortasuna emango diogu. Horrez gain, Hezkuntza Saileko arduradun berriekin orain arte erakunde honekin izan duten kolaborazio ildo berberarekin jarraitzea espero du Arartekoak; izan ere, beti esan dugun moduan, herritarrek eta zenbait hezkuntza eragilek eskatuta izapidetu diren keken errealitatea hezkuntza zerbitzu publikoaren prestazioan hobekuntzak txertatzeko baliagarria izan daiteke, bikaintasuna lortu nahi duen zerbitzu honetan, eta Arartekoak ez dio horri lepoa ematen.

Kolaborazio horren emaitzen adibide batzuk dira ikasleak onartzeko prozesuan lehen aldiz egin diren aldaketak, eroldako datuei gehiegizko garrantzia ez emateko, bereziki Gasteiz hiriaren kasuan ondorio nabarmenak eragin baititu. Arartekoak kasu honetan hezkuntza arloko arduradunek izan duten inplikazio berezia nabarmendu besterik ezin du egin; bidenabar, bide beretik jarraitzeko animatu nahi ditu.

Hezkuntza administrazioa onarpen prozesu horietan aplikatzen diren irizpideak berraztertu beharraz ere jabetu da, gurasoetako bat zentroko ikasle ohia izatearen gaineko irizpidea zalantzan jartzen zuten kexa puntualen espedienteak izapidetzearen ondorioz.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da askotan, ikasleak onartzeko irizpideak zalantzan jartzen direnean edo irizpide horietakoren bat gehiegi erabiltzen ari dela salatzen deanean, horren atzean benetan dauden auziak askoz sakonagoak direla. Hala gertatu da, adibidez, ikasle etorkinen banaketaren auzian; aurten gai horrek kezka nabarmena eragin du Gasteizen, eta hiriko zenbait ikastetxetan sortzen ari ziren ghettoen egoera bideratzeko irizpideak finkatze aldera erakundeen arteko mahai bat sortu da. Gauza bera gertatzen da hezkuntza programazio edo plangintzako zenbait erabaki zalantzan jartzen direnean. Bestek beste, Miribilla (Bilbo) bezalako hezkuntza eremu edo Eibar bezalako udalerriri dagozkionak aipatu behar dira.

Baina atzerriko jatorria daukaten ikasleen gaira bueltatuz, aipatu behar da 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana berriki aurkeztu dela, eta ikasleak onartzeari lotuta erakunde honek xedatu dituen hainbat proposamen jaso dira bertan. Plan horrek aldizka berrikusi eta jarraipena egiteko konpromisoa jaso du; gure iritziz, arreta berezia eskaini behar zaio horri, nahikoa ez dela aldarrikatu duten iritzi kritikoak bideratzeko baliagarria izan daitekeen neurrian.

Ezgaitasunen bat daukaten ikasleak Diseinuko Goi mailako Arte Irakaskuntzara sarbidea izateko probetan txertatutako aldaketek osatzen dute erakunde honen eta hezkuntza arloko arduradunen arteko kolaborazioaren beste emaitzetako bat. Aurreko konpromiso bat betetz, aurtengo (2016. urtea) proba antolatu, garatu eta ebaluatze emandako jarraibideetan eskaintako plazen % 5 erreserbatu da % 33 edo gehiagoko ezgaitasun maila aitortuta daukaten ikasleentzat.

Ezin da gauza bera esan ezgaitasunen bat daukaten ikasleek erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloetara sarbidea izate aldera erakunde honek planteatutako iradokizunari dagokionez, aurreko eskolatzeko fasean erabateko hezkuntza normalizazioa lortzeko laguntza eta baliabideak behar izan dituzten ikasleei ezarritako erreserba handituz. Kasu horretan, hezkuntza arduradunak ez dira bat etorri proposatu zitzaie iradokizunarekin. Horregatik, gure asmoa gai hau errepikatzea da.

Lanbide heziketako ikasketekin jarraituz, aurkeztutako kekek agerian utzi dute horrelako ikasketak egiteko nahia gero eta handiagoa dela, eta ez zaio beti erantzuna ematen,

lehentasun eta preferentzia agindu batzuk aplikatzen direlako; ikasturte honetan Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) sartutako zenbait aldatzek eragina izan dute, erdi mailako lanbide heziketako zikloetara sarbidea izateko baldintzei dagokienez. Hala ere, Arartekoaren aburuz, horrek ez du esan nahi eskaera handiena daukaten irakaskuntza zikloen eskaintza areagotzeko aukera baztertu behar denik.

Oraindik ez da behar bezala konpondu zer erantzun eman go zaien neska-mutil jakin batzuen prestakuntza-beharrei, 2015-2016 ikasturtean Oinarrizko Lanbide Heziketa ezarri ondoren eta 2014-2015 ikasturteko hasierako lanbide prestakuntzako programak eta prestakuntza iragankor bateratua emateko programak kendu ondoren. Horrela, 2015. urtearen amaieran adierazi ziguten 17 urtetik gorakoentzat ikastaro/modulu batzuk abiarazteko asmoa zegoela, I. mailako lanbide ziurtagiria lortzeko, Lanbide finantzatuta eta Osabidezko Hezkuntzako partzuergoek emanda. Hala ere, erakunde honek dakienez, ez dira inolaz ere gauzatu dekretu horretan ezarritako aukerak. Enplegurako prestakuntzako azpisistema ere ez da behar bezala erantzuten ari gazte talde horren lanbide prestakuntzako beharrei. Gazte horiek denak “egoera txarrean daude gizartean”.

Beste gai batzuei dagokienez, hezkuntza beharrian be-reziak dituzten ikasleen gaineko kexa kasuetan hezkuntza arduradunek izandako kolaborazio jarrera ere nabarmendu behar da; oro har, kaltetutako familiei behar bezalako erantzun azkarra eman zaie.

Jarrera berezi horri esker, Gasteizko Gorbeialde HBI zentrori doazen ikasleen eskolatze baldintzen inguruan jasotako kexak laster bideratu ahal izatea espero dugu; EAEko hezkuntza bereziko zentro publiko bakarra da Gorbeialde HBI, eta erakunde honek ez du baztertu ofiziosko jarduketa hastea, ikasle horien osasun beharri zaien erantzuna aztertzeko, horren ondorioz Legebiltzarrean legez besteko proposamena onartu baita.

Eskola-jazarpenean gero eta sarriago agertzen dira internet eta teknologia berriak. Gai horrek hedabideen arreta izan du 2016an barrena, eta, horren ondorioz, ez da beti lasai eta egoki jorratu. Erakunde honek, beste erakunde batzuek (adibidez, Save the Childrenek) gai horretaz egindako azterketekin bat etorri, berdin arteko jazarpenak biktimentzat dakartzan ondorio garrantzitsuak abiapuntu hartuta, bi gauza saihestea proposatzen du: bata, gauzak puztea, eta, bestea, berdinen arteko tratatu txarrak ukatzea. Bestalde, onartzen du eskola ez dela indarkeria horren sortzailea, ezta ere hori gauzatzen den toki bakarra, baizik eta konponbidearen zati bat.

Babesik gabe dauden haurrentzako **gizarte zerbitzuen** eremuan jasotako kexak, batez ere, haurrentzako zerbitzuen balorazioarekiko desadostasunari buruzkoak izaten dira, hau da, seme-alaben babesgabetasuna, guraso-ahalaren etetea eta foru erakundeak horien zaintza hartzea ondorioztatzen duten balorazioekiko desadostasunari buruzkoak. Demanda horietako asko, ehuneko handian, bide judizialean bideratu dira. Horiekin batera, ordea, balorazio,

komunikazio eta informazio prozesuarekin zerikusia duten bestelako kontuak helarazten dira. Horien gainean esku hartzen dugu, eta, oro har, ez da hauteman administrazioak egindako jardura okerrik.

Azkenengo bi urteetan zehar, Arartekoaren ekimenez abiarazitako jarduketa bat burutu da; horren bidez, jakin nahi zuten nola bermatzen ari den babesik gabeko haurrentzako foru gizarte-zerbitzuetan arreta jasotzen duten haurrek eta nerabeek entzunak izateko, ukitzen dituzten kontuetan iritzia adierazteko eta iritzi hori kontuan hartua izan dadin duten eskubidea. Urtearen amaieran, Arabako Foru Aldundiak egindako inprimakiak eta prozedura jaso ziren; hala, horiek egin zituen entzuna izateko eskubidea kontuan hartu behar den prozesuak hobetzeko aurretik hartutako konpromisoari erantzuteko. Erakunde honen ustez, hauxe da panorama: foru zerbitzuek zerbitzuak erabiltzen dituzten adingabeak entzutea hartzen dute kontuan eta hori garatzen dute sistematikoki, adingabeen iritziak aintzat hartuz.

Egoitza-harrerako baliabideen sareak okupazio-maila oso altua dauka. Edonola ere, horren ondorioz, ez da haur edo nerabe bat arretarik gabe geratu zerbitzu egoki bat ez egoitegatik. Dirudienez, hauxe ez da egoeraren araberrako kontu bat. Hortaz, foru erakundeek plazak, zentroak, zerbitzuak eta programak sortu dituzte, haurren eta nerabeei horien beharretara egokitutako erantzunik eraginkorrena emateko. Gure ustez, zailtasunak gorabehera, sare dinamiko bat daukagu, errealitate sozialak eskatzen dituen beharrik kontuan hartzen dituen.

Horrez gain, familia-aukerak bilatzeko esfortzuak egiten jarraitzen da, horiek haurren interesaren aurkakoak badira izan ezik, hartutako banatzeko neurriak eratzeko. Ez daude harrerarako eskaintzen diren eta horretarako egokiak diren familia ugari eta hori da arazo nagusietako bat, konpontzeko erraza ez dena. Adopzioarako eskaintzen eta eratatutako adopzioen inguruko datuei dagokienez, azkenengo urteetako antzeko mailatan jarraitzen dute, orain dela hamarkada bateko zifretatik oso urrun.

Desagertu ez badira ere, murriztu egin dira laguntzarik gabeko atzerriko adingabeek jarritako kexak harreran jarduteko moduari dagokionez. Hala, aurtan, aurreko denboraldietako beheranzko joera apurtu da; kasu batzuetan, heldueren zifra berreskuratu dira eta 2012ko zifren antzekoak dira. Ez da kexarik jaso Fiskaltzak dokumentazioa jasotzeko buruz emandako dekretuetan adierazitako datari baliotasun handiagoa emateko irizpidearen inguruan. Hala, zailtasun nagusiak gazte horien emantzipazio prozesuetan ematen dira (gutxienez, gazte horien talde batean), behin adin-nagusitasuna betetzean.

Arartekoaren ekainaren 17ko *“Bakarrik dauden adingabe / gazte etorkinen arretarako bermeak”* 5/2013 Gomen-dio Orokorraren jarraipenari dagokionez, erakunde honek uste du oso positiboa dela euskal lurraldean dauden adingabeei edo ustezko adingabeei ematen zaien berehalako arreta (behin-behineko zaintza). Hala, ez dago ados foru zerbitzuen jardunbide batzuekin; nolahi ere, horien jarduketa laguntzarik gabeko atzerriko adingabeekin lotutako

jarduketan inguruko Esparru-protokoloan xedatutakoan oinarritzen da. Aurreko paragrafoan adierazten den bezala, gabeziarik nabarmenenak gazte horietako askok adin-nagusitasuna betetzean jasotzen duten babesean daude: enplegua eta etxebizitza lortzeko zailtasunak; sar daitezkeen prestakuntzako eta lan-trebakuntzako programen murrizketa eta gizarteratzerako zerbitzuetatik eratutako programen eta prestazio ekonomikoen ahultasuna.

Urteak eman ditugu esaten beharrezkoa zela behar bezala kudeatzea haur eta nerabeen aurkako tratu txar larria, hau da, sexu-abusua. Hala, 2016an, dirudienez, baldintza egokiak eman direla ematen du, gutxienez, orain arte demanda horien berri izan ez duten eremu desberdinetatik erantzun egokiak eskatzen hasteko. Horren erakusgarria da eduki hori gero eta gehiago jorratzen dela urtean zehar egindako jardunaldi, seminario eta ikastaroetan, baita erakunde honek Justizia Auzitegi Gorenaren Gobernuaren Salarekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Fiskaltzarekin dituen lan-saioetan ere. Horrez gain, erakunde hau abokatutzaren ordezkari gaituekin elkartzen da, gure epaitegietan horien aurrean agertzen diren haurrei, biktima edo lekuko gisa, ematen zaien arreta aztertzeke sexu-abusuzko balizko kasuetan. *Hezkuntza-arloko Protokoloa, adingabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoetarako eta Hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinaziorako izeneko protokoloa*, kasu honetan artikulatutako eta koordinatutako lankidetzako erantzun gisa, ukitutako haurren eskubideen urraketa larriari arreta emateko aurre-rapausoen erakusgarria ere bada.

Familia babesle bat izateko eskubidea dela eta, gurea bezalako gizarte garaikide europarrek erronka demografiko bat dute gaur egun: seme-alabak dituzten familien zailtasun ekonomikoak areagotu dira; zailtasuna gehiago daude gizarte-mugikortasunerako eta aukeren berdintasunerako eta pertsonen familia-proiektu bat hastea eta nahi adina seme-alaba izatea eragozten duten oztopoak mantentzen dira. Egoera horren aurrean, Arartekoak irmoki defendatzen du seme-alabak dituzten familiengan egiten den inbertsio ekonomikoa nabarmen handitu behar dela, Eusko Jaurlaritzak 2016an iragarritakoarekin bat etorritz. Horrez gain, uste du beharrezkoa dela familia-proiektuak eta gure gazteen emantzipazioa errazten dituzten baldintzak erabakitasunez bultzatzea.

Familien aldeko apustu hau, gure ustez, honako eremu hauetan zehazten da, aurreko urteetan adierazi dugun bezala: ekonomia edo finantza arloan neurriak hartu behar dira, familiei laguntzeko politiketan gehiago inbertitzeko, baina ez hori bakarrik. Aurten bideratu diren kexetan izan duen eragin bereziagatik, azpimarragarriak dira araudiaren eremuan hartutako neurriak. Erakunde honen iritziz, araudiaren eremuan komenigarria da familia ugarien inguruko Estatuko legeriaren aplikazioak sortutako disfunczio asko argitzeko, euskal eremuan berezko arauketa bat sortzearen aukera aztertzea, familia horiei aitortzen zaizkien estatusa eta onurak argitzeko, edo hala badagokio, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legean familia ahulenen inguruan ezarritakoaren arabera, bere kargu seme-alabak

dituzten familiei laguntzeko neurri bultzada berri bat ematen dien arauketa bat. Ekimen arautzaile hori interesgarria da eta, bereziki, guraso bakarreko familiei dagokienez, familia horiek ahulagoak direlako. Zentzu horretan, gogorazi behar dugu lege horrek euskal herri-administrazioei helarazten diela derrigorrezkoa dela oztopoak kentzea eta jarduketa-neurri positiboak hartzea, ahultasun bereziko egoera batean dauden familiei laguntzera bideratutakoak. Hala eta guztiz ere, puntu honetan, gure legeria ez dago guztiz garatuta eta, autonomi erkidegoko beste araudi batzuek ez bezala, ez du mugapen-jarraitibiderik edo definitziorik jasotzen, zehaztasunez identifikatzeko zeintzuk diren guraso bakarreko familiaren eredian sartzen diren familia-unitateak. Izan ere, orokorrean baino ez du adierazten beharrezkoa dela ahultasun bereziko egoera batean dauden familiei babes gehiago ematea eta horrek, azken batean, babes berezirik gabe uzten ditu guraso bakarreko familiak. Adierazi behar da guraso bakarreko familia horietako titularrek -emakumeak batez ere- zailtasun gehiago dituztela seme-alabak zaindu eta hezteko eta, bereziki, laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko.

Txosten orokorrean baieztatu genuenez, bateragarritasuna oraindik ere erronka handia da egungo familientzat. Horrekin batera, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren berriarazko txosten honetan adierazi nahi dugu gazteei emantzipatzen lagundu behar zaiela.

Familien aldeko apustua egiteak estrategiak ezartzea esan nahi du eta neurri desberdinak pentsatzea eta sustatzea, **gure gazteen emantzipazioa bultzatzera** bideratutakoak. Izan ere, gazteek bereziki jasaten dituzte krisiaren eta langabeziaren ondorioak; hori dela-eta, ezin diote bizitzako proiektu autonomo bati aurre egin, horrela jatorrizko familiekiko menpekotasuna luzatzen.

Aurten ere, **osasun-eskubidearen** inguruko kexa asko atzerriko pertsonen osasun-arreta jasotzeko dituzten zailtasunen ingurukoak izan dira. Txosten honetan, aipatu ditugunak haurdun dauden emakumeek eta adingabeek osasun-arreta jasotzeko dituzten arazoetan oinarrituta daude. Hori horrela da haurtzararen inguruko legeriak azpimarratzen badu ere Espainiako herritartasuna duten haur eta nerabeek dituzten eskubide berak dituztela.

Atzerriko pertsonen eremuan, Arartekoak ofiziosko jarduketa bat hasi zuen jaioberriak diren adingabe atzerriarrek eskubidez jaso dezaketzen osasun-laguntza jasotzeko dauzkaten zailtasunen berri izan zuenean. Arazoa ez da osasun-arreta jasotzeko unean sortu, medikuak agindutako prestazio osagarriak eskuratzekoan baizik, esaterako farmazia-prestazioa. Hori gertatzen da umea jaiotzen denetik haurren gurasoek jatorrizko herrialdeetik administrazio eskudunak (GSINak edo Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, kasuaren arabera) laguntza jasotzeko eskubidearen aintzatespena izapidetzeko eskatu dien dokumentazioa lortzen duten arte igarotako denboragatik. Osasun Sailak adierazi zuen instrukzioak zuzendu zituela osasun-zentro guztietara kasu horietan nola jardun behar den jakinaraziz. Hala ere, kontsultatutako iturri batzuen arabera, haurrei arreta emateko ardura duten osasuneko profesional guztiek ez dute

jarduteko moduaren inguruko informazio hori ezagutzen. Hori dela-eta, informazio osagarria eskatu zaio Osakidetzari.

Aurten, elikadura-portaeraren nahasmendua duten pertsonak babesteko elkarteek azaldutako zenbait alderdien jarraipena ere egin da, zehazki, paziente larriak sartzeko unitate espezializatu bat sortzeko demandari eta jantoki terapeutikoko zerbitzuak osatzeko beharrari dagokienez. Unitate espezializatuari dagokionez, zenbait gogoeta mota dela-eta, ezinezkoa izan da unitate hori garatzeko moduaren gainean ados jartzea. Jantoki terapeutikoei dagokienez, ordea, jakina da baliagarriak direla, baldin eta laguntza-eskema koherente eta koordinatu batean sartuta badaude. Osakidetza erantzunean, gogorarazten da, egitura horien ikuspuntua eraginkorra den arren eta egungo baliabideen mugaketa aitortzen bada ere, aurrekontuarekin lotutako eragozpenak daudela hori egiteko eta horiek ezin direla saihestu. Horri erantzunez, Arartekoak gomendio bat egin du; hala, gomendatu dio hurrengo aurrekontu-ekitaldirako aurreikuspenetan erakunde publiko horrek antzemandako gabeziei aurre egiteko beharrezkoa den zuzkidura jasotzeko.

Aurten, *Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea* onetsi egin da eta Arartekoak adingabeek edari alkohol-dunak eskuratzea kontrolatzeko udal-jarduketa aztertu du. Ondorio gisa, adierazi du egia esan egiaztatu dela neska eta mutil adingabeen edari alkohol-dunen kontsumoa kon-
tu konplexu bat dela. Hala, beharrezkoa da eragile guztien lankidetzara, erakunde-eragileena, eragile sozialena eta partikularrena. Oraingoan, beste une batzuetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza edo Osasun Sailarekin egin izan duen bezala, orogarri bat zuzendu die euskal udalei. Horren bidez, udalerrietan neska eta mutil adingabeei ematen zaien alkohola kontrolatzeko dituzten legezko betebeharrak gogorarazi dizkie.

Arartekoak **justizia** administrazioaren eremuan egiten duen esku-hartzean, mugaketa argi bat dago, hain zuzen ere, erakundea arautzen duen legean. Izan ere, lege horretan ezartzen da erakundea ez dela sartuko gai batzuetan, horien inguruko epai irmoa eman bada edo egoitza judizialean badaude. Hala eta guztiz ere, haurren eta nerabeen eskubideak babesteko eginkizunetan erakunde desberdinei esleitutako eginkizunak biltzen dira. Batetik, adingabeen Fiskaltzari esleitutakoak eta, bestetik, horien eskubideak defendatzen dituzten erakundeei esleitutakoak, Arartekoaren kasua bezalaxe. Hori dela-eta, praktikan, etengabeko komunikaziorako bide bat dago irekita; horren bidez, bi erakundeek informazioa partekatzen dute maiz eta kudeaketak egiten dituzte elkarrekin.

Bestalde, 2015ean, Administrazio Publiko eta Justiziako Sailak zenbait jarduketetan hartu du parte, besteak beste, epaileak agindutako kontsultagatik egindako familia-topaguneko puntuetan edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren jardueran. Jarduketa horietako batzuk azaltzen dira txosten honen beste atal batzuetan, gure ustez, herri-tarren intereseko eremuetara gehiago egokitzen den aurkezpen bat egite aldera (eta ez dagokion administrazioak antolatutako aurkezpena).

Joan den urtean esku-hartze bat iragarri zen haur arau-haulei emandako arretari dagokionez; hala, haur horiei, 14 urte ez izateagatik, ez zaie adingabeen erantzukizun penala arautzen duen 5/2000 Lege Organikoa aplikatzen eta babes-sistemara bideratzen zaie. Esku-hartze hori 2016an bukatu da, horren ondorioak 2017ko hasieran aurkeztuko diren arren. Dokumentuak babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako fiskaltzek, foru zerbitzuek eta udal zerbitzuek emandako informazioa eta iritziak jaso eta partekatzen ditu, Euskadin (hiru lurralde historikoetako bakoitzean ñabardura ezberdinekin) agintaritzek adingabe hauekin lotuta jarduten duten prozeduren ezagutza hobea izateko helburuz eta ahultasun elementu nagusienak ikusgarriago bihurtuz.

Poliziaren eremuan, kexaren bat jarri da poliziaren eginkizuna gauzatzeari dagokionez; baliteke eginkizun hori gauzatzeari, noizbait, adingabeen eskubideak arriskuan jarri izana. Horri dagokionez, adierazi behar da egiaztatu berri dela Ertzaintzaren atxiloketa-zentroetan adingabeak zaintzeko gela espezifikorik ez dagoela eta adingabeentzako atxiloketa-liburu espezifikoei dagokienez jardunbide desberdinak daudela; urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikaren Araudiak eskatzen ditu horiek.

Jolaserako, atsedenerako eta aisialdi eta dibertimenduzko jardueretarako eskubideari dagokionez, kexa gehiago jaso dira Espainiako Futboleko Federazio Errealak atzerrian jaiotako nerabeei federazio-lizentzia igortzeko eskatzen dizkien dokumentu-errekerimendu berezien inguruan. Horien aurrean, dagokion Eusko Jaurlaritzako sailak arintasunez jardun du eta disfuntzio horiek konpontzeko beharrezko kudeaketak egin ditu.

Euskal eskola-kirol ereduaren zenbait alderdien inguruko kexak jarri dira, maizago, eredu hori Gipuzkoako kirol-programan gauzatzeari ingurukoak. Horiek direla bide, erakunde honek azterketa eta hausnarketa sakonagoak egin ditu pertsonen eskubideetara (funtsean, haurren edo nerabeen interes gorenera) ahalik eta gehien egokitzen diren helburu, printzipio eta garapen-moduen inguruan. Erakunde hau bat dator indarreko eskola-kirol ereduarekin eta hori positiboa dela uste du; izan ere, eskola-kirolaren osagai hezitzailea azpimarratzen du. Hala eta guztiz ere, batzuetan, printzipio horiek hartzen duten forma zehatzak edo helburuak lortzeko formulak arazoak edo disfuntzioak sortzen dituzte eta horiei konponbide bat eman behar zaie. Hala, bulego honek eginkizun hori burutu du, ebazpen eta gomendio orokorrak igorri eta hausnarketa eta eztabaidarako espazioak partekatuz.

Haurrek eta nerabeek parte hartzen duten aisialdiko eta denbora libreko jardueren inguruko gaietan Arartekoak egindako esku-hartzearen bi elementu nagusiak hauek izan dira: batetik, gurasoen eta jarduera egiten duten langileen arteko harremana eta informazioa, bereziki gerta daitezkeen antsiatate edo tentsiozko egoerak kudeatu behar direnean. Gure esperientziaren arabera, kasu horiek zehatzak dira eta gaixotasun batengatik edo ez egokitzeagatik gertatzen dira. Bestetik, ezgaitasunen bat edo hezkuntza-behar bereziak dituzten haur eta nerabeek berdintasun-baldintzetan parte hartzea herri-administrazioek antolatutako aisialdiko jardueretan.

Diskriminatuak ez izateko eskubidearen epigrafearekin, hauxe adierazten dugu:

- Urtero adierazten dugu atzerriko pertsonen seme-alaba ugari pobretasun-egoeretan daudela. Horrez gain, 2016an, lehenengo aldiz, euskal hezkuntza-sistemak ikasle bati hiyab edo belo islamikoa jantzita sartzeko debekuari aurre egin behar izan dio. Horri erantzunez, Hezkuntza Sailak gomendio batzuk helarazi dizkie euskal zentroetako hezkuntza-erkidegoei, antolakuntza eta funtzionamenduko araudietan sartu beharreko edukiari dagokionez, eskola inklusiboaren eta aniztasunaren arretaren hezkuntza-esparru pedagogiko berrian. Halaber, esparru horretan, ikasle imigranteei arreta emateko II Plana eratu da. Horren bidez, beste kontu batzuen artean, adierazi den bezala, zentro batzuetan, bereziki, Gasteizen ematen ari diren “ghettifikazio” arazoei aurre egin nahi zaie.

Osasun-eremuan, atzerriko haur eta nerabe batzuek osasun-arreta jasotzeko dituzten zailtasunak kudeatu ditugu. Hori egin behar izan dugu, legez, estatuko haurrek duten osasunerako eskubide bera dutela ezarri arren. Bereziki azpimarratu behar da euskal ospitaleetan jaiotako atzerriko familietako haurrek zailtasunak dituztela osasun-arreta osoa jasotzeko, prestazio farmakologikoak barne. Izan ere, horien arreta osoa oztopatuta egoten da jatorrizko herrialdeetako egoitza diplomatikoetan dokumentazioa izapidetu arte; batzuetan, herrialde horiek urrun daude eta izapidetzeak egitea garestia izaten da.

Azkenengo kontu bat aipatuko dugu baina ez ona delako, baizik eta horretan gabezia dagoelako; kontu hori errefuxiatuei emandako arreta da, bereziki haur errefuxiatuei emandakoa. Arreta hori ez da euskal administrazioek aurreikusi eta ezarri zuten intentsitate berean ematen ari. Izan ere, oraindik ez dira lurraldera heldu.

- Lanean jarraitzen dugu haur eta nerabeen aniztasun afektibo sexualeko eskubideen errespetua eta sustapena bultzatzeko. Uste dugu funtsezkoa dela estrategiak adostea eta irizpideak ezartzea eremu honetan esku har dezaketen erakundeen artean; hala, horiek burutzen dituzten jarduketan erdigunean haurren eta nerabeen interesa jarri behar da, baita horien eskubideak ere.

Arartekoaren erakundearen kezkatuta gaude laguntza publikoak hobeto zehatzeaz, haurren eskubideei hobeto egokituak izan daitezzen. Laguntza horiek, oro har, [14/2012 Legearen](#) babesean ezarri dira, pertsona heldu transexualentzat. Era berean, kezkatuta gaude genero-adierazpen edo -identitate anitzak dituzten edo genero-jokabide ez arautuak bizitzen ari diren haurrek gutxietsita dituztelako beren eskubideak, baita pertsona gisa modu askean eta erabat garatzeko ahala ere, helduak ados ez jartzearen edo behar bezalako orientabiderik ez edukitzearen ondorioz (senideak, ikastetxea edota herri-administrazioak).

Horregatik, Arartekoak uste du funtsezkoa dela arlo honetan esku hartzeko eskumena duten erakundearen arteko estrategiak adostea eta irizpide argiak ezartzea, euren jardueren oinarri haur eta nerabeen interesa eta eskubideak hartuz, hori guztia, haurrak babesteko legeek eta araudiak ezarritakoari jarraiki (adingabearen interes gorena, bere iritzia emateko eskubidea, etab.), eta LGBTIen eskubideak babesteko nazioarteko eta hemengo tresnetan jasotako printzipioekin, edota emakumeen eta gizonen berdintasunerako legedian ezarritakoarekin bat eginez.

Ezgaitasunen bat duten haurrek helduek bezain beste arazo edo gehiago dituzte, hirugarren pertsonetikiko duten menpekotasun berezia dela-eta, ekipamenduetan (etxebizitza-, hezkuntza-, osasun-, gizarte- eta kultura-ekipamenduetan, besteak beste) eta hiri-inguruan edo garraioan dauden irisgarritasun-urritasunengatik. Horrela, txosten orokorraren ondorioetan adierazi den bezala, uste dugu premia duela botere publiko guztiek haien jardueren premisa gisa irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua gain har dezaten eta herritar guztien beharren aniztasunari erantzuten dion ingurunea sortzeko. Horretarako, jendea biltzen den eraikin, establezimendu eta instalazioetan irisgarritasuna bermatzen duten ezinbesteko neurriak, lurraldea antolatzeako tresnak, hirigintzako planak eta urbanizazio-proiektuak abian jarri behar dituzte.

Bestalde, nahitaezkoa da ezgaitasunen bat duten pertsonen haien eskubide guztiak baliatzeko eta gizartean guztiz parte hartzeko aukera emango dien ekintza positiboaren neurriak hartzen sakontzea. Izan ere, txosten honetan aurkeztutako demandek eta ebazpenek ekintza positibo horiek hartzen dituzte kontuan; ekintza horiek hezkuntzaren eremuari eta osasunaren eta aisialdi-denbora librearen eremuei dagozkie.

Haur eta nerabe ijitoei eragin dieten Arartekoaren jarduketetan, aurrean, izendatzaile komun bat egon da; izan ere, jarduketa horiek guztiek izan dute zer ikusia bizikidetzatza-gatazkekin edo auzokideekiko harremanekin. Oro har, egoera konplexuak dira eta gizarte-bazterketako eta marjinaltasuneko osagai altua daukate; urteetako bilakaera izan dute eta ondorio desberdinak izan dituzten esku-hartzetara anitz egin dira. Familia horietako haur eta nerabeei dagokienez, begi-bistakoa da normalean haurren babesgabetasun egoeretakoa erabiltzen diren neurriak ez direla eraginkorrak. Beraz, beharrezkoa da elkarrekin hausnartzea lankidetzako erantzun desberdinen inguruan; erantzun horietan, erakunde- eta gizarte-eragile desberdinek elkarrekin lan egingo dute partekatutako helburuetatik abiatuz.

Aldi berean, premiazkoa da hedabideek ematen duten ijitoen eta, zehazki, haur eta nerabe ijitoen irudiaren inguruko gizarte-hausnarketa egitea. Haurrak biktima gisa hartu ohi dira eta nerabeak hausle gisa; tratamendu hori asko areagotzen da. Izan ere, nes-

ka eta mutil ijitoen kasuan, oso gutxitan ematen dira horien inguruko berriak modu positiboan eta ez dira eskubide-subjektutzat hartzen.

Amaitzeko, eta urtero bezala, gogorarazi nahi dugu 1989ko Haurraren Eskubideen Inguruko Konbentzioarekin, XX. mende amaierako paradigma-aldaketa eman zela Zuzenbideak haurra kontuan hartzeko moduari dagokionez: haurra, babes-objektu izatetik, eskubideen subjektu titular izatera igaro zen. Izan ere, haurra eskubide horiek gauzatzeko ahaldundu behar da. Hala, konbentzioak ez ditu eskubide berriak ezartzen haurrentzat: gainerako pertsonak dituzten eskubide berak dituzte eta estatuak bermatu behar du haurrek eskubide horiek gauzatu ahal izatea, helduek gauzatu ahal dituzten bezala. Hori lortzeko, paradigma-aldaketaren ardatz nagusi gisa, konbentzioak bi printzipio “iraultzaile” (eskubideak ere badira) hartzen ditu barne aurreko egoerari dagokionez: “haurraren interes gorenaren” printzipioa eta **“haurra hori ukitzen duen erabaki guztietan entzuteko”** betebeharrak ezartzen duen printzipioa. Bi printzipio horiek batera irakurri behar dira eta haurraren estatutu berriaren oinarrian daude, “eskubide-subjektu” gisa.

Haurrak eskubide-subjektutzat hartzearen ikuspegiak esan nahi du ikuspuntu berri bat ere egongo dela helduen eta haurren arteko harremanetan. Horrek dinamika demokratiko bat sortzen du harreman horietan. Haurrak ez “dira” inorenak, ezta bere gurasoenak ere. Haurrak ez dira inorenak,

bereak baizik. Hala, eskubide-subjektutzat hartu behar dira eta horien interesa kontuan hartu behar da ukitzen dituzten erabaki guztietan. Horrez gain, haurren iritzia entzun behar da intereseko edukia ezarri aurretik.

Konbentzioaren 12-1 artikulua arabera: *“Kide diren Estatuak umeari epai propio bat osatzeko moduan egotea bermatuko diote, bere iritzia modu askean adierazteko haurraren eragina duten gai guztietan, eta aintzat hartuko dira haurraren iritzi guztiak bere adinaren eta heldutasunaren arabera”*. Hau da, ez da soilik haurra “entzun” behar, baizik eta “kasu egin” behar zaio. Horrek esan nahi du haurraren iritzia hartu behar dela kontuan (iritzi hori ez mantentzea erabakitzen duenaren arrazoiak justifikatu behar dira) eta iritzi hori beharrezkoa den unean entzun behar da, hala badagokio, erabakian eragina izan ahal izateko. Bestalde, erabaki horiek haurraren bizitza garatzen den eremu guztiekin daude lotuta: baldintza materialak; hezkuntza- eta jolas-prozesuak; osasunaren zaintza; garapen-aukerak, familia-egoera, etab.

Horregatik guztiagatik, berriz ere eskatzen ditugu parte hartzeko bide erreal eta egonkor gehiago; haurrak eta nerabeak entzutera bideratutako denborak; mekanismo egokiak; metodologia erakargarriak, etab. Horiek bermatu behar dute adingabeek horien bizitzan eragina duten eremu desberdinetan parte hartzen dutela.

VI

ATAIA

Eranskina

VI. Atala

ERANSKINA

Arloko araudia

Hezkuntzarako eskubideari dagokionez:

- [8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa](#), hezkuntzarako eskubidea arautzen duena.
- [2/2006 Lege Organikoa, 3 maiatzaren 3koa](#), Hezkuntzari buruzkoa.
- [8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa](#), hezkuntza-kalitatea hobetzeko (LOMCE).
- [1/1993 Legea, otsailaren 19koa](#), Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- [118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa](#), hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- [201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharreri buruzkoa.
- [69/2015 Dekretua, maiatzaren 19koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari -garraioen arloan eskumenak dituen sailak finantzatutakoari- buruzkoa.
- [86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa.

Haurrak eta nerabeak babesteari dagokionez:

- [12/2008 Legea, abenduaren 5koa](#), Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- [238/2010 Dekretua, irailaren 14koa](#), Gizarte Zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzari buruzkoa.
- [353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa](#), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.

- [424/2013 Dekretua, urriaren 7koa](#), gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzkoa.
- [185/2015 Dekretua, urriaren 6koa](#), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

A. Babesik gabeko haur eta nerabeen gainean:

- [8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa](#), haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.
- [26/2015 Legea, uztailaren 28koa](#), haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.
- [1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa](#), Adin Txiki-koen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea Partzialki Aldatzekoa.
- [54/2007 Legea, abenduaren 28koa](#), Nazioarteko Adopzioari buruzkoa.
- [3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.
- [40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzekoa.
- [114/2008 Dekretua, ekainaren 17koa](#), Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duena eta, aldi berean, Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileen kreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen urriaren 28ko 263/2003 Dekretua aldatzen duena. (Dekretu hori aldatu du [245/2012 Dekretuak, azaroaren 21ekoak](#), adingabeen adopzioan foru-aldundiek jarraitu beharreko jarduna arautzen duen Dekretua aldatzen duenak.)
- [131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa](#), gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituena.
- [230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa](#), BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.

B. Ezinduta edo mendekotasun egoeran dauden haur eta nerabeei buruz:

- [26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa](#), araudia Desgaitasuna duten Pertsonen buruzko Eskubideen Nazioarteko Konbentziara egokitzeko.
- [51/2003 Lege Organikoa, abenduaren 2koa](#), ezinduen aukera berdinerako, bereizkeriarik ezerako eta erabilerraztasun unibertsalerakoa.
- [39/2006 Legea, abenduaren 14koa](#), autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
- [20/2012 Legegintzako Errege-dekretua, uztailaren 13koa](#), aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurrii buruzkoa.
- [1050/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa](#). Horren bidez arautu da Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendeko Pertsonak Artatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarri zen gutxienezko babes-maila.
- [1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa](#). Horren bidez arautu dira Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendeko Pertsonak Artatzeko Legean ezarri ziren Autonomiarako eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemaren prestazioak.
- [2013ko uztailaren 25eko ebazpena, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Estatuko Idazkaritzarena](#). Horren bidez argitara eman da Gizarte Zerbitzuen Lurralde Batzordeak eta Autonomia eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemak gai hauetaz onartu duen Akordioa: irizpide komunak, gomendioak, mendekoak diren edo izateko arriskuan dauden hiru urtetik beherako haurrei osoko arreta emateko planen gutxienezko baldintzak, 2012ko ekitaldiari dagokion ebaluazioa (Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendeko Pertsonak Artatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aplikatzearen ondorioak ebaluatzen dira bertan).
- [13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa.
- [50/2016 Dekretua, martxoaren 22koa](#), desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duena.

Osasunari dagokionez:

- [14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa](#), Osasunari buruzkoa.
- [33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa](#), Osasun Publikoari buruzkoa
- [8/1997 Legea, ekainaren 26koa](#), Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- [41/2002 Legea, azaroaren 14koa](#), informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena (9.3 artikulua: 12 urtetik aurrera entzuna izateko eskubidea).
- [1/2016 Legea, apirilaren 7koa](#), Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.

- [16/2012 Legegintzako Errege-dekretua, apirilaren 20koa](#), Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta bere prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurrii buruzkoa.
- [175/1989 Dekretua, uztailaren 18koa](#), Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta onartzen duena.
- [114/2012 Dekretua, ekainaren 26koa](#), Euskal Autonomia Erkidegokoan eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzkoa.

Zigor-arloko erantzukizunari dagokionez:

- [5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa](#), adingabeen erantzukizun penal arautu duena eta lege hauek aldatu dutena: [7/2000](#) eta [9/2000](#) Lege Organikoak, abenduaren 22koak; [9/2002 Lege Organikoa, abenduaren 10ekoa](#); [15/2003 Lege Organikoa](#), azaroaren 25ekoa; [19/2003](#) eta [8/2006 Lege Organikoak, abenduaren 4koak](#).
- [1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa](#). Horren bidez, 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onartu da.
- [163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa.
- [80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa](#), askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko ikastetxeei buruzkoa.

Familia-erantzukizunari eta haren osotasuna babesteari dagokionez:

- [40/2003 Legea, azaroaren 18koa](#), familia ugariak babesteko.
- [13/2008 Legea, abenduaren 12koa](#), familiei laguntzeko.
- [1/2008 Legea, otsailaren 8koa](#), Familia Bitartekaritzakoa.
- [7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa](#), gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzkoa.
- [124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena. Dekretu hori aldatu du [239/2011 Dekretuak, azaroaren 22koak](#), Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua aldatzeko denak.
- [177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa](#), familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa. Dekretu hori aldatu du [31/2015 Dekretuak, martxoaren 17koak](#), lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoak.
- [154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa](#), familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa.

- [246/2012 Dekretua, azaroaren 21ekoa](#), Bitartekarien Erregistroari buruzkoa eta erregistro horretan inskribatzeko egiaztatu beharreko familia-bitartekaritzako presakuntza zehazten duena.
- [30/2015 Dekretua, martxoaren 17koa](#), seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena.
- [1618/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa](#), elikagaien ordainketa bermatzeko funtsaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa².
- [1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa](#), genero-indarkeriaren aurkako erabateko babesari buruzkoa.

² Horren xedea da banandutako gurasoen seme-alaba adingabeek dirukopuru bat hartuko dutela bermatzea –aurrerakintzat hartzen da–, familia-unitateak haien premiei aurre egin ahal izan diezaien, obligaziodunak ordaindu beharreko elikagaiak ordaintzen ez dituela eta.

